



Eusebio ARREGI
Laxoaren Egunean
omendua → 36

Herrietako Bestak

Arizkun, Erratzu, Doneztebe, Saldias eta Senpere

LESAKA → 24

San Juan bezperako besta antolatu dute

URROZ → 36

Ofizio Zaharren Eguna ekainaren 22an

LEITZA → 38

500 kirolari Euskal Herria Mendi Erronkan

SARA → 46

XII. Mendi Bizikleta ibilaldia ekainaren 23an

ELIKAGAIEN BANKUA | Oinarrizko beharrak asetzeko

Langabeziak, diru laguntzak gutxitzeak edota soldata murrizketek kolokan jarri dute etxe askotako sostengua. Gizarteko sektore

jakin batzuen arazotzat jotzen zena zabaltzen joan da, baita duela gutxira arte egoera ekonomiko eroso zutenen artean ere.



Maitetxu LEONIS

ELKARRIZKETA → 3

Ezintasuna duten haurren gurasoen taldea osatu dute Bortzirietan.

«Jaso dezakegun babesik hoberena gizarteak ulertzea da» dio Maitetxuk

GIZARTEA → 10

Belateko lanek dirauten artean segurtasun neurriak bermatzea eskatu diote udal ordezkariak Sustapen kontseilariari

GIZARTEA → 37

Udalek bankuekin duten zorra %9,3 (1,9 milioi euro) murriztu dute 2011tik 2013ra.

ZOZKETAK → 56

Txartela egiteko deitu **948 63 54 58** telefonora

Etxean jatekorik falta ez dadin, Elikagaien Bankuen laguntza ezinbestekoa da aunitzentzat

ERREPORTAJEA → 4-5


Pasa den apirilean 259 pertsonentzako elikagaiak (86 familia) banatu zituzten **Baztan, Malerreka eta Bortzirietako** Gizarte Zerbitzuek. **Leitzaldeko** Gizarte Zerbitzua oraintxe ari da zerbitzua antolatzen eta dituzten kalkuluen arabera, beste 115 pertsonak (55 familia) beharko lukete laguntza

ETORKIZUNEAN ESKARI GEHIAGO

Deus kobratzen ez duten langabeen kopurua goraka doa hilabetetik hilabetera

2013ko MAIATZEAN

1.405 LANGABE
ESKUALDEAN



Langabezi-prestaziorik kobratzen dute?

☐ bai ☒ ez

Langabezia jautsi egin da apirilean eta maiatzean baina, hala ere, langabezi-prestaziorik kobratzen ez dutenen kopurua goraka doa hilabetero.





**IREKI
LEIHOAK**
www.irekileihoak.com

T-F: 948 630 962
M: 626 313 162

Pol. Ind. Zalain, 8 - BERA
irekileihoak@irekileihoak.com

Aluminio R.P.T · PVC · Itxidurak · Kontraleihoak · Barandak · Berandak · Pertsiak · Toldoak

IREKI LEIHOAK-eko EGUZKI OIHALEN SAILAK AURKEZTEN DIZU:
UDABERRI, UDA ETA UDAZKENEKO ESKAINTZA. EGUZKI-OIHAL (TOLDOA)
ETA AUTOMATISMOETAN.

EGUZKI-OIHALAK EGUZKIAREN BERO ZUZENA GUTXITZEN DUELAKO, AURREZPEN ENERGETIKO NAHIZ EKONOMIKOA LORTZEN DUGULAKO, ETA CO2aren KONTSUMOA GUTXITZEN DUGULAKO. TOKI ZABAL ETA EROSOAGOAK PRESTATZEN DITUGU, INTIMITATE GEHIAGO LORTUZ, GURE ALTZARIAK BABESTUZ, DISEINUA ETA APAINTZEA ALDE BATERA UTZI GABE.

GUZTI HONEGATIK, ZURETZAT ESPRESKI EGINIKO PROIEKTUAK EGITEN DITUGU! ZURE ETXE NAHIZ NEGOZIOAREN GARRANTZIA KONTUTAN HARTZEN DUGULAKO, IREKI LEIHOAK-EN ZURE EKONOMIA KONTUTAN HARTZEN DUGULAKO, ZURI EGOKITUTAKO AURREKONTUA PRESTATUKO DIZUGU, HORTARAKO, KALITATEARI UKO EGIN BEHAR IZAN GABE.

**EGUZKI
OIHALAK**

%15
Dsknt



Zauden tokian zaudela
sar zaitez mugikorrarekin
www.ttipi.net edizioan






ttipi-ttapa

Kaskontako bideo, 7-1 | 31770 LESAKA
948 635 458 | www.ttipi.net | info@ttipi.net

Eguneroko borrokan, maitasuna da beraien arma. Oztopen aurrean seme-alaben irrifar batek ematen diete indarra. Baina batzuetan ez da erraza izaten ezintasuna duen haur

baten gurasoa izatea. Ikara, babes eza... sentitzen dituzte. Horregatik, esperientziak elkarbanatu eta elkarrekin lan egiteko taldea sortu dute Bortzirietan. Gurasoak eta profe-

sionalak bilduko dira hilabeteen behin. Taldean «ezintasunaz naturaltasunez hitz egiteko bidea» zabaltu nahi dute. Elkarrekin integrazioa lortzeko urratsak emateko.

Maitetxu LEONIS | Ezintasuna duten haurren gurasoen taldeko kidea

«Duzun hutsune bat betetzen du egoera berean daudenekin elkartzek»

E. IRAOLA

Zerk bultzatu zaituzte taldea sortzera?

Guraso bezala, gure kezkak elkarbanatu eta eguneroko borrokarako indarrak hartzeko gurea sortu nahi genuen. Ezintasunari buruz naturaltasunez solasteko eremu baten beharra zegoela nabaritzen genuen. Urteetan zehar eskualdean ikusi ditugun premia batzuen ondorioa ere izan da. Zenbaitetan aurrerapausoak ematea hagitx zaila izaten da, gizarte osoaren inplikazioa eskatzen duelako. Profesionalen laguntza ere beharrezkoa izaten da. Bizi osoan zehar borrokatu behar dugula dakigu gutariko askok. Borrokatu, gogor eta etenik gabe; bakarka aritu beharrean, taldean aritzeak bidea errazten du.

Zein da taldearen helburua?

Zure seme-alabak ezintasunen bat duela jakiten duzunean triste, babesik gabe eta galduta sentitzen zara. Taldeak egoera horri irtenbidea eman nahi dio. Izan ere, duzun hutsune bat betetzen du egoera berean daudenekin elkartzeak, ez zara artaldeko ardi beltza sentitzen. Gure kezkak, esperientziak... partekatzen ditugu eta ez dugu azalpen handirik eman beharrik. Berehala senti-



ARGAZKIA: TTPI-TTAPA

Maitetxu Leonis, azaroan ANFASekoek egin zuten egutegi salmentan.

INTEGRAZIOA

«Lehenengo pausoak familiek eman behar ditugula uste dut. Ez dugu ezkutatu edo lotsatu behar. Batez ere, gizartean dauden aurreiritziak desagertarazi behar dira. Normaltasuna eskatzen dugu, jaso dezakegun babesik hoberena gizarteak ulertzea da, desberdintasun eta errukirik gabe».

Landa eremuan behar dituzuen zerbitzuak eskura dituzue?

Oraindik asko dugu lortzeko, landa eremuan edo hirian bizitzea ez baita gauza bera. Guk ez dugu Iruñara edo Donostiara bidaltzea nahi. Herrian bertan nahi ditugu behar ditugun zerbitzuak eta horiek lortzeko milaka eskari egin ditugu. Landa eremuan bizitzeak, dena den, bere alde onak baditu. Denok ezagutzen dugu elkar eta momenturik zailenetan babes handia jasotzen dugu. Osasun Zentroan eta Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean ere in-

plikazioa handia da, batez ere, Belen Compains, pediatra eta Jokin Apezetxea, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuetako langilearena.

Krisiak zein eragin izan du laguntzetan?

Betidanik izan gara gizarte sektore ahulenetakoa. Laguntza gutxi jaso ditugu eta orain genituen apurkak asko murriztu dira. Terapiak, laguntzak... gure poltsikoetatik ordaintzen ditugu eta familia-ko ekonomian eragiten du horrek zuzen zuzenean. Onartezina da, baina beti bezala, ahulenak gara kaltetuenak.

Zein pauso eman behar dira erabateko integrazioa gertatu dadin?

Lehenengo pausoak familiek eman behar ditugula uste dut. Ez dugu ezkutatu edo lotsatu behar. Lagunei, eskolan, herrian... argierakutsi behar dugu egoera: hau nire haurra da, arazo hau du eta hone la tratatu behar da. Batez ere, gizartean dauden aurreiritziak desagertarazi behar dira. Gure haurrek min emanen dietela uste dute batzuk, biolentoak direla, baina ez da hala. Normaltasuna eskatzen dugu, jaso dezakegun babesik hoberena gizarteak ulertzea baita, desberdintasun eta errukirik sorrarazi gabe.

GIZARTEA → ELIKAGAIEN BANKUAK

Elikagai Bankuen laguntza, krisiak oinarritzko beharrak irentsi ez ditzan

Eskaria gorantz doan arren, oraindik aurreiritzi asko gainditu behar dira gaia normalizaziora irits dadin

Muturreko pobreziarekin lotzen zen beharra, askoren eguneroko arazoa bihurtu da. Krisiak eraginda, geroz eta gehiago dira oinarritzko premiak ase ezinik dabiltzanak. Mahaian jatekorik falta ez dadin, Elikagai

Bankuen laguntza ezinbestekoa da aunitzentsat. Horregatik, eskualdean boluntarioak elikagaiak biltzen hasi dira gizarte zerbitzuekin elkar-lanean. Elikagai kilo bakoitzarekin itxaropen kiloa banatu nahian.

Eneritz IRAOLA

Langabeziak, diru laguntzak gutxitzeak edota soldata murrizketek kolokan jarri dute etxe askotako sostengua. Gizarteko sektore jakin batzuen arazotzat jotzen zena zabaltzen joan da, baita duela gutxira arte egoera ekonomiko eroso-a zutenen artean ere. Horren ondorioz, eskualdean Elikagai Bankuetako eskariak gorantz egin du azken urteetan. Datu kezagarriak dira eta gehiago jakinik, errealitatearen zati bat soilik uzten dutela agerian. Aurreiritzi eta lotsen ondorioz, asko direlako sokak lepoa estutu arren, egoera isilean bizi eta laguntza eskatzera ausartzen ez direnak.

AURREIRITZIEN MUGA

Janaria bildu eta behar-rean dauden artean banatzea da Elikagai Bankuen egitekoa. Zailtasunak dituztenei bidea erraztea. Hala ere, aurreiritziak tarteko, sozialki mugatua dagoen gaia dela uste du Maite Pe-

ruenak, Leitzaldeko Gizarte Zerbitzuetako langileak «gizartean oraindik, kutsu ezkorra du Elikagai Bankuetatik laguntza jasotzeak. Alokairua ordaintzeko diru laguntzak eskatzea normalizat jotzen da, baina jatekoa eskatzeak barrena mugitzen du, sozialki pisu handia duelako». Gaizki ulertu hau kon-

pondu beharra dagoela dio «Elikagai Bankuak ez daudelako bakarrik pobrezia larria bizi dutenei zuzenduta. Familia batzuei agian, soldata hipotekak irensten die eta elikagaiak bankutik eskuratuta diruz hobe ibil litezke».

Leitzaldean, berriki herriko emakume talde batek eman dio bul-

tzada Elikagai Bankuaren sorrerari. Hauek hasitako bideari segika Gizarte Zerbitzua antolaguntza lanetan buru-belarri ari da. Premia bada-goelako; orain artean eskura dituzten datuen arabera Goizueta, Areso, Arano eta Leitzan 55 familiak, orotara 115 pertsonak beharko lukete laguntza, populazioaren

BALIABIDEA

«Argi utzi behar da elikagai bankua baliabide bat dela eta ez limosna».

Maite PERURENA

Leitzaldeko Gizarte Zerbitzuetako langilea

MALERREKAN LAGUNTZA TXIKIAK, KONPONBIDE HANDIAK

Laguntza txikiak, konponbide handiak izan daitezkeelako

Behar-rean dauden herritarrei laguntzeko sarea osatu dute Malerrekan. Herriko eragile eta elkar-teen bat eginda; gurasoek, merkatariek, kirolariek, adinekoek, gazteek... beren apurra emanez, Malerrekako Elikagaien Bankuari bultzada ematea da helburua. Talde bakoitzak ekitaldiak antolatu eta jasotzen duten dirua Gizarte Zerbitzuen eskura uztea da asmoa, hauek elikagaiak eros ditzaten. Nafarroako Elikagaien Bankutik hila-beteen behin iristen den janariak gain, behar-rean daudenentzat osagarri izanen da lortutakoa. Parte hartzaileak anitzak izanda mota guztietako ekitaldiak izanen dira datozen hilabeteetan. Orain arte egindakoen artean aipatu, apirillean jokatu zen Doneztebeko Mendaurren eta Erreka guraso elkar-teen antolatutako futbito txapelketa mistoak. Parte hartzaile bakoitzak euro bat or-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Herriko eragileek ekimenaren aurkezpena egin zuten maiatzaren 28an Donezteben Arkupeak-eko egoitzan

daindu zuen eta horrela, 200 euro eskuratu zituzten. Laguntza txikiak pilatuz, konponbide handiak lortzeko lanean segiko dute.

	BAZTAN		
	Familia	Pertsona	F
2011 urtea			
Abendua	16	55	
2012 urtea			
Urtarrila	14	44	
Otsaila	18	69	
Martxoa	18	69	
Apirila	18	69	
Maiatza	21	75	
Ekaina	21	75	
Uztaila	31	98	
Abuztua	24	84	
Iraila	28	97	
Urria	26	89	
Azaroa	35	115	
Abendua	37	121	
2013 urtea			
Urtarrila	40	120	
Otsaila	40	126	
Martxoa	42	131	
Apirila	43	132	

BORTZIRIAK		MALERREKA	
Familia	Pertsona	Familia	Pertsona
17	-	10	46
17	-	-	-
17	-	13	53
18	-	-	-
18	-	10	44
17	-	13	49
17	-	12	47
17	-	13	47
18	-	14	54
18	-	11	44
19	-	10	42
20	-	15	59
22	-	11	46
23	-	-	-
23	-	15	52
24	-	-	-
25	71	18	56

DATU ITURRIA: BAZTAN, BORTZIRIAK ETA MALERREKAKO GIZARTE ZERBITZUAK

%2,8ak. Horien artean, 40 adingabe eta familia unitate bakarreko 18 pertsona izanen lirateke.

ESKARIAK NON

Eskualde osoan duela urte batzuk arte, nagusiki elizaren inguruko taldeak aritu izan ziren eginkizun honetan. Baztanen esaterako, 2011 urtera arte Bidelagun elkarteak aritzen zen elikagai banaketa egiten eta Lesakan oraindik Caritasen taldeak eskaintzen du laguntza. Bortziria eta Malerrekan berriz, urtetako esperientzia dute zeregin honetan Gizarte Zerbitzuek.

Itziar Iguzkiagirre, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuetako langileak,

azaldu digu funtzionamendua «Gizarte Zerbitzuetara laguntza eske etortzen direnean kasua aztertu eta irizpideak betetzen badituzte Elikagai Bankuaren berri ematen diegu beraien esku dago gero laguntza hori onartzea edo ez». Este-

reotipoak «pixkanaka aldatzen ari direla» uste du, «gaur egun herriko edozein familia egon litekeelako premian». Hala ere, gaia ez omen da publikoki azaleratzen, «oraindik ere lotsa sentitzen dute aunitzek. Horregatik, janariak banatzeko lekua eta ordua zehazten denean, intimitatean mantendu nahi izaten dute beraien egoera».

HARTZAILEAK

Laguntzak emateko orduan, gehienbat irizpide ekonomikoak hartzen dira kontuan. Gutxieneko soldataren diru kopurua edo gutxiago kobratzen duten unitate familiarrek eskuratu dezakete laguntza. Horretaz gain, lehentasuna izanen dute guraso bakarra duten familiek edo adin txikikoak izan eta bazterketa egoeran egon edo egoteko arriskua dutenak. Profila betetzen dutenekin zerrenda bat osatu eta elikagai iturrien bila hastea da hurrengo pausoa. Hainbat sistema erabili izan dituzte urteetan zehar, Bortzirie-

ALDAKETA

«Sobera zuenari, egoera estutu delako, pausoa gibelera ematea kosta egiten zaio. Baina laguntza pixka batekin hobeki bizi behar badu, zergatik ez eskatu?»

Arantxa GAMIO

Baztango Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Langilea

KANPAINA

«Herriko premiak ikusita laguntzeko mugimendua sortu da eta pozgarria da, herriko herriarentzat sortutako kanpaina hauek izaten direlako eraginkorrenak».

Begoña ALBERRO

Malerreko Udaleko Gizarte Zerbitz. Langilea

tan esate baterako, 'Tú eliges, tú decides' kanpainatik lortutako diruarekin erosten ziren elikagaiak. Gaur egun Baztan eta Malerreka bezalaxe, Nafarroako Elikagai Bankuari eta Europakoari egiten diete eskaria.

ELIKAGAI ITURRIAK

Hilean behin jasotzen dute Nafarroako Elikagaien Bankutik datorren laguntza. Supermerkatuetan bildutako oinarriko produktuak izaten dira edo kooperatiba eta enpresek ematen dituztenak. Europako Elikagaien Bankutik berriz, urtean hiru aldiz iristen zaie laguntza. Horieta

gain, kanpaina bereziak ere antolatzen dituzte eta Arantxa Gamiok, Baztango Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Langileak azaldu digunez indartsuak izaten dira oso «herriarren inplikazioa lortzen dugu eta benetan emaitza onak lortzen dira».

Guztiekin bat egiten dute aipatzean, Elikagai Bankuen aldeko pausok eman behar direla. Pausoak ahal duenak lagunduz, baina baita gaia normalizatuz ere. Lotsa eta aurreiritziak itzalean gelditu eta beharra duenak laguntza eskatu dezan. Bizirautetik bizitzea igaro daitezen.

Carmen AZPIROZ | Leitzako Emakume Boluntarioen Taldeko kidea

«Gure herriko familia eta pertsona batzuk bizi duten egoera latzean argi pixka bat jartzea da gure asmoa»

Bederatzi emakumek osatzen duen Leitzako emakume boluntarioen taldea. Hamabostean behin erlijioaren bueltan elkartzen hasi ziren, egun batean «hitzetatik ekintzetara jotzea» erabaki» zuten arte. Carmen Azpiroz taldekideak azaldu digunez, Leitzan ere krisiaren eragina nabarmena zela sumatu zuten eta «laguntza txiki batekin batzuen beharrak asetzen lagunduko zuela». Hain zuzen ere, elikagai bilketa antolatu zuten eta gus-tora daude emaitzarekin «herriko emakume talde baten ideia da, herriaren mesederako izanen dena eta jasotako erantzuna oso handia izan zen». Jasotako elikagaiak Gizarte Zerbitzuen esku utzi zituzten, haiek banaketa egiteko. Etorkizunean ere lanean segiti nahi dute «beharrean daudenak gizarte zerbitzuei edo apaizari esan eta guk elikagaiekin paketeak osatuko ditugu beraiei emateko». Gogotsu daude, izan ere «herriko familia



ARGAZKIA: KRISTINA URRUTIA

Leitzako emakume boluntarioen taldea, elikagai bilketan jasotako produktuekin

eta pertsona batzuk bizi duten egoera latzean, argi pixka bat jartzea da gure asmoa» esan digu.

ESKATZAILE PERFLA

«Estereotipoak apurtzen doaz, bertako edozein familia arrunt egon liteke premian».

Itziar IGUZKIAGIRRE

Bortzirietako Udaleko Gizarte Zerbitz. Langilea



Nire txanda
Joseba URROTZ

Musika

Mundu materialean ukitu daitezkeen tresna edo gorputzek sortzen duten eta ukitu eta ikusi ezinezkoa den zera. Gure belarrietatik sartu eta are ukiezinagoa den arima akitzen duena. Grekeratik datorren hitza, "mousike", Alo-si edo Musen artea omen; alegia jainkosen afera, zerbaitegatik erranen zuten hori. Mundu honetako mugek gehiegi estutzen gaituzte-nean, mugarik gabeko mundu zabalera garamatzan esku zabala, askapena...

Malkoak isurtarazi, irrifarrea azaldu, dantzara bulkatu, edo oilo haragitan larrua mugiarazten diguna.

Musikak eramaten gaituen mundu horretan ez dago garaile edo galtzailerik, aberats edo behartsurik, denok dugu han egoteko eskubidea.

Akaso mundu honetara etorri baino lehen, hantxe ginen; harat ihes egiten dugu mundu honetan egoitea zail egiten zaigunok ere. Eskerrak musika!

Mundu hori ez dago hemen; ezta hemendik kanpo ere. Mundu hori gure baitan dago, nonbait gure barranean. Gurekin jaio zen eta gurekin desagertuko da mundu honetatik joaten garenean. Edo ez...

Ezpala

Aitor AROTZENA

Udaberririk gabeko uda dator

Berdin zaigu hamahiru arraultzeko dozena Sorgintxuloko klarisei eramatea edo Salamanca urdaiazpikoa Pello Zabalar; San Kufatoko baselizari 13 itzuli txingoka ematea edo Mecara begira bizkarra 666 aldiz makurtuta erregu egitea; San Juan sua gibelka saltatzea edo ilea zerrora moztu eta pandereta joz *Hare Krishna* kantatzea. Baina eguzkiaren goxotasuna behar dugu!!!

Nabarmentzekoak



Eusebio ARREGI
Laxoaren Egunean omendua



Javier MARIEZKURRENA
Kamioi gidaria Urantzian



Haizea LUZURIAGA
Donamariako Benta ETBn

Maiatzaren 26an egin-dako Laxoaren Egunean urtetan Doneztebeko zapatari eta guante egile izandakoa omentzeko aprobetxatu zuten. 84 urte ditu eta ofizioa gazte bati erakutsi dio.

Azken urteetan Europako hainbat zirkuitutan ibili ondorengatik Los Arcoskoan konpetitzeko aukera izan zuen gidari doneztebarrak. Ingaruko hainbat motorzale hurbildu zen.

Joan den aste osoan ETBko *Txoriene* saioan ikusi ziren Donamariako Bentako sukaldariaren errezeta goxoak. Munduko hainbat lekutan ibilia da Haizea, bertako sukaldaritzaz ezagutzen.

Atzera begira → 2003.06.19 / TTIPI-TTAPA 352 zbk.



Laxoaren Gida idatzi eta argitaratu zuten Arraztoak eta Primek

«Modu praktikoan eta ximplean azaltzen ditugu laxoaren ezaugarriak». Honela laburbildu zuten Tiburtzio Arraztoak eta Josu Primek duela hamar urte argitaratu zuten *Laxoaren Gida*. Pilota modalitate zaharrena bada ere, pilotazaleendako ezezaguna izaten segitzen zuen laxoak. «XIX. mendeko azken zatira arte kirol nagusia zen laxoa. Ezker eta aitzin paretak agertu zirenean, joku zuzenak, tartean laxoa, desagertzen joan ziren. Jokatzeko aukera gehiago ematen zuten, jende guttiagorekin» aipatu zigun Arraztoak. Kasik desagertu egin zen laxoa, 1960an Jesus Jaimerena apez iruritarrek berreskuratu zuen arte.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usua Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Konbi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Iruña eta Itzaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerediain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Martin Laralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senperoko udalak, Zugarramurdiako Akelarre elkarteak, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	40€	Europa	59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Ipar Euskal Herria	59,50€	Amerika eta Australia	124€	Leitza	17€



Bortzirietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua



Cajanavarra Fundazioak diruz lagundua

Kolaborazioak

Herri ttikien etorkizuna

Pello APEZETXEA

Nafarroako Gobernuaren asmoetako bat, Kontzejuak zein hainbat Udal eta Mankomunitate batzea da. Zein da arrazoia, hainbertze mendez elkarbizitza antolatzeke jendeak erabili dituen erakundeak desagerrarazteko? Iduri duenez, krisi denbora honetan egiten ari diren murrizketa bidetik joanez, gastu publikoak ttikitzea. Hau da, diru kontuak. Baina dirudun handien eta agintean dauden diru kontuak. Hauen gastuak ez dira ttikitzen ari, aunitzetan beharrezkoak ez izanagatik. Zergatik, bertzela, luxuzko gauzen salmenta lehen baino handiagoa izatea, aunitzentzat beharrezko gauzetarako ahalbidea ttikitzen ari den bitartean? Zergatik, bertzela, hilabeteko gastua hornitzeko gero eta gehiagoren ezina? Diru kontuak, murrizketak bulkatzea, sakelak beteak dituztenen kontuak dira.

Ekonomiaren osasunak eskatzen omen du guttiago gastatu eta aurreztu beharra. Baina zergatik ez da hori egiten administrazioko goiko mailatik hasita, diru zorro handiagoe-tatik hasita? Banketxe-ek eta agintariak dirua badute gastatzeko, baina zertan gastatzeko? Ez jendearen beharretan prezeski, batzuen negozioetan baizik. Eta bertzela gauzatarako, diru gutidunari kentzen joan. Eta horretarako, herri ttikien zerbitzuak gutitu eta urruntzea egokitzen jo, eriek eta zaharrek bereziki jasan beharko dutena.

Ikastetxeetan eta ospitaleetan irakasleak eta medikuak kentzen ari diren heinean, jendeak ikasteko eta sendabideak izateko aukerak murrizten joan, hain beharrezko ez diren gaietarako sosak bilduz. Norentzat ari dira agintariak? Hau da demokrazia? Izen potoloa iduriagatik, la izen hutsean gelditzen ari dela erratea ez da astakeria, herriak nahi duena eta behar duena betetzen ez den neurrian.

Eta bidenabar herri ttikien autonomia zanpatzen ari dira horrela, herri ttikiek ere eskubidea baitute erabakitzeke euren eguneroko beharrak eta arazoak nola egoki bideratu. Urrunekoena eta gainetik daudenena baino zuzenagoa izanen baita, ziur, bertakoen erabakia.

«Ekonomiaren osasuna eskatzen omen du guttiago gastatu eta aurreztu beharra. Baina zergatik ez da hori egiten administrazioko goiko mailatik hasita, diru zorro handiagoe-tatik hasita? Banketxeek eta agintariak dirua badute gastatzeko, baina zertan gastatzeko?»

Amesgaiztotik ezin atera

Luis GARDE

Belaten barna goaz kotxean, Iruña aldera. Goitiko bide zaharrean kamioi luzeen artean. Euria ari du noski. Ura eta lohia. Asfaltzoko zorua bustia eta pitzatua ere badago. Karraska fuerte bat entzuten dugu. Bat-batean zorua desagertu da, une batez kotxea airean hegaz dabil, gorpilen azpian ez dago deus. Erortzen ari gara. Beheko errepidearen kontra, itxita dagoena, talka egin behar dugu segundo bakan batzuetan. Ezta oihukatzeke astirik. Adio lagunak. Izerditan ernatu naiz, ohatzean. Uf, eskerrak. Amesgaiztoa zen. Lasai, ez da deus. Seguru nago bizidunen munduan.

Gosaldu ondoren haurra eskolara bidali dut. Handik hoge minutura itzuli da eskola itxi dutela erranez, irakaslerik ez dagoela, geletako mahaia eta aulkiak ateratzen ari direla gobernuak eskolako eraikina enpresario bati saldu diolako. Haserre joan naiz lanera. Gizon trajedun pare bat zeuden atean gure esperon, zer esan eta "etxera itzultzen ahal zarete, txinatar talde batek erosi du enpresa eta bertako sukurtsala ixtea erabaki dute".

Izugarritzko atsekabea. Bankura joan naiz xoxa pixkot atera nahian, eta bai, asmatu duzu, nire dirutxo exkaxa ere desagertu egin dela aipatu dit leihatilako enpleguak, aspaldi begiratu gabe sinatu nuen paper harekin ez dakit-zein finantza produkturik erosi nuela, inbertsioa ez doala ongi joan, ondorioz nire oraingo saldoa zero eurokoa dela.

Lur jota nengoenez Osasun zentrora joan naiz. Bai, irekia zegoen. Atenditu naute, depresioari aurre egiteke pilula kilo bat egunero hartzeke errezetatu didate. Bueno, tira... baina kontsulta bukatzean erizainak faktura bat luzatu dit, kutxazainaren txartela eskatzen zidan bitartean.

Zimiko egin dut besoetan, burua paretaren kontra jo, baina amesgaizto honetatik ezin ernatu. Erreal ote da hau? Hau da gure gizarte aurreratua? Gehiegikeriak? Egun ikusten, aditzen eta jasaten ari garen hainbertze gauza duela lau-bortz urte iragarri izan baligute, zer erantzungo genukeen? Lortuztat eta irabazitzat ematen genuen hainbat aurrerapen edo zalantzan daude edo haizean kea bezala desegin dira. Ametsa bukatu zen eta amesgaiztoan sartu ginen.

«Lortuztat eta irabazitzat ematen genuen hainbat aurrerapen edo zalantzan daude edo haizean kea bezala desegin dira. Ametsa bukatu zen eta amesgaiztoan sartu ginen»

Irakurleak mintzo

Lesaka
euskararen
arnasgune

Eduarne REKONDO
(Lesakako Euskara
Batzordearen izenean)

Lesaka UEMA n sar-
tu berri da. UEMA uda-
lerrri euskaldunen man-
komunitatea da. Uda-
lak Lesakan arlo guztie-
tan euskaraz bizitzeko
baldintzak paratu nahi
ditu, bere barne eta kan-
po harremanak euskal-
duntzetik hasita. Betie-
re, euskaldunon hizkun-
tza eskubideak babes-
tea izanen du helburu.

UEMA, euskara na-
gusi den lurraldea. 71
udalerrri eta 250.000
biztanle gora gara. El-
karrekin indar handia-
goa egiten dugu euska-
raren alde.

Lesaka euskararen
arnasgune. Zer erran
nahi dugu horrekin? Na-
tura bezala, hizkuntza
eta kultura ere babestu
beharrak direla. Lesa-
kan euskarak belaunaldi
diz belaunaldi jarraipe-
na izan du. Euskara na-
tural bizi dugu. Euska-
ra nonahi eta noranahi-
ko dugu hemen.

Gu bagara toki erdal-
dunduentzat eredu.
Euskarak atzeraka egin
du mendeetan, bai lu-
raldean, bai erabilera

esparruetan. Arnasgu-
neak zabaldua euska-
raren eta euskal hitzu-
nen geroa ziurtatuko du-
gu. Eta hori gu guztion
ardura da. Arnasgune-
ak zaindu eta hedatu
ezean, alferrikakoak izan-
nen dira euskararen al-
deko ahaleginak. Hor-
taz, lesakarrok badugu
zer ekarria euskararen
biziberritzean.

Herrietako
eskolak itxi?

Ramon APEZETXEA
(Almandoz)

Herrietako eskolaki-
txi? Ez. Eskolak beti izan
dira garrantzitsuak leku
guztietan, herritan ere
bai. Kalitateak huts egin
omen digu. Frakaso
haundia. Baina non fra-
kaso eta kalitate falta?
Herrietako eskoletan ez.
Urte gutxi direla, Gober-
nuak erran zigun "kon-
zentrazioak" eginez ez
dela lortu espero zena.
Murrizketak eginez, he-
rrietako eskolak itxita,
irakasleak gutxituta, ka-
litatean irabazi? Ez. Erra-
ten ari dira, inbertsiorik
onena formakuntzak eta
irakaskuntzan. Baina ez
al dira kontrakoan ari?
Herriak aberastu egin
dira gauza aunitan, es-



Bota bertsoa

Julen ZELAIETA (Bera) • Doinua: Afari ikaragarri

Reala "Txanpions"-en

Errealaren lorpenak
aipatu nahiko nituzke;
denboraldi ahaztezin hau
edozein taldek nahi luke!
Barsa, Athletic, Atletico,...
garaipen haina ezuste;
kritikak, ta aurkariak,
biak gainditu dituzte. (ber)
Laugarren postua lortu
ta balentriaren truke
Txanpions-een jokatzeko
txartela eskutan dute.
Lortu dena, ospatzeko
modukoa da nik uste;
ai, nork imajinatu hau
orain dela hiru urte? (ber)

Eguberri parte hortan,
zenbat "Montanier dimision!"
orain joan dela eta:
"zaleak aunitz zor zion,...".
Hankak lurrean jartzeak
igual, egingo digu on,
nola kanporaketa bat
gure esperuan dagon; (ber)
presta bitez, Schalke, Zenit,
Milan, Arsenal ta Lyon!
nahiz ta ez diren berdina
"Europa League" ta "Txanpion",
jokatu ahal izate hutsa
ze gozamen, ze zorion!
behin aukera izango ta
beldurrez ezin da egon! (ber)

kolak direla eta. Kultu-
ra, hizkuntza, ohiturak,
erlazioak, nortasuna, bi-
zitzaren sendotu etabar...
Zenbat jende baliotsua,
jakintsua, ez da atera,
herrietako eskoletan ibi-
lia?

Gutxi edo aunitz izan
ikasleak, errespetatu

behar dira herrietako es-
kolak. Noiz aitortu be-
har dira herrietako balo-
reak, herriek suposatzen
dutena eta suposatzen
dutena Nafarroan? Zer-
bitzuak kendu aurrezte-
ko? hori ez baita au-
rreztea. Nork egin ditu
herriak? Nork zaindu?

nork sortu ohiturak, tra-
dizioak, kultura, nork
prestatu aunitan lekua
eskola emateko? Elizak
eta beste patrimonioak
ere bai... Nork egin eta
mantendu? Jendeak,
herrietako eskoletan ibi-
liak. Errespetoa bada
herriari eta eskolari.



IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehienkabitzeko aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**



Prentsatik bildutakoak



«Hasteko, ni ez naiz izar bat. Telebistako lana sobera handitzen da. Gu langileak gara, eta kitto. Gure kasuan, komunikazio, entretenimendu eta informaziokoak, baina telebistari garrantzi sobera ematen zaio. Inork ez du lau zirujaren edo lau ikerzaileraren izenik ezagutzen, baina bai lau telebista aurkezlerena. Eta beraiek salbatzen dituzte bizitzak».

Julian IANTZI

Telebista aurkezle lesakarra
ON 2013.05.25



«Lege berriarekin belhurtuak gaude, hagitz beltza ikusten baitugu egoera, ez dute eskolako komunitatearekin kontsultatu, eta hori gibelera egitea dela uste dugu. Ni irakasle hasi nintzen garaietara bideratua dago hezkuntza eredu hori».

«Teknologia berriak ere sartu dira, bertze hizkuntzak ikasten ari dira... Gauza aunitz aldatu da 37 urtetan».

Juanita LARRALDE

Arantzako irakaslea
D.NOTICIAS 2013.06.06

11 galdera labur

Nola aurkeztuko zenuke nor den Iban Dufurrena?

Mutil euskaldun eta saltsero xamarra.

Zein afizio dituzu?

Musika, dantza, bertsolaritza, motorra...

Tailerrean edo alkate lanetan. Zeinetan moldatzen zara hobekien?

Ez dakit ba!! Bietan ere eskerrak bakarrik ez nagoen!

Alkate izateak buruhausterik eman dizu?

Buruhaustek aunitz, baina talde on bat ondoan izanda... Merezi du probatzea.

Gustukoen duzun bertsolaria?

Dudarik gabe Xabier Silveira. Autentikoetan autentikoena.

Zeini botako zenizkioke gustura bi bertso?

Neska xarmangarri bati.

Erratzuko bestetatik gehien gustatzen zaizuna?

Bezperako ezkil jotzea, Izpegiko bizikleta igoera, zikiro jatea... Ez nuke jakinen bakarra aukeratzeko.

Erratzuko txokorik politena?

Xorroxingo lamien gordelekua, baina kokapena sekretua da. Jeje!

Besta egiteko toki bat?

Herria.

Astebururako gustuko plana?

Bazkari eder bat, musika, bertso batzuk eta goxo-goxolo egitea.

Amets bat?

Berdintasunezko Euskal Herri libre bat ezagutzea.



Iban DUFURRENA → Erratzuko alkatea

elika
Dietetika... elikadura

Julian Andueza Larra
Itzea, 6 behea - BERA - T. 948 631 283 - elikabera@hotmail.com

- Aholkularitza dietetiko nutrizionala pertsonalizatua
- Gorputz konposizioaren analisiak: ura, muskuluak, gantzak...
- Dietoterapia: hipertentsioa, hiperkolesterolemia, diabetesa, arazo digestiboak...
- Kolesterolia eta glukosa azterketak

Karsuk®

Muebles de cocina
Meubles de cuisine
Sukaldeko altzariak

K

Karlos Pombal Sainz

C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F +34 948 625 430
M +34 699 884 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

José I. Gonzalez Enguita
pinturak

barrikadak eta fatxadak
tel. 666 235 466

Alberto RETEGI
abokatua

948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

okaNe

HARATEGIA / URDAITEGIA
jokatu leku & karte
Tfno/Fax: 948 630 018
Kantillonberri 12 - BERA

GIZARTEA

ERREPIDEAK → ESKUALDEKO UDALEK

Belateko lanek dirauten artean segurtasun neurriak bermatzea eskatu dute

Sustapen kontseilariarekin bildu dira udal ordezkariak

TTIPI-TTAPA

Belateko tuneletik gertu izandako lur-jauzi batzuen ondorioz, N-121-A errepidearen itxiera dela eta gertaera horien bertsio ofizialik jaso ezean, Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortzirietako zenbait udal elkartu eta Nafarroako Gobernuak Sustapen Departamentuko kontseilariarekin bilera bat hitzartzea erabaki zen informazio hori eskatu ahal izateko, aldi berean errepidearen irekiera ahalik eta azkarren burutzeko aldarrikatuz. Bilera maiatzaren 14rako deitua zegoen baina departamentutik maiatzaren 27ra atzeratu zuten.

Halako gertakariaren larritasun eta garrantzia kontutan hartuta, Sustapen Departamentutik eskualdeko udalekin egon den komunikazio falta ulergaitza iruditzen zaiela salatu dute udal ordezkariak maiatzaren 31n Malerreka komunitatean egindako agerraldian. Garbiñe Elizegi Baztango alkateak eta Marisol Taberna Berako alkateak hartu dute hitza, baina beraiekin batera Amets Inda Sunbillako alkatea, Joxe Mari Etxart Bertizaranako alkatea, Jose Luis Legarra Doneztebeko zinegotzia, Ernesto Dominguez Zubietako zinegotzia eta Jago-ba Manterola Iturengo zinegotzia izan dira agerraldian.

Udal ordezkariak salatu dutenez, «Belateko tunelak ireki zirenetik, etengabeko arazoak izan dira errepide ho-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Sustapen kontseilariak azalpenak berandu eman dituela uste dute udal agintariak.

rretan, bide-segurtasuna bermatu gabe eta eskualdeko herritarrei hiriburura joateko duten bide bakarra oztapatuz». Hori dela eta hainbat eskaera egin zizkion Luis Zarraluqui kontseilariari. Halako egoeretan zuzenean toki erakundeak informatu ditzen eta arazo hau konpontzeko administrazioak egindako lanak bertan ezagutzera eman ditzen eskatu zioten, baita «Nafarroako eta nazioarteko administrazioen baliabide nahikoak erabili daitezzen, denboran gehiegi luzatzen ari den arazo honi behin betikoz konponbidea emateko».

2.000 KAMIOI EGUNERO

Modu berean, errepide honen itxierak eskualdean dakartzen eragin ekonomiko eta so-

zialak kontutan hartuz, segurtasuna bermatzen duen premiazko konponbide egonkor bat bilatzea nahi dute. Belateko mendatetik igarotzen den NA-1210 errepidearen gaur egungo egoera kaxkarra salatu zuten udal ordezkariak eta etorkizunean ere antzian eta arazo hau konpontzeko administrazioak mantenu-lanak egin ditzatela eskatu zuten. Izan ere, 2013ko maiatzaren 2an argitaratutako datuen arabera, errepide hori egunero 2.000 kamioi inguruk erabiltzen dute, gainontzeko ibilgailuak kontutan hartuz gero, 8.000 inguruk.

Horregatik, konponketa lanak irauten duten bitartean, eskualdea zeharkatu nahi duten kamioiei bertatik igarotzeko baimena ukatzea

edota baldintzatzea ere eskatu zuten, horretarako beharrezkoak diren neurriak hartuz, baina eskaera horri ezezkoa eman zion kontseilariak. Azken finean, Gobernuaren aldetik egoera zein den, konponbidea nola egingen den eta zenbatso denbora behar duen arazoak konpontzeko, bertzerik ez zuten jakinarazi. Eguraldi baldintzatuko omen du lanen akabaila, baina hiru hilabete baino lehenago ez da egingen.

Informazio hori, berandu heldu dela jakinarazi zioten udal ordezkariak, eta hauen kezka bertze bat dela, «konponketa lanak irauten duten bitartean, zer neurri hartu diren errepide erabili behar duten bidaiarientzat, segurtasuna bermatu beharra baitago».

bp

GASOLINDEGIA
DENDA | OGIA | PRENTSA

Ordutegia: 06:00-22:00 egunero
URTE OSOAN IREKIA

Zalain Industrialdea | BERA
948 630 249

ETORRI eta ezagutu gure ESKAINTZA BEREZIAK

DONEZTEBEko

BESTAK 2013

ttipi-ttapa | 592 zbk
2013.06.13

11



Ekainak 28 ortziralako

20:00 Suziria botatzea Herriko Etxetik.

Ondotik Karrika dantza Corco txarangak eta txistulariek alaitua.

Ondotik Ohitura den bezala, Doneztebeko ostatueta eta elkartetan zopak.

00:30-03:30 Dantzaldia GAUBELA taldearekin.



Arozena
ostatu • jatetxea

Gosariak
bazkariak
eta afariak

ongi pasa
bestaki

T. 948 450 443
Leitzako errep., 84 • Doneztebe

BELARRA JATETXEA

Amara • DONEZTEBE • 948 450 306 • www.belarra-jatetxea.com

goldea
talleres s.l.l.

tel./fax: 948 450 443
e-mail: goldea@telefonica.net

Pol. Industrial Auzo, 1
30000 Doneztebe (Nafarroa)

Sampi Aragón, S.A.
MARKA GUZIEN KONPONKETA

Mekanika | Elektrizitatea | Txopa | Pintura

948 450 354 | DONEZTEBE
sampilaragon@telefonica.net

CTV ALBAITARITZA
ZENTRU
TEKNIKOA

ONGI PASA BESTAKI

Rosa Seminario, 15 • DONEZTEBE
T. 948 450 591 • M. 659 884 374

Clinica Dental

IRURITA RUBIO

ORTODONTZIA ETA INPLANTOLOGIA

BERRIKUNTZA



ORTODONTZIA
ERAUZGARRIAK

Helduentzako egokizko

Egunerik 18 orduz inbisiak erabiltzen

Emaitza azkarrak

Higienikoa

Kenduz eta erabaz gaititu

ORDUA ESKATU ETA INFORMATU

Rx. Panoramikoa
Periodontzia
Odontopediatria
Kirurgia
Endodontzia
PADI
(Hauren hortzak zaintzeko programa)
Profesiak
Hortz-zuritzea

DONEZTEBE
Rosa Seminario, 19 esk.
948 450 267
LEITZA
Manuel Lasarte, 7esk.
948 610 713

GONZALO FERNANDEZ LAMANA y A.T., S. CV.
Ingeniari tekniko Industrialak

- * Bulego teknikoak: proiektuak, obra zuzendaritzak, etab...
- * Instalazio elektrikoak
- * Etxeko eta industriako elektrizitatea
- * Enpresen mantentzeak, etab...

Eliztegi, 5 - DONEZTEBE - Tel/Fax: 948 450790

ANTONIO ARTAZCOZ GOÑI
Loteria primitiva | Kinetak
Pelukeroa
T. 948 450 081
Merkatarien karrika, 8 • DONEZTEBE

GURE
Ondaregia • Geroztogia • Hobeztogia
ongi pasa bestak!

Parrokia, 19 • DONEZTEBE • T. 948 45 08 19

EDERKI tailerra
Peugeot eta Citroën
Zerbitzu Ofiziala

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA
ongi pasa bestak!

Leitzako bidea - DONEZTEBE - 948 450 525

BERATARRA ERAIKUNTZAK

Leitzako b. 66 - 8. blokea 2C
DONEZTEBE

Jose Ignacio Maritorena Larralde
670 489 337

ONGI PASA BESTAK



DONEZTEBEKO
BESTAK 2013




Ekainak 29 larunbata

- 09:00 Diana Corco txarangak girotua.
- 11:00 Done Petiren omenezko Meza Nagusia.
- Ondotik Bandera dantza, Trapatan eta bertze dantza herrikoiak.
- 11:00 Erraldoiak eta Buruhaundiak txistularien bandak lagunduta.
- 13:30 Aperitiboa Herriko Etxeko behealdean.
- 19:00 Erreka KE dantza taldearen eskutik Euskal dantzak Bear-Zana pilotalekuan.
- 20:00 Dantzaldia Jalisko Band taldearekin.
- 22:15 Zezen suzkoa Bear Zana pilotalekuan
- 00:30-03:30 Dantzaldia Jalisko Band taldearekin.



Ekainak 30 Igandea

- 09:00 Diana Corco txarangak girotua.
- 11:00 Herriko Etxean ongi etorria Txikien Udalari.
- Ondotik** ALKATE txikiak eta ZINEGOTZIEK suziria botako dute. Erraldoiak eta buruhandiak Txistularien Bandak lagunduta.
- 11:30 Meza, Txikien Udalbatza buru dela eta erraldoiek, buruhandiek eta txistulariek lagunduta. Euskaldantzak, dantzari txikien eta txistularien eskutik. Buruhandiak herriko karriketan barna ibiliko dira.
- 14:30 Txikien Udala aukeratzeko parte hartu duten haur guztientzako bazkaria.
- 16:00-20:00 Haurrentzako Kart-ak eta puzgarriak Bear-Zana pilotalekuan eta tren turistikoa
- 17:00 Doneztebeko Mus Txapelketa
- 18:00 Erreka KE-ko esku-pilota eta erremonte eskolaren eskutik, pilota frontoi estalian.
- 20:00 Herriko Etxean, Txikien Udalbatzak bere agintaritzak utziko du. Egun honen oroigarri gisa, Txikien Udalbatzako kideei diploma bana emanen zaie.
- 20:00-22:00 Dantzaldia Laiotz taldearekin.
- 22:30 Su artifizialak.
- 01:00-04:00 Dantzaldia Laiotz taldearekin.



Uztailak 1 Astelehena

- 09:00 Diana Corco txarangak girotua.
- 11:00 Buruhandiak herrian barna ibiliko dira.
- 11:00 Plater-tiroketa, Ehiza Elkartek antolatuta.
- 14:00 Herri-bazkaria Intzakardin.
- 17:00 Haurrentzako jokoak Intzakardin.
(Erreka eta Menda Guraso Elkartek antolatuta)
- 20:00 Dantzaldia AIERRIK musika-taldearekin.
- Atsedena** DONEZTEBARRAK Merkatarien Elkartaren eskutik, bestetako antolatutako *Non dago San Pedro?* lehiaketan asmatu dutenen artean, zozketa eta saria banatuko da.
- 00:00-03:00 Dantzaldia AIERRIK musika-taldearekin.

Gizon, emakume eta haurren oinetakoen konponketa eta zapata-denda

Marab

Merkatu karrika, 7
DONEZTEBE
T. 948 451 350

MAYLIN OSTATUA

Ongi pasatu bestak!!

Bokadilloak • pintxoak • plater konbinatuak
Parrokia, 15 DONEZTEBE • T. 948 45 03 66

zrb.net
informatika

Santa Luzia Plaza, 2
31740 DONEZTEBE
T. 948 451 752
M. 609 418 097
info@zarbo.net
www.zarbo.net

IRRINTZE

Aurtengo bestak umore ederrean pasatu

Merkatarien karrika 28
T. 948 451 826
DONEZTEBE

Kimetz Belardenda

- Dietetika eta nutrizioa
- Dieta pertsonalizatuak. Grasa eta likidoen kontrola
- Masajeak: terapeutikoa / reflexoterapia / kiromasajea...
- Naturopatia / iridiologia / bach loreak / quantum / terapia emozionala...
- Bioenergetika
- Apiterapia
- Hirutasun esentziak

BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUET!

www.kimetzbelardenda.com

Tel. 948 451 473
Leitzako errep. 3 behe | 31740 | Doneztebe
kimetzbelardenda@hotmail.com

Juantxo San Miguel
Iturgintza • Kalefakzioa
gasa
T. 948 450 866 • 626 112 415
Elizagibela, 2 • 31748 DONEZTEBE



Inguruko ekitaldiak, informazioa eta bitxikeriak jakin nahi badituzu
Egin zaitez
ttipi-ttapa ren harpidedun

- Hego Euzkai Herria 40 €
- Europa 59,50 €
- Baztan, Urdazubi eta Mañeika 34 €
- Amerika eta Australia 124 €
- Ipar Euzkai Herria 59,50 €
- Leiza 17 €



(0034) 948 63 54 58
www.ttipi.net

EZ DIGU EDOZEINEK SALTZEN
2013. urteko irabazleak

299€ **199€** **299€**

BANATZAILEA
José Luis San Miguel
DONEZTEBE • Tel./Fax.: 948 450 711



DONEZTEBEKO
BESTAK 2013



Itziar IRIGOIEN PERURENA | Doneztebeko txistularia

«Karrikan jotzeari dagokionean, txistuak eta musikak orokorrean une apala bizi du Donezteben»

Lanbidez irakaslea da Itziar Irigoien doneztebarra, lau seme-aren ama, eta hortik aparte, txistularia, euskal filologoa, musikazalea eta Doneztebeko Mendi abesbatzako kidea. Aitortu digunez, baditu hainbortze zaletasun: **«bidaiatzea, irakurtzea, saskibaloia, musika jotzea, abestea, lagunekin solastea... Lehenago bakarrik, bikotearekin edo lagunekin egiten nituen gehienetan eta gaur egun familiarekin egiten dut: paseotxo bizikletan, ipuin polita kontatzea semeei edo haiek niri»**. Laburbilduz, **«momentu txikien zale»** dela onartu digu.

Doneztebeko txistularirik zaharrena izatearen ohorea berak du. 10 urte zituela hasi zen txistua ikasten herriko eskolan: **«Basilio Saroberekin hasi nintzen eta Miguel Macusok karrikan jotzen erakutsi zidan. 17 urterekin Iruñeko Pablo Sarasate kontserbatorioan Raul Madinabeitiarekin txistu ikasketak egin nituen»**, azaldu digu. Hasi zirenetik, Donezteben 70 bat txistulari zenbaitu dituzte, baina kontatu digunez, **«urtero jotzen dugunak dozena erdia izanen gara»**. Izan ere, Irigoienek irudiko, **«Donezteben musika eta dantzarako afizioa beti egon izan da. Hala ere, azken urtetan txistuak eta musikak orokorrean une apala bizi du, batez ere, karrikan jotzeari dagokionean. Ikasi, ikasten dute baina karrikan jotzen dugunak ez gara hainbortze izaten»**.

Lauzaborts hitzordu izaten dituzte Doneztebeko txistulariek urte osoan. Alde batetik, San Pedro besten aitzineko ekaineko larunbatetan karrikarat ateratzen dira: **«aspaldiko ohitura berreskuratu genuen eta gaur egun San Pedro aitzineko ekaineko larunbat ilunabarretan kalejirak jotzen ditugu bestak heldu direla gogoratzeko»**. Horrez gain, Besta Berri eta Jesusen Bihotzaren egunean Udaltaldeak Doneztebeko bandera udaletxetik elizara eramaten duen bitartean txistu doinuekin laguntzen diote: **«prozesioan Banderaren dantza eta Trapatana jotzen ditugu»**. Sanpedroetan, berriz, maiz jotzea tokatzen zaie: **«txupinazoan, goizetan dianak eta eguerdi aldera buruhandi eta erraldoiekin herriko itzulia egiten dugu. San Pedro egunean eta haurren egunean dantzariak ikas-**



PINTURA AUKERA ZABALA
BERTAN DAUKAGUN MAKINAREKIN NAHI DUZUN KOLOREA LORTUKO DUGU

BigMat
MENDITXURI
BANATZAILE OFIZIALA

T. 948 450 305 • Leizako errep. • DONEZTEBE



Bar El CAFE

Pintxoetan espezializatuta
Plater konbinatuak
Hamburgesak
Bokadilloak

ONGI PASA BESTAKI

T. 948 450 318
Parroquia, 3 • DONEZTEBE



turtean prestatu dituzten dantzak ere jotzen ditugu». Ez da hor akitzen txistularien lana. San Migel egunean herrian barna kalejirak joaz baselizaraino hurbiltzen baitira, eta Eguberrietan Olentzero eta Errege Magoen kabalgatan ere badute euren tokia.

San Pedro egunean Trapatan herriko dantza Irigoienek berak bakarrik jotzen du txistuarekin, Oskar Mindegia atabalarekin lagun duela. **«Dantza berreskuratu genuenetik jo izan dut Trapatana. Badira hogeiren bat urte»**, erran digu. Oraindik ere urduri jartzen dela dio: **«beti jotzen hasi baino lehen urduritasun puntua izaten dut. Jotzen hasten naizenean musika eta dantzan kontzentratu eta dena fite pasatzen da».**

Bestetan ohikoak dituzten hitzorduez gain, aurten bertze bat izanen dute txistulariek, eta hura berezia. Bestei hasiera emanen dien txupinazoa txistulariek botako baitute: **«arras kontent paratu nintzen berria eman zigutenean sorpresa izan zelakoz. Nolabaiteko onarpena adierazten du Udalaren partetik».** Txistulariek botako duten txupinazoaren ondotik lau eguneko bestan murgilduko da Doneztebe, eta han ibiliko da Itziar Irigoien ere. Lehenago besten bezpera **«arras gustukoa»** omen zuen. Orain, berri, **«gau- ren bat edo bertze kenduta bestak egunez bizi ditudanez, azken urtetan Erreka Dantza taldearekin prestatzen dugun dantza saioan musikari gehiagorekin parte hartzea aunitz gustatzen zait. Giro polita dugu entsaioetan eta taldean».** Bestak **«diren bezala ongi daudela»** uste du Irigoienek, baina zerbait erratekotan, **«bertso saiotxoren bat»** jarriko omen luke eta **«egunero haurrendako hitzorduren bat ere bai».**

Txupinazoa bota behar dugula jakin genuenean «arras kontent paratu nintzen. Nolabaiteko onarpena adierazten du udalaren partetik»

Azken mezu bat ere bidali du doneztebarrak: **«txistua eta danbolina eskuan, ibili kontent munduan! Ongi pastu!».**



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Itziar Irigoien txistuarekin Trapatan doinua jotzen, San Pedro egunean. Kanta honetan berak bakarrik jotzen du txistua, eta Oskar Mindegia atabala.

Izoztu en Txokoa
Bakea, zabaldu zurean izoztu en
Txokoa
Bakea, zabaldu zurean izoztu en
Txokoa
Bakea, zabaldu zurean izoztu en
Txokoa
Elizagibea, 7 • DONEZTEBE • 948 451 999

616 513 497
ESKABAZIOAK
ESKABAZIO eta GARRAIO LANAK
T/F. 948 451 389
Ezpelura, 1 • DONEZTEBE
pittieskabazioak@terra.es
www.pittieskabazioak.com

MARIA MILAGROS ELGEZUA
ABOKATUA
LANTEGIAR
PARTIDULARIA
Jesús Urquiza 30 - 1
48100 ELIZAGIBEA
Tel eta Fax: 948 452 579
Mugibidea 482 426 629
mariaelgezuamaila.com

MARTIN-IBARRA
Forja artistikoa • Aroztegia
forjamartin@baslanbidatasa.com
M. 669 068 622
T. 948 393 280 • F. 948 393 279
Oteiza auzoa, 4 • 31740 DONEZTEBE

BENI
arrainak
OUGI PASA BESTAKI
Barrutikoa, 1
48100 ELIZAGIBEA
T. 948 451 999

Mendaur Motor
Leitzako bidea • DONEZTEBE | Tfnoa: 948 450 333
Autoen konponketa eta salmenta | Txapa eta pintura
Mendaur Motor
Leitzako bidea • DONEZTEBE | Tfnoa: 948 450 333

ordua eskatu

MAITE

ileapaindegia

Solarium-a

GIZON ETA EMAKUMEENDAKO

Mourges Elorbidea, 4
☎ 948 451 780 - DONEZTEBE



ZERGALAN

aholkularitza

Zuen negozioen paper guztietaz arduratuko gara: kontabilitatea, zergak, langileak, eraikuntzaren formakuntza, ...

www.zergalan.es

ongi pasa bestak!

Eliza kalea, 22 - 31740 DONEZTEBE (NA)
Tel. 948 450 395 - Faxa. 948 451 304

Mendiburu

aziendak • tratantea

Ongi pasa
herriko bestak!



606 676 221
948 450 084
DONEZTEBE

Ongi pasa bestak!!




Mailposta Buzoneos

inprimategia • publizitate banaketak
www.mailpostabuzoneos.com

Inprimitu edo banatu behar duzun
guztia preziorik onenean!

Tel. 686 74 77 13
amaia@mailpostabuzoneos.com

Altzagorea Etxea • 31793 Narbarte




DONEZTEBEKO

BESTAK 2013

Gloria AGERRI | Doneztebeko zinegotzia

«Besta guztietan ezinbertzekoak izatera pasatu dira txistulariak eta beraiek botako dute txupinazoa»

Azken bi agintaldietan Doneztebeko udaleko zinegotzia da Gloria Agerrri. Nafarroako Enplegu Bulegoak Donezteben duen egoitzan lan egiten du, eta krisi garai honetan denetarik ikustea tokatzen ari zaio. Kontatu digunez, lehen ere garai zailak ezagutu izan ditu, 1976an, adibidez: «**Lesakako Lamina-zioekin urte gogorrak izan ziren**». Eta orain ere, jendea «**ilusiorik gabe**» ikusten du: «**lanik gabe daudenak ilusiorik gabe daude, triste, diru-sarrerak eta aurrezkiak, baldin badituzte, akitzean zer gertatu ote den arduratuak**». Bere irudiko, «**momentu zailak bizitzen ari gara, eta ez daukagu arazoak konpontzeko makiltxo majikorik**».



Krisia alde batera utzita, oporretan dagoe-nean, «**paseatzea eta itsasoa**» gustatzen zaizkiola aitortu digu Doneztebeko zinegotziak, «**mendia baino gehiago gustatzen zait hondartza**». Hala ere, Herriko Etxeko eginkizunek, Enplegu Bulegoko lanak eta etxeko lanek ez omen diote denbora libre aunitzirik uzten.

San Pedro besten harira, «**bertze urteetako maila galdu gabe, gastua kontrolatzen**» saiatu direla azaldu digu Agerririk. Lau eguneko bestak izanen dira eta horretarako 30.000 euro inguruko aurrekontua izan dute: «**krisia bazter guztietan dago eta dudarik gabe, bestetan ere bai**», dio. Egitarauari dagokionean, San Pedro Egunean Errekako dantzariak dantza jaialdia antolatu dutela erran digu, eta berrikuntza gisa, goizean hasita, Elizondo eta Doneztebeko buruhaundiak herrian ibiliko dira, haur eta helduen gozamenerako. Otsail eta martxo artean hasi ziren bestetako programa prestatzen: «**lehenagotik inauteriak direla eta, bertze bilera bat izaten da eta herriko eragileekin orduan jartzen gara harremanetan: Erreka Kirol Elkartea, Futbol Taldea, Gazte Burrunba, Guraso Elkartea, ehiztariak, Abesbatza, dantzariak, Merkatarien Elkartea eta Txistulariekin. Hain zuzen, azken hauek izanen dira aurten beste hasiera emanen dion txupinazoa botako dutenak: txistulariak**». Agerriren arabera, txupinazoa nork




Doneztebeko Udalak besta zoriontsuak
opa dizkizue herritar eta bisitari guztiei



bota erabakitzerakoan, «urtero elkarteren baten ibilbidea saritzen saiatzen gara, eta batzuetan bat aukeratzea ez da erraza, kirol eta kultur arloan aukeratzeko aunitz baitugu». Baina aurtengoa egina da, txistulariak izanen dute ohore hori. «1981ean txistulariek egindako lana saritu nahi dugu, besten aitzineko ekaineko lau larunbatean txistua jotzeko ohitura berreskuratu zuten, udalbatzari herriko ekitaldi guztietan laguntzen diote, urte hauetan 70 txistulari inguru pasatu dira eta beraien afizio eta profesionaltasunarekin besta guztietan ezinbertzekoak izatera pasatu dira»,

«Bestetan denetarik eta denendako izatea nahi dugu, eta horrekin asmatu nahi dugu, jendeak bestetan goza dezan»

azpimarratu du Gloriak. Esker oneko hitzak izan ditu: «eskerrak eman nahi dizkiet Irigoien anai-arrebei, Sanzi, Asun Ezkurrari eta isilean hainbertze urtez lan egin duten guztiei».

Egunez egun, San Pedro eguna du zinegotziak gus-tokoen, «hagitz polita» iruditzen baitzaio: «Mezarekin hasi, gero Trapatan eta dantzarien saioa, eta on-dotik, herritar eta kanpotik hurbiltzen direnei Udalak eskaintzen dien luntxa. Arratsaldean dantza saioa izaten da, su-artifizialak edo suzko zezena...». Ttikien

Udalaren eguna ere gustuko du Agerrik: «ttikienak ilusioz ikusten dira». Maiatzaren 17an izendatu zituzten Ttikien Udaleko ordezkariak. 25 neska-mutikok parte hartu zuten eta horietatik bederatzik osatuko dute Udala, eta epailearekin eta banderadunarekin, guztira hamaika dira. Azaldu digunez, «zozketan parte hartzen duten guztiak Santamarian bazkaltzen dute eta hori da gehien gustatzen zaiena. Oroigarri gisa, diploma bat ere ematen zaie». Bestetatik zerbait aldatu edo gehituko lukeen galdetuta, «nahikoa dela» pentsatzen du zinegotziak: «denetarik dago. Bestetan denetarik eta denendako izatea nahi dugu, eta horrekin asmatu nahi dugu, jendeak bestetan goza dezan». Eta bide beretik, «nire izenean eta ordezkatzan dudan Udalaren izenean, bestak ongi pasatzeko» gonbidapena egin du: «maite dutenen konpainian, goza dezatela Udalak beraidako prestatu duenarekin».



ARGAZKIAK: CEDERNA GARALUR



Juanotena
zurgindegia
Ateak • Eskailerak • Leihoak • Teiatuak
Zolak • Kontraleihoak • Armairu enpatatuak
www.juanotena.com
Leitza Errep. 35 • DÓNEZTEBE • T 948 45 02 11

esarte
Santiago 83 B bajo
31700 Elizondo
T 948 581 907
www.precocinadosesarte.com

Mutuberria Alimentación S.L.
Aliprox
T. 948 456 152
Zazpigurutze, 8
31740 DÓNEZTEBE
mutuberria_alimentacion@hotmail.com



Eusebio ARREGI | Doneztebeko guante-egile eta zapataria ohia

«Urteekin bestak zerbait aldatu dira, baina guk ere besta ederrak egiten genituen»

Duela 84 urte, Doneztebeko Oteiza auzoko Petrisanzenean sortu zen Eusebio Arregi. Doneztebeko zapataria bezala ezaguna izan da, urteak eman baitzituen Karrika Nagusiko bere zapata-dendan lanean, 39 urte zehazki. Aski gazterik hasi zen zapataria lanetan, 17 urte baino ez zituela. Kontatu digunez, Ignacio Bertizekin ikasi zuen zapatariaren lana, Doneztebeko Baztan zubian zegoen tailerrean, eta ikasitakoa lehenbiziko Almanadozen, gero Zubietan eta ondotik NARBARTEN paratu zuen praktikan. 1954an, ordea, Donezteben bere denda ireki zuen eta ia 40 urtez, hantxe pasatu zituen eguneko momenturik gehienak, 1993an erretiratu zen arte.

Bere zapata-dendan, oinetakoez gain, ez ziren sekula falta izan guanteak, zapatagile bezala ezaguna izateaz gain, guanteak egitekin ere ezaguna baita Arregi. 17 urte zituenean, Ignacio Bertizek erakutsi zion guanteak egiten, eta urte aunitzez hainbat belaunalditako pilotariei egin zizkien. Gustuko lana izan du Arregik guanteak egitea, **«aunitz gustatu»** izan zaiola aitortu baitugu. Eta gustuko tokian, aldaparik ez. Gaineratu digunez, **«ez da lan gogorra. Pazientzia eta gustu ona behar dira»**. Pilotari sailaren eskuetatik pasatuko ziren bere erremintak urte hauetan, baina gaur egun lan hori utzia duela azaldu digu: **«orain ez dut egiten. Bi gaztek nirekin ikasi zuten guanteak nola egiten diren eta geroztik utzia dut»**. Donibane Lohizuneko Ander Ugarteri eta Jose Luis



Eusebio Arregi.

ARGAZKIA: FOTO ZALDUA





Arozena herritarrari erakutsi zien guanteak nola egin. Eta dena eskuz. **«Guanteak egiteko modua ez da aldatu, dena eskuz egiten segitzen da. Artisanu lana da»**, aipatu digu. Guanteak egin bai, baina jokatu ez. Ez omen da **«sekula»** pilota modalitate honetan aritu. Afizioa duten gazteak, ordea, ikusten ditu, baina bere ustez, **«gero eta guttiago»**. Doneztebeko pilotak eramaten dizkiotelako, **«niretako entretenimendua da»**, dio. Horrez gain, Oizko herria ere gogoan izan du. Izan ere, maiatzaren 26an Oizen egindako Laxoaren Egunean omenaldi beroa jaso zuen, eta horregatik **«hagitz kontent»** dagoela erran digu. **«Egun pozgarria izan zen eta eskerrik asko»**.

Zapatari lanetik erretiratu zenetik, bere egunerokoak nolakoak diren ere azaldu digu Eusebio: **«goizean egunkaria irakurri eta paseatzeara joaten naiz eta arratsaldetan El Cafe ostatuan musean aritzen naiz»**. Hortik aparte, pilota eta futbol partidak telebistan ikustea ere gustatzen omen zaio.

Laster ailegatuko dira Doneztebeko San Pedro bestak eta zapatari ohiak nola bizi dituen jakin nahi izan dugu. Gaztea zeneko garaiaz oroitu da: **«gaztea nintzenean bestetan gozatu nuen, eta orain deus ere ez. Bestak gazteendako dira»**. Bere irudiko, urteekin bestak **«zerbait»** aldatu dira, baina azpimarratu nahi izan du **«guk ere besta ederrak egiten genituela»**. Hala ere, orain, 84 urterekin, egunen bat aukeratzekotan San Pedro Eguna omen du gustukoena: **«meza, banderaren dantza eta herriko hamaiketakoa»**. Beraz, bestetako egun haundian behintzat, badakigu non aurkituko dugun Eusebio Arregi, Doneztebeko zapatari eta guante-egile ohi.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Eusebio Arregik omenaldia jaso zuen maiatzaren 26an Oizen egindako Laxoaren Egunean. Argazkian bere familiakoekin ageri da.

Pepa's
Asteburutik MALKORRAKO produktak. Oinarriak hartzen dira.
Kafetegia, Gozategia, Txokolate, Jantziak, Etxeko artikuluak.
948 450 453
Houses: 16 DONEZTEBE
pepa@pepaonline.com

ONGI PASA BESTAK!

Belen
Larazenda & Floristeria
Intzakardi, 8 · DONEZTEBE · T. 948 451 758

MIKEL MUTUBERRIA
zurgindegia
Zurgin lanak orokortzen
ONGI PASA BESTAK!
Aparan Industrialdea - 31740 DONEZTEBE
Tel. 669 939 057
mutuberriazurgindegia@hotmail.es

ARRATE ESTETIKA ZENTROA
DENONTZAKO ESTETIKA PROFESIONALA
• System dermatologic Maria Galland 60€/48€
• Manikura iraunkorra 30€
• Pedikura iraunkorra 35€
• Mantxak kentzeko 60€
Aukera zabala!
ESKATU PREZIOEN ZERRENDA
bete elegantik gora!
Parrokia, 16 | DONEZTEBE (Natarroa) | 948 450 286

Julia
Gozategia . Kafetegia
Ogia, tartak, pastelak, bonboiak, izozkiak...
ENKARGUAK HARTZEN DIRA
TERRAZA Wi-Fi gunea
Kale Nagusia, 10 DONEZTEBE Tel. 948 451 471

ESKANTZA BERRIA
BETILEENTZAT
MAKILLAJE IRAUNKORRA
3 ASTE RIMEL GABE
Hilean makillaje iraunkorra pedikura tratamenduak mekak ile mozketa argizariarekin laserra kosmetikoak opari txikiak orrazkerak ile mozketa tinteak
Dekainen diseinua manikura iraunkorra aurpegiko tratamenduak untsek mekak ile mozketa opari baleak keratinizko tratamenduak tinteak orrazkerak
ONGI PASA BESTAK!
ORRAZKERA ETA MANIKURA EDO MAKILLAJE ZERBITZU BATEKIN %15eko DESKONTUA

MAGESTA
ileapaindegia
Tel. 948 450 136
Amatza, 9 - DONEZTEBE

**BAZTANDARRA
KOOPERATIBA**
Baserritarren zerbitzurat
Tel: 948 453310 - 948 453375 • Faxa: 948 456201
Ordoki Auzoa - ARIZKUN

ONGI PASA BESTAK!
Dutarimuno
Eko-logikoki onak diren produktuak
Dutaria baseria - ARIZKUN - 616 756 359

JALURENA
Lapurreta - Zurgintza
Telefonak:
948 453 451
819 514 048
Ordoki Ind. - ARIZKUN

**ongi pasa
bestak!**
TASKA
DOLAETXA
T. 948 453 002 | ARIZKUN

Gasnategi berria
Gorramendi
Bistatze gasna
SAT Gorramendi - Ordoki Auzoa
Auzun - Tel. 948 453 308
sarmendi@gorramendi.es
www.gorramendi.es
Dastatze,
sentitu,
gozatuz!
Bilatu gidatzaileak
683 304 736
www.gorramendi.es

ongi pasa bestak!!!
restaurante jatetxea
BIXTA-EDER
OSTIRALA, LARUNBATA, IGANDEA
ETA BESTA EGUNETAN IREKIA
948 453 358 - 690 335 327
Azpikueta errep. - ARIZKUN
bixtaeder@hotmail.com
www.bixtaeder.es



EGITARAUA

Ekainak 21 ortzileria **BESTEN HASMENTA**

12:00 Dianak, TXUPINAZOA eta gazteen luntxe. 13:00 TXOPO GORATZIA. 14:00 GAZTEEN BAZKARIE. 17:00 JINKANA. 21:30 BAZTAN ZOPAK Joxeanjelek alaituta. 23:30 KONTZERTUEK: Skandalo Publiko eta talde sorpresa. 02:00 DANTZALDIE Aierrik taldearekin. 05:00 Ziztor jatia.

Ekainak 22 laurbeta **HAURREN EGUNE**

10:00 Dianak. 10:30 Haurrendako PUZGARRIEK eta TREN txu-txu. 14:00 HAURRENDAKO BAZKARIE eta KUADRILLEN BAZKARIE. 18:00 TXOKOLATADA. 18:30 Triki-bertso-poteoa ostatz-ostatu. 20:00 DANTZALDIE Laiotz taldearekin. 22:00 MUTILDANTZAK eta GAITA. 00:00 DANTZALDIA Laiotz taldearekin. 05:00 Zinger jatia.

Ekainak 23 igendia **SAN JUAN BEZPERA**

10:00 Dianak. 10:00 TXIRRINDULARITZA LASTERKETA, Baztangoizako infernua. 16:30 ZALDI IKUSKIZUNA (Lamierritan). Haurrendako zaldi bueltak. 18:30 BERTSO PILOTA saioa. ILUNABARREAN SAN JUAN SUEK eta EZKIL JOTZIA. Afalorduen bokadilloak. ONDOTIK DANTZALDIA Salaberri akordeoilariarekin. GERO Guateke de los 60 soziedadian. 05:00 Gasna jatia.

Ekainak 24 astelehena **SAN JUAN EGUNE**

10:00 Dianak. 11:00 Meza Nagusia. 12:00 MUTILDANTZAK eta HAURREN DANTZAK. ONDOTIK Herriko luntxe. 17:00 KANTALDIE. 18:30 Patata tortilla lehiaketa. 20:00 DANTZALDIA Salaberri akordeoilariarekin. 22:00 MUTILDANTZAK eta GAITA. 00:00 Guateke soziedadian. 05:00 Ziztor jatia.

Ekainak 25 asteartea **ZIKIRO JATIA**

10:00 Dianak. 12:00 MUS TXAPELKETA. 14:00 ZIKIRO JATIA, Salaberri alaitua. ONDOTIK DANTZALDIA Joxeanjelek. 22:00 MUTILDANTZAK eta GAITA. 00:00 GAIXOA NI eta TXOPO BOTATZEA.



EGITARRAUA

Ekainak 28 ortzileria **HAURREN EGUNE**

10:00 Argi soinuek. 10:00-14:00 Haurrendako JOKOAK, BKZren eskutik. 14:30 HAURREN eta GURASOEN BAZKARIE Kastonean. 17:00 IZPEGIKO IGOERA: 4. herri bizikleta martxa. **ONDOTIK** Haurrendako TXOKOLATADA eta SARI BANAKETA, Fanfaronak alaiturik. 20:00 Errepresialatuen aldeko kontzentrazioa plazan. **ONDOTIK** poteoa Fanfaronak-ekin. 21:30 BAZTAN ZOPAK Kastonean. 00:00 KONTZERTUEK plazan: SU ETENA, GOIENETXE ANAIK eta PIZTIAK.

Ekainak 29 launbeta **SAN PEDRO EGUNE**


10:00 Argi soinuek. 11:00 Meza. 12:00 MUTILDANTZAK eta LUNTXA plazan. 17:00 PILOTA PARTIDAK Etxelebert pilotalekuan. Pala motza eta eskuz binakako partidak. 20:00 DANTZALDIA Zesuma taldearekin. 21:30 MUTILDANTZAK, GAITA eta LARRAINDANTZA. 23:00 Su artifizialak. 00:00 DANTZALDIE Zesuma taldearekin.

Ekainak 30 igendia

10:00 Argi soinuek. 11:00 Aperitifa. 14:00 Piki-nikia merenderuan. **ONDOTIK** Kalejira Iban eta Joxek alaituta. 17:00 Herritarren arteko JINKANA. 20:00 Mariatxiak plazan: Trio Mariatxi los Tenampas. 21:30 MUTILDANTZAK, GAITA eta LARRAINDANTZA. 22:30 KONTZERTUEK Zubi Puntan. 00:00 DJ Tirri&Tery eta MOZORRO BESTA plazan.

Uztailak 1 astelehena

10:00 Argi soinuek. 11:00 Pilota partide, Gorostapolon. 12:00 BERTSO POTEOA Julio Soto eta Ander Lizarralderekin. 14:30 ZIKIRO JATEA Agerraldekin alaituta. 20:00 DANTZALDIE Agerralderekin. 21:30 MUTILDANTZAK, GAITA eta LARRAINDANTZA. 22:30 DANTZALDIE Iparlan: Pampi Portugal. 00:00 DANTZALDIE Agerralderekin.





K O M U N A K

T. 948 450 925 | M. 677 525 292 • 677 525 324
Amezitia zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE

S U K A L D E A K



Etzetresnak | Pareta-armairuak
Sukalde eta bainugelako altzariak

KONTXA

Gasolindegia



✓ Deitu eta egun berean edo biharamunean
cramanen dizugu etxera



Ongi pasa bestak!

T. 948 450 272 • F. 948 450 810 • DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 14TIK 16RA

Altzateko bestak ospatuko dituzte asteburuan

Larunbatean kontzertua eskainiko dute La Bona Bea eta talde sorpresak

TTIPI-TTAPA

Altzateko bestak antolatu dituzte asteburu honetarako. Beti bezala ekitaldiz ongi hornitua dator egitaraua.

OSTIRALA, EKAINAK 14

- 19:00-21:00: pintxo-poteo Altzateko ostaltuetan.
- 20:00: Txupinazoa Katakuko terrazatik. Ondotik, karrikabuelta txistulari, erraldoi eta buruhandiekin.
- 22:00: suzko zezena.

LARUNBATA, EKAINAK 15

- 10:00: Plater tiraldia.
- 12:00: Berako Herri Kirol Taldearen erakustaldia Altzateko Plazan.
- 13:00: Karrika buelta erraldoi eta buruhandiekin.
- 14:00: auzo bazkaria.

Zikiroa, barrikotea, postrea, kafea eta kopa. Txartelak Purienean eta ostaltuetan salgai (20 euro).

- 18:00: Gure Txokoa dantza taldea. Taloak plazan ikastolako gurusoan eskutik.
- 20:00: Pintxo poteo.
- 22:30: suzko zezena.
- 23:00: kontzertua Altzateko plazan La Bona Bea eta talde sorpresarekin.

IGANDEA, EKAINAK 16

- 10:30: gaztelu haizatuak egun osoan.
- 13:00: entziero ttikia.
- 14:00: erraldoi eta buruhandiak.
- 16:00: haurrentzat bizigynkana Matzadan.
- 17:00 bizikleta jokoak.
- 17:00etatik aitzin taloak plazan.
- 18:00: hip-hop dantza emanaldia ikastolako haurren eskutik.
- 19:00: Rebeka dantza taldearen ikuskizuna plazan. Ondotik, bidaiaren zozketa, Larun Haizperen eskutik.
- 20:00: Irune eta Itsaso ahizpekin dantzaldia.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bide heziketan trebatu dira ikastetxeetako ikasleak

Mugikortasun planaren barrenean antolatutako ekintza burutu dute maiatzaren 28an. Labiaga Ikastola, Rikardo Baroja eta Jesusen Bihotza ikastetxeetako ikasleek parte hartu dute taldeka banatuak, Foruzaingoak jarritako zirkuitu praktikoetan. Alde batetik Eztegarako frontoian 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleak bertan jarritako zirkuituan ibili dira eta gainera oinezko bezala ginkana bat egin dute seinaleak, arauak eta aginduak bereizten ikasteko. Bertzetik Altzateko frontoian 1. eta 2. mailakoek ere bizikletaz egin dute zirkuitoa. Aldez aurretik ikastetxe hauetan martxoan eta apirilean saio teorikoak egin dituzte Semper Autoeskolaren partehartzearekin baita herrian barna irteerak ere, ikasitakoa praktikan jartzeko eta trafikoak duen arriskuaz jabetzeko, Udalak eta ikastetxeek bultzatutako mugikortasun planaren barnean.

Bat-bateko antzerki saioa

Ekainaren 22an, Improducciones taldearen *Casting, ya te llamaremos* bat-bateko antzerki saioa ikusgai izanen da Kultur Etxean, 20:00etatik aitzinera. Sarrera 3 euro kobratuko da.

Bertze aldetik, San Miguel zubiaren inguruko solasaldiek segida izanen dute ekainaren 14an (Eduardo Mtnez. Lakabe) eta 21ean, (Lola Valverde Lamsfus) 19:30ean Beralandetan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Andoni Lazkanotegi jabalina jaurtiketan

Andoni Lazkanotegi Matxiarenak ezusteko handia eman du Euskadiko gazte mailako atletismo txapelketan Berez, fondo erdiko korrikalaria da eta 800 metroko lasterketan parte hartu zuen. Baina ez zuen proba horretan domina lortu. Jabalina jaurtiketan lortu zuen zilarrezko domina Txingudi taldean ari den herritarrek, 31,68 metroko jaurtiketarekin.

Laster eraikitzeko 4 ETXEBIZITZA BIFAMILIAR | BERAn, Pio Baroja karrikan



Promociones Urbanísticas **BIDASOA S.L.**

Monasterio de Irache, 49 - 10.D | IRUÑA | T. 626 54 20 59 | prourbidasoa@gmail.com

LESAKA

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 23AN

San Juan bezperan besta antolatu du aurten ere Euskara Batzordeak

“Lesaka
euskararen
arnasgune’
goiburupean

Aitor AROTZENA

San Juan bezpera-
rako ekitaldia antolatu
du aurten ere Euskara
Batzordeak, *Lesaka*
euskararen arnasgune
goiburupean. Euskara
Batzordeak, «natura be-
zala, hizkuntza eta kul-
tura ere babestu beha-
rrak direla» erran nahi
du lelo honekin eta no-
labait, «euskara natural
bizi dugu eta toki erdal-
dunentzat eredu gara».

Ekitaldiei dagokie-
nez, 17:30ean plazatik
abiatuta *Lesakako mai-
ru eta kristauen besta*
bisita gidatua egingen da
Rafael Eñeterreagare-
kin, txistulariek lagun-
duta. 18:30ean hau-
rentzako jolasak izanen
dira eta 20:00etan eki-
taldia. Haurrek Esne
Beltzaren *Euskaraz bizi*
nahi dut, abesbatzak
Txomin Artolaren *Abe-
rriaren mugak* eta de-
nek batera Gaizka Sa-
rasolaren *Biziberrituz*
euskara kantatuko du-
te. 20:30ean sua piztu-
ko da plazan. Euskara

Batzordeak bi su piztu-
ko ditu, bat haurrentzat
eta plazako eremuan
ezin izanen da su ge-
hiago piztu. Dantzari-
ek giroa jarriko dute eta
afari berendua ere es-
kainiko da. 21:30etik ai-
tzinera musika izanen
da DJ Endararekin.

Haurrei pardela kentzen laguntzeko solasaldia

Bortzirietako guraso
batzuk biltzen ditu Be-
sarkada Elkartek, hau-
rren hazieraren inguru-
an dituzten kezkek ar-
gitzen saiatzeko. Ekai-
naren 15ean, larunba-
tean hitzaldia antolatu
dute. 10:30etik 12:30era
izanen da, eta gaia
hauxe: gure haurrei no-
la lagundu pardela ken-
tzen beren heldutasun-
maila errespetatuz. Ber-
tzalde, aholku batzuk
emanen dira ohatzean
pixa egiten duten haur
handiagoei laguntzeko.

Hitzaldia Koskonta-
ko bideko 7.eko udal
aretoan eskainiko du Pi-
lar Seminario, psikolo-
ga eta irakasleak. Per-
tsona bakoitzak 10 eu-
ro ordaindu beharko du,
eta, bikotekidearekin
etorritik gero, 5 euro ba-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Virginia Etxeparen kartelak iragarriko ditu Sanferminak

Herri bozketaren ondotik, Sanferminak iragarriko dituen kartela eta programa-
ren azaleko eta kontrazaleko irudiak aukeratu dituzte. Kartel irabazlea, Virginia
Etxepare Triguerosen *Xuri, gorri eta berdea* da (ezkerrean); programaren azala,
Irantzu Pastor Ordokiren *Sanferminak zintzilik* (erdian) eta programaren gibe-
leko azala, Nerea Ordoki Etxepetelekuren *Ostatuan* (eskuinean). Kartel lehiaketa-
ra lau lan aurkeztu ziren, azal lehiaketara 10 lan eta kontrazal lehiaketara 39.
Kartel nahiz programaren azal lehiaketako irabazleek, beraien lanak argitaratu-
ak ikusteaz gain, 250na euroko saria izanen dute, herriko ostatu, denda edota
zerbitzuetan gastatzeko eta oroigarria. Programaren gibeletako aldeko azal lehia-
ketaren irabazleak, berriz, herriko dendetan eskolako materiala erosteko 100
euroko balioa duen bonoa eta oroigarria izanen ditu.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Xabi Etxenike eta Andoni Arriola Euskadiko txapelkun atletismoan

Beti Gazterekin futbolekin ezagun ditugu, baina Txingudi taldean atletismoan
ere ari dira Xabi Etxenike Igantzi eta Andoni Arriola Alava. Ez nolanahi gaine-
ra, Donostian jokaturako Euskadiko jubenil mailako txapelketan urrezko domi-
na lortu baitzuten, Etxenikek pisu jaurtiketan irabazi zuen 12,77 metroko jaur-
tiketarekin eta Andonik 4x100 errelebo lasterketako proban irabazi zuen (45"65).
Bakarka ere aritu zen Arriola 200 metroan (25"82) eta 100 metroko las-
terketan. Honetan bere markarik onena egin zuen (12"13).



Ba al zenekien...

Beti Gazteko jubenilen futbol taldeak Oho-
rezko mailara igotzea lortzeaz gain, Gipuzkoa-
ko lehen mailako liga irabazi duela. Gazteek
2-1 irabazi zioten maiatzaren 25eko finalean
Elgoibarri eta zale aunitz mugitu zituzten Do-
nostiako Matigoxotegira.



OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 13, 14, 20 ETA 21EAN

Kultur Etxearen 10. urteurrena ospatuko dute

Irune eta Itsaso

Kultur Etxearen hamargarren urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi prestatu dira.

Ekainaren 13an, ortzegun arratsaldeko 6etan haurrentzako zinea izanen da: "HORTON", Elefante alai eta jostari baten abenturak.

Ekainaren 14an, ortziral ilunabarreko 7etan, proiektzioa: *Etxalarko herria, 80ko hamarkada bukaeran*.

Ekainaren 20an, 18:00etan, Landagain eskolako haurren kontzertu emanaldia.

Ekainaren 21ean, 19:00etan hasita, 2 proiektzio izanen dira; "Etxalarkoak": Joxe Mari Zubietak azken errotaria, Kaxtora irulea eta eskola eta bigarrena: "Etxalarko kisu labeak".

Ondotik muralaren aurkezpena izanen da. Aitzineko egunetan Itziar Mendikoak gidatuta, herriko haur talde batek Kultur etxeko lehen solairuko paretak margotuko ditu eta horren aurkezpena izanen

da. Eguna akabatzeko luntxa Kultur etxeko atarian Elizagoien ahizpek girotuta.

Haurren eguna

Aurtengoan haurren egunak zenbait aldaketa izanen ditu.

Ekainaren 14an, goizeko 11:00etan, Landagain eskolako "Salto" gelan kontzertua eta bertso antzerkia izanen dira. Ondotik sorpresa eta eskularen erakusketa eskolan, ikasleek gidatua. Eskola herritarrentzat idekia egonen da ekintza hauek ikusteko.

Ekainaren 16an, goizeko 10:00etatik 11:45era "Eskularen erakusketa" izanen da eskolan bertan.

Meza ondotik, Altxata kultur elkarteak eta eskolak antolatuta, XXV. Ipuin topaketa egingen da frontoian.

Eguerdiko 13:30ean Guraso Elkartearen eskutik bazkaria plazan. Apuntatzeko guraso elkarte edozein kidearen bidez egin daiteke.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Gasna Feriako lehiaketara hamasei gasna aurkeztu ziren

Ekainaren 2an ospatu zen XXI. Gasna eta artisauen feria, Altxata elkarteak antolatuta. Gasna lehiaketara Baztan, Malerreka eta Bortziritako hamasei gasna aurkeztu ziren. Epaimahaia Susana Garcia, Ines Arana, Iñaki Pikabea, Jose Mari Arburua eta Patxiku Irisarrik osatu zuten. Lehenengo saria, 120 euro eta garaikurra, Berako Socorro Almandozek aurkeztutako gasnarentzat izan zen. Bigarren saria, 90 euro eta garaikurra, Arraiozko Elordi gasnategiarentzat eta hirugarren saria, 75 euro eta garaikurra, Arizkungo SAT Gorramendi gasnategiak eraman zuen. Herrikoei dagokionez, lehenengo saria Intzeko Bordako Josetxo Ariztegi eskuratu zuen, 50 euro eta garaikurra eta bigarren saria, 30 euro eta garaikurra, Basateko Bordako Isidro Ariztegiarentzat izan zen. Lehiaketara gasna aurkeztu zuten guztiei hamabina euro eman zitzaizkien. Sari banaketaren ondotik, bazkaria izan zen frontoian eta herriko dantza taldearen saioa.

Arratsaldeko 15:00etan, Udalak antolatuta, ipuin kontalaria izanen da frontoian Kiliklon Ekoizpenak-en eskutik. Ondotik guraso elkarteak jokoak prestatuko ditu haurrentzako.

Mendi garbiketak

Burrarte, Hiru Muga eta Erbikarai aldean garbiketa lanak Aginagaldetik egingen ditu (5.779,47 euro + BEZ) eta Orizki aldean Patxiku Irisarrik (1.202 euro + BEZ).



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Lehen Jaunartzeak

Maiatzaren 26ean Naiara Otxoteko, Asier Martin, Manex Leza, Niko Garcia, eta Jon Gastearnak Lehen Jaunartzea egin zuten elizan.

zalain
JATEETEA - RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
T. 948 631 106
w. www.zalain.com

zalain

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

KATEA-BIKE

BORTZIRI
UNSION ANAIK
Sukalderako altzariak

Bereko etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

ARANTZA

GIZARTEA → HEZIKETA

Bederatzi haurrek izena eman dute udaleku irekietan

Uztailaren 1etik 26ra goizez egingen dira

Nerea ALTZURI

Bortzirietako Euskarra Mankomunitateak eta Dindaia fundazioak uda honetarako ere udaleku irekiak antolatu dituzte. Uztailaren batek 26ra eta goizeko hamarretatik ordubatera barreneko nahiz kanpoko ekintzak egingen dira aurten ere. Guzira bederatzi haurrek izena eman dute eta begirale batekin izanen dira. Azken finean, haurrek gustora egiten dituzten ekintzak euskaraz eskaintzen dira udaleku irekietan.

Kanta eta murala

Ekainaren 8ko Herri Eskolaren mendeurren bestako kontuak hurrengo alean emanen baditugu ere, prestaketa asteetako bi lanen ingurukoak ezin aipatu gabe utzi.

Eskolaren paretean urteurren honetako murala egin dute eta hagitx polita gelditu da. Bortzirudi-ko Oihanak diseinua egin du eta muralaren egilea berriz Unai izan da.

Bertzalde, Eskolaren ehungarren urteurrenak kanta egin dute. Dagoneko aunitzek ezagutuko dituzue bere doinu eta hitz politak. Eskolako gaztetxoek bertso



ARGAZKIA: NEREA ALTZURI

Eskolaren mendeurrenko mural dotorea egin dute eskolako paretan.

eskolan idatziriko bertsoak dira eta Joseba Irazoki musikari berrak kantaren doinua egin du. Guraso Elkar-teko Amaia eta Idoia ere moldaketa lanetan eta

kantua prestatzen aritu dira buru-belarri.

Kanta, Xorroxin Irratiko Elizondoko estudioan grabatu zen joan den ekainaren 2an eta Jon, Aimar, Jonatan, Ando-

ni, Noelia, Ane, Oihana, Jaione eta Julen ikasleak eta Amaia eta Idoia gurasoak aritu dira kantuan.

Zorionak denoi, a ze artistak denak ere!



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Jon Zabalari aipamena bertsopaperetan

Baztan-Bidasoko 26. Bertsopaper lehiaketako sariak banatu ziren maiatzaren 31n. Jon Zabala herritarraren *Bertsolaritza* bertso-xortak aipamen berezia jaso zuen 11-14 urte artekoen B kategorian.



UTZITAKO ARGAZKIA

Lehen jaunartzea

Aspaldiko urteetan, ohiturari helduz, jaunartzeak joan den ekainaren bian, bestaberri egunean izan ziren. Eguraldi kaxkarra zenez, ez zen prozesiorik egin.

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

kulki
zure herriko jailetan
Tel. 948 552 171
www.kulki.org

MENDIKO
SAGARDOTEGIA • ERRETILAK • JETETEGIA
IBARDIN (BERA)

SAGARDOTEGI MENUA
Txorizoa sagardoan | Bakailao-tortilla | Bakailao frijitua | Txuleta | Gazta eta intxaurreak

MANTTALE MENUA
Kroketa | Bakailao-tortilla | Txuleta | Gazta eta intxaurreak

EGUNEKO MENUA
Joan-etorrirako garraioa negoziatzeko aukera
Gauetz irekia (gutxienezko taldea 20 perts.)

ERRESERBAK:
948 630 302
670 365 011

DESKONTUA
Bono hau erakutsita %10eko DESKONTUA (menu berezietan izan ezik)

BAR Botxo OSTATUA
Zalein • BERA • 948 630 052

JAKOKE - GAZTETEGIA
948 630 786
Altzale 19 • BERA

GIZARTEA → HERRIKO ETXEA

San Juan egunaren inguruan ekitaldiak prestatu dituzte

Afari herrikoia eginen da bezperan

TTIPI-TTAPA

San Juan bestaren inguruan ekitaldi batzuk prestatuko dira aurten ere. Kultur Batzordeak proposatuta, San Juan Bezperan toka lehiaketa, triki-potea eta afari herrikoia frontoian eginen dira. Afarira norberak bere jana eta edaria eraman beharko du. Afaria bukatuta trafikoa-ri moztutako errepede puxkan egindako suen gaineko jauziak, trikitalarien soinuak animatuta noski. Ekintza hauek aitzinera eramateko herritarren parte hartzea eta laguntza ezinbertzekoak direnez, Kultur Batzordekoekin gaiari buruz solasteko edota ideiak proposatzeko edozein momentutan solasten ahal da.

Biharamonean, San Juan egunean, San Juan Xarren eginen diren mezak, dantzarien erakustaldiak eta Baratzon-


do Elkartean eginen den bazkariak aukera ezin hobe eskaintzen dute leku xarmanta eta berezian disfrutatzeko. Argibideak Kultur Batzordeak herrian zabalduko ditu.

Kultura Batzordeak bestetako bilera ere deitu du. Ekainaren 25an arratsaldeko 7etan Udaltelean izanen da.

Igerilekuko prezioak

Igerilekuen bonuen eta sarrerren salneurriak behetiko koadroetan ageri dira. Datu horietaz gain aipatu, 15 lagunetik goitiko taldeek eta familia ugariak prezio bereziak izanen dituztela eta tenis pista-
ren erabilera sarrera edota bonuaren prezioan sartzen dela. Baina argia erabili behar izanez gero, 6 euro ordaindu beharko dira.

DENBORALDIA	Erroldatuak	Ez erroldatuak
18 urtetik goiti	40 euro	65 euro
11-18 urte	28 euro	43 euro
4-10 urte	18 euro	29 euro



UTZITAKO ARGAZKIA

Gisa honetako errotulua jarriko dira etxeetan.

GIZARTEA → UDALAREN ETA EUSKARA BATZORDEAREN ESKUTIK

Etxeei errotulua jartzeko asmoa martxan jarri da

TTIPI-TTAPA

Udalak eta Euskara Batzordeak herriko etxeei errotulua jartzeko asmoa martxan paratu dute. Horretarako, etxe guztietara esku-titz bat bidali dute, proiektuaren berri emanez; esku-titz horretan bertan eskaera egin nahi dutenek beren datuak emateko aukera dute, eta herriko etxera eramanez behar dute ekainaren 28a baino lehen.

Herritarrek 10 euro bakarrik ordaindu beharko dituzte etxeko errotxuarengatik. Izan ere, proiektu hau finantzatzeko behar den diru gehiena apirilaren

28an herrian egin zen merkatuan bildu zen.

Interesa duten herritarrek eskaera egitea aski dute. Gainerako gestio guztiak (errotxuak eskatu, paratu...) euskara batzordeak eta udalak eginen dituztelako. Asmoa da uda honetan dena egina izatea.

Etxeen errotxulazioaren helburu nagusia izen horiek erabiltzea da. Izan ere, azken urteotan etxeen izenak errateko ohitura aunitz galdu da, eta herriko gazteenek etxe izen aunitz ez dituzte ezagutu ere egiten. Orain dela ez urte aunitz gure etxe-

en izenak garrantzia handia izaten zuen, eta herritarrek ere etxearen izenarekin batera deitzen genituen: Maritxu Dominekoa, Joxe Etxartekoa...; orain, berriz, izena eta abizena erabiltzea zabalduago dago.

Badira izena paratua duten etxeak, baina gehienek ez dute horrelakorik. Euskara batzordeak eta udalak eginen duten errotxulazio honen bitartez ahalik eta etxe gehienek bere plaka paratzea lortu nahi dute, eta herrian errotxu eredu berdina izatea ahalik eta etxe gehienetan.

EGUN BAT	Egun osoa	17.00etatik goiti
18 urtetik goiti	6 euro	3 euro
11-18 urte	4 euro	2 euro
4-10 urte	3 euro	1,50 euro

F. LANCHAS
Akutoladorea eta berrizatzaila
Parket eta parket flotatzaila
jarzaila
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

IMANOL ITURRIA ZURGINA
Enpresa eta partikular
T: 661 577 137
E-posta: imanuria@hotmail.com
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA
Urteko lesaka
Pertsona 1: % 10eko DESKONTUA MATRIKULAN
2 pertsona: 1.000k MATRIKULA DOAN
2.000k HILABETE BAT DOAN
(abuztuak 31 arte)

aterpe
abuztuak 31 arte
T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

BORTZIRIAK

KULTURA → MAIATZAREN 31N EGIN ZEN EKITALDIA BERA KO KULTUR ETXEAN

Baztan-Bidasoko 26. Bertsopaper lehiaketako sariak banatu dituzte

Julen Zelaietak irabazi du maila nagusian

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Bertso Eskolak eta Berako Kultur Batzordeak Bortzirietako Euskara Mankomunitatearekin batera antolatutako Baztan-Bidasoaldeko XXVI. Bertsopaper lehiaketako epaimahaiak saridunak jakitera eman ditu eta sariak banatu zituen maiatzaren 31n Berako Kultur Etxean egindako ekitaldian. Guztira 170 lan aurkeztu dira lehiaketara.

10 urte arteko partaideak biltzen zituen A mailan lehenbiziko saria (garaikurra eta 50 euro) Berako Ekhiñe Zapiain Arlegirentzat izan da, *Ikastolan erdi lo* lanagatik; bigarren saria (30 euro) Narbarteko Maddalen Oteiza Ollok eskuratu du *Udaberria* lanagatik. Aipamena ere egin dio epaimahaiak Iratxe Muxika Karrion lesakarraren *Nere am-*



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Bertsopaper lehiaketako saridunak, sariak jaso ondotik.

etsa lanari.

11-14 urte artekoen B mailan, lehenbiziko saria Uxue Mesa Garmendia lesakarraren *Oporra* lanak jaso du (garaikurra eta 100 euro). Bigarren saria, Narbarteko Gaizka Agirre Urroren *Binakako finala* lanak eskuratu du (70 euro). Kategoria honetan ere bi aipamen berezi egin ditu epaimahaiak, Berako Maiana Alzuguren *Udaberria* lanari eta Arantzako Jon

Zabalaren *Bertsolaritza* lanari.

15-18 urte artekoen C mailan lehenbiziko saria Azkaineko Aitor Servier-Etchechuriren *Metamorfora* bertso-xortak jaso du (garaikurra eta 150 euro) eta bigarren saria (120 euro), Lesakako Ibon Txopere-na Elosegiren *Egun normal bat* lanak.

18 urtetik goitikoen D mailan, azkenik, lehenbiziko saria (garaikurra eta 200 euro) Be-

rako Julen Zelaieta Iriartek eskuratu du, *Amets bizidunak* lanarekin eta bigarren saria Lesakako Eneko Fernandez Maritxalarren *Yes, we C.A.N.* lanak eskuratu du (150 euro).

Sari banaketaren ainetik eta ondotik, eskualdeko bertso-eskola ezberdinetako ikasleek beraien bertso antzeztuak eskaini zituzten oholtzan eta giro ederra izan zen Berako Kultur Etxean.

ESKUALDEA

M30eko grebak segida zabala izan zuen

TTIPI-TTAPA

Eskualdean nagusi diren ELA, LAB eta EHNE sindikatuek maiatzaren 30erako deitutako greba deialdiak segida zabala izan zuen. Industrian, langileen %80 baino gehiagok greba egin zuen eta Bortzirietan, Zalain, Funvera, Savera eta Composites Gurea bezalako lantegi handiek erabat itxi egin zuten. Leitzako Sarrionpapelen ere ez zuten lan egin.

Lesakako Arcelor-Mittal lantegian, langileen %75 inguruk egin zuen eta Legasan %90ak. Pikete informatiboak goizetik ibili ziren Zalain industrialdean eta gero Arraiozera joan ziren, Nafarmendi Hiper-Simply merkataritza gunera. Han izan zen tentsiorik handiena eta guardiazibilak kargatu egin zuen 50 bat lagunena kontra. Administrazioan, irakaskuntzan eta merkataritzan ere segida handia izan zuen grebak.

APARAN, S.A.
ERIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagaiak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab.

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

Ostargi optika

Itxiala txartela

%5eko
DESKONTUA
produktu guztietan

SUNBILLA

OSPAKIZUNAK → DANTZAN ETA MUSEAN

Malerrekako Egunean parte hartu zuten sunbildarrek ere

Mikel Arrieta eta Urko Ibarra azpitxapeldun izan ziren mus txapelketan

Maidar PETRIRENA

Maiatzaren 25ean Eratsunen Malerrekako Eguna ospatu zen. Ekitaldiei hasiera, Sunbillako dantzariak eman zieten boastitzea eta agurra dantzatzuz omen duei eta bertara hurbildu ziren herri guztietako ordezkari eta herriarren aitzinean.

Gero, berriz ere Sunbillako dantzariak beraien emanaldia eskaini zuten 3 dantza dantzatzuz: Desmayo, Jota eta Arratiako arin-arina.

Arratsaldeko 4etan mus txapelketaren fina-

la izan zen. Bertan Sunbillako 2 bikotek parte hartu zuten. Alde bate-tik, Jose Martin Agirre eta Jon Apezetxea eta bertetik, Mikel Arrieta eta Urko Ibarra. Bigarren hauek izan ziren azpitxapeldunak. Zorionak.

Bestaberri Eguna

Ekainaren 2an Bestaberri eguna ospatu zen ohitura den bezala. Eguraldiak ez zuen aunitzik lagundu eta herriko obrak direla eta prozesioa eliz inguruan egin behar izan zuten eta ez urtero bezala Karrika Nagusian barna. Meza-tik ateratzerakoan eta prozesioaren bukaeran, banderaren dantza dantzatu zuen Florentino Gelbentzuk bigarren urtez.



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Malerrekako Egunean parte hartu zuten herri-tarrek. Goitian dantzari taldea eta ondoko argazkian, mus txapelketan txapeldunorde izan ziren Mikel Arrieta eta Urko Ibarra. Beheko argazkian, Florentino Gelbentzu ageri dira bandera dantzatzen Bestaberri egunean.



ARGAZKIA: BIDAS IBARRA

Herriko mendizaleek Mendaurren

Herriko mendizaleek ez zuten hutsik egin Trinitate Egunean eta Mendaurreraino igo ziren.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Eneko Herrerak mendi bizikleta probetan segitzen du

Eneko Herrerak han eta hemen BTTko karreretan parte hartzen segitzen du. Maiatzak 17, 18 eta 19ko asteburuan Lorkan egin zuen karrera bat eta ekainaren 2an, berriz, Valladoliden. Zorionak Eneko eta segi horrela.

DONEZTEBE

KIROLA → ERREKA ELKARTEAK ANTOLATUTA

XXXV. Herri Krosa ekainaren 23an egingen dute

11:30ean hasiko da proba nagusia

TTIPI-TTAPA

Erreka Elkarteak udalaren laguntzaz antolatutako 35. Herri Krosa ekainaren 23an egingen dute.

Goizeko 10:30ean, ttikienak aterako dira, maila berezia (75 metro), prebenjaminak (420 m.), alebin neskak (1.140 m.) eta mutikoak (1.690 m.) eta infantil neskak (1.690 m.) eta mutikoak (2.340 m.). 11:30ean abiatuko da proba nagusia, kadeetekin (neskak 1.825 metro eta mutikoak 3.650 metro) eta jubentil senior eta beterano

mailetakorrikalariekin. Hiru kategoria hauek, emakumeek 3.650 metro egin beharko dituzte eta gizasemeek 7.300 metro. Sarie dagokienez, gizonezkoetan 120 euro eskuratuko ditu irabazleak, 90 bigarrenak, 60 hirugarrenak, 45 laugarrenak eta 30 bosgarrenak. Emakumezkoetan, irabazleak 60 euro eskuratuko ditu, 45 bigarrenak eta 30 hirugarrenak.

Pirritx eta Porrotx

Askin Haur Eskola-ko Guraso Elkarteak antolatuta, Pirritx eta Porrotxen *Irrien lagunak* emanaldia izanen da ekainaren 27an, 18:00etan kiroldegian.



Ba al zenekien...

Ekainaren 14an Malerreka-ko Mankomunitatearen egoitzan Solaslaguna egitasmoaren balorazioa egingen dutela 11:30etik aitzinera. Egitasmoaren dinamizatzailarekin batera, Baztan, Malerreka eta Bortzirietako teknikariak eta Topaguneko Oskar Zapata izanen dira. Laguntzaile eta eragileak gonbidatu dituzte.



UTZITAKO ARGAZKIA

Doneztebe Futbol Taldeko kadeteak mailaz igo dira

Doneztebe Futbol Taldeko mutil kadeteek denboraldi bikaina osatu dute eta Nafarroako bigarren mailatik lehen mailara igotzea lortu dute. Gainera, igoera faseko azkenaurreko partidaren lortu zuten igoera, Lezkairuri irabazita.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Javier Mariezkurrena Urantzia-Los Arcosko zirkuituan

Urte batzuk daramazki Javier Mariezkurrena kamioi gidariak eta Ederki taillerreko lan taldeak Europako kamioi karrera txapelketan parte hartzen. Ekainaren lehenbiziko asteburuan Nafarroako zirkuituan, Urantzia-Los Arcosen aritu zen lehen aldiz txapelketan. 35.000 bat ikusle bildu ziren, tartean Doneztebetik eta Malerrekatik hurbildutako ugari. Ezin izan zuten aitzineko postuetan sartu, baina meritu handiko lasterketak egin zituen.



UDALA → EKAINAREN 21A ARTE AURKEZ DAITEZKE

Bestetako kartel lehiaketa deitu du Herriko Etxeak

100 euro eta sari sorpresa irabazlearentzat

Arkaitz MINDEGIA

Uztailaren 19an hasiko dira bestak eta antolaketa lanetan dabil-tza burubelarri Udala eta herritarrak. Joan den urtean lehendabiziko aldiz antolatu zen kartel lehiaketaren arrakasta ikusirik, aurten berriro ere luzatu du deialdia. Udalak, xehetasun guz-ziak udaletxean bertan edo udala@ituren.es. Lanak aurkezteko epea ekainaren 21ean akitu-ko da. Irabazleak 100 euro eta sari sorpresa izanen ditu.

Dantza luzia

Bestaberriren harira,

dantzatzen zen *Dantza Luzia* dantzatu zuten herriko dantzariak ekainaren 2an plazan. 16 dantzari inguru ibili ziren lehenengo ohitura segituz herriko dantza hau berreskuratu eta dantza-tzen. Meza nagusiaren ondotik izan zen, eta Udalaren eskutik Herriko Etxeko arkupeetan banatu zen luntzarekin akitu zen ekitaldia.

Ander Erasun txapeldun

Egur Sportek antola-tzen duen Urrezko Aizkoran bakarkako lane-tan sub 23 kategorian txapeldun izan da Ander Erasun. Ekainaren 2an jokatu zen finala Azpeitiko frontoian. Kañamare III.aren aurka aritu zen aurtiztarra.



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Trikitilari eta panderojole ttikien ikasturte bukaerako emanaldia

Maiatzaren 29an egin zen Mendaur Trikitixa Eskolaren ikasturte bukaerako jaialdia. Kontzertuaren ondotik berendua egin zuten Aurtizko Elkartean.

Ederki eta lasari aritu zen. Hasierako egurre-tan parekatuak joan zen kontua, baina azkene-an minutu eta 45 segun-doko aldea atera zion Erasunek Kañamare-si.

Pulunpa

Ikasturte bukaerara hurbiltzen ari dira esko-lan ere. Ekainean, irai-lean eta asteazkenetan jantoki zerbitzua edu-kitzeko eskaera egin zu-ten Guraso Elkarteko-ek. Arantxi zuzendaria-rekin eta Eli jantokiko arduradunarekin bildu ondotik, ekainean zer-bitzu hori izanen dute, Udalaren oniritziarekin.



ARGAZKIA: EKIÑE MINDEGIA

Mendaurko ermita berri zela 50 urte

Maiatzaren 26an egin zen urteroko zita Mendaurko Trinitatean, baina aurten berezia izan da, 50 urte bete baitira ermita berri zela. Hori ospatzeko Aureskua dantzatu zuten Aritz eta Mirenek, Joxe Mari Fagoagak ere bere bertsoak bota zizkion eta nola ez, trikiti soinuak ere izan ziren Itxaso eta Izaroren eskutik. Inguruko herri guzietatik etorritako jendearekin ospatu zuten urteurrena.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
Tafalla, 13 - IRUÑEA - 948 230 634

2013 UDABERRI- UDAKO KOLEKZIO BERRIA
edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak

ZUBIETA

OSPAKIZUNA → VALENTZIAKO PAELLA JANEN DUTE

Gazteek festa antolatu dute larunbaterako

Fermin ETXEKOLONEA

Egun osoko egitaraua prestatu dute gazteek ekainaren 15erako, larunbaterako, gaupasa eta guzi.

10:30ean herriko jolasak ibiliko dira. 11:00etan haurrendako tailerrak: serigrafiako kamisetak... 12:30ean futbito partida. 13:30ean aizkora apustua: Mikel Indakoetxea eta Ander Erasun, Jose Antonio Loiarde eta Oihan Larretxearen kontra. 14:30ean valentziar paella plazan. Ondoren, bertsolariak eta inauterien inguruko dokumentalaren emanaldia.

16:00etatik 18:00etara haurrendako puzgarriak edo zinema, eguraldiaren arabera. 18:00etan haurrendako berendua. 19:00etan Muxikoa. 20:00etatik 23:00etara dantzaldia Gugaz taldearekin. 11:30ean kontzertua Los Zopilotes Chirriaos taldearekin eta ondoren, berriz ere dantzaldia Gugaz taldearekin. Gau osoan, estalpean garagardo festa izanen da.

Bestaberri

Bestaberri eguna ongi joan zen. Goizetik prozesiorako animoa zuen jendeak eta belarra bil-



ARGAZKIA: OLGA GARROTE

Goikoetxeari eman diote herriko txokorik politenaren saria.

tzen ibili zen. Herriko txokorik politena lehiaketako epaimahaia ere harat-honat ibili zen.

Udalordezkaritza ere bildu zen Herriko Ostatuan bazkaltzera. Arratsaldean meza eta prozesioaren ondotik gazta lehiaketa egin zen. 9 gazta aurkeztu ziren, Azkuntzolota, Parazelaieta, Olasenea, Idiarstekoborda, Elamenekoborda, Serokoborda,

Martuntzenea, Seroinea eta Elizgainetik. Txapeldun atera ziren Parazelaietako gazta eta bigarren Serokobordakoa. Txokorik politenaren saria, berriz, Goikoetxeari eman zioten eta bigarren saria Eguzkilore etxeari. Bi txapelketetan sariak, txapeldunentzat bi otordu Herriko Ostatuan eta azpitxapeldunentzako bi botil ardo izan dira. Gero, be-

rendua egin zen eta gazta guziak jan ziren. Herriko musikarien doinuekin giro ederrean joan zen arratsaldea.

Uritzako festa

Eguraldi euritsuarengatik atzeratu egin zen Uritzako festa eta ekainaren 22ra atzeratu zen. Eguraldiak laguntzen badu, hasieran iragarria zegoen egitaraua egingen da.

ELGORRIAGA

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 1EAN

Giro ederrean ospatu zuten Korpus eguna

Mattin LARRALDE

Ekainaren 1ean, larunbatean, ospatu zen herrian korpus eguna. Meza igandean ospatu beharrean larunbatera aurreratu zuten baina egun aldaketak ez zituen bestelako ohiturak aldatu. Urtero bezalaxe, mezetan izan ziren udaleko ordezkariak Korpus eguneko ikurrak

hartuta eta meza amaitu ondotik, bertaratu zirenek zain zituzten jan edanak. Berendua, berendu-afari bihurtuta.

Obren esleipena

Maitzaren 24an ireki ziren udalera bidalitako proposamenak. Denera sei eraikuntza enpresa aurkeztu dira Uran Bidea, Onddo bidea eta



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Meza amaitu ondotik, berendu afaria egin zuten guztiek giro ederrean.

Junguako eta Ameztiko pistak konpontzeko

egindako deialdira. Guztien artean Mikel

Ubiriaren eskaintza onartu du udalak.

MALERREKA

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 25EAN

Retegitarrak omendu dituzte Eratsunen Malerrekekako Egunean

Heldu den urteko lekukoa Doneztebek hartu du

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 25ean, ospatu zen Malerrekekako Eguna Eratsunen. Festa hasteko, bertako bi pelotari haundiei omenaldia egin zitzairen, Retegi I eta Retegi II-ri. Antolatzaileak, Malerrekekako Eguneko zapela eta lepoko zapia eman zitoten oroigarri Juan Ignacio eta Julian osaba-ilobei. Bien artean, buruz buruko 17 txapel dituzte.

Pilotak leku berezia izan zuen ospakizunean, erakusketa ederra izan baitzen ikusgai. Eratsunen pilotari profesional izan diren kamixetak, txapelak eta kopak, argazkiak, periodiko errekorreak eta

bertze hainbat oroigarri ikus zitezkeen. Esku-langileek ere beraien lanak erakutsi zituzten.

Doneztebeko abesbatza eta Sunbilla, Ituren eta Doneztebeko dantzariak ere aritu ziren. Aizkora apustua ere izan zen bazkal aurrean Beintza-Labaiengo aizkolarien artean eta Dolareko anaiak nagusitu ziren. Herri bazkarian, zubietarrek prestatutako paella jan zuten 120 bat lagunek. Arratsalde berriz umeen joakoak eta esku pilota izan ziren frontoian. Mus txapelketako partidak ere jokatu ziren. Herriz herri txapeldun izandakoak bildu ziren Eratsunen eta finalean Saldiasoko Periko Iturriak eta Jose Ramon Etxeberriak irabazi zitien sunbilarrei.

Muxikoak ere dantzatu ziren arratsaldean eta heldu den urterako



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Antolatzaileek Malerreka Eguneko zapia eta zapela eman zitien Juan Ignacio eta Julian Retegiri. Behean, Saldiasoko Periko Iturria eta Jose Ramon Etxeberria mus txapeldunak.

bestaren lekukoa hartu zuen Doneztebeko Ana Etxeberria zinegotziak, Patxiku Retegi Eratsungo alkatearen eskutik.

Zubieta eta Iturengo joldunek ere hedatu zituzten beraien joare doinuak Eratsunen.

Afarian ere bertze

120 bat lagun bildu ziren, festarekin segitzeko prest eta heldu den urterako Donezteben paratu zuten hitzordua.

GIZARTEA → 'MALERREKAN LAGUNTZA TXIKIAK KONPONBIDE HAUNDIAK' ELKARTASUN KANPAINA

Hainbat eragilek bere laguntza eskaini dute Elikagai Bankurako

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 28an egindako prentsurrekoan, *Malerrekan laguntza txikiak konponbide haundiak* kanpainaren eragileek egiten ari diren zenbait jarduera aurkeztu zituzten. Mendaur eta San Miguel kas-tetxeekin batera antolatutako lehiaketako logotipo eta lema irabazleak aurkeztu zituzten.

Jardueri dagokienez, *Mahai inguruko kantuak II* diskatik, saldutako disko bakoitzeko euro bat Elikagaien Bankura bideratu zen. Azpimarratu nahi izan zuten Mahai inguruko kantuak taldea izan dela ekarpena egin zuen lehenbiziko eragilea.

Mendaur eta San Miguel Guraso Elkar-teek Zinema antolatu zuten

haur eta gaztetxoendako. Hamabostean behin eman dira pelikulak eta euro bat kobratu da sarrera bakoitza. Jende gehien biltzen den eguneko sarrerako dirugutia bideratu da Malerrekekako Elikagaien Bankura. Mutiko eta neskendako areto-futbol txapelketa ere antolatu zuten Ikastetxe-tako Aste Santuko opo-

rraldiaren bigarren astean. Sarrera euro batean kobratu zen eta bildutako dirua Elikagaien Bankura bideratu zen. Doneztebeko merkatariek egin zituzten opa-riak parte-hartzaileen artean zozketatu ziren.

Aintzina taldeak gazta baten enkantea egin zuen. Bildutako dirua Elikagaien Bankura bideratu zen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Kanpainaren leloa biltzen du logotipoak.

Doneztebe Futbol Taldeak maiatzaren 25ean jokatu zuen partiduan urdaiazpiko bat zozketatu zen eta bertze erakundeen artean, Erreka eta Arkupeak elkarrekin ere bat egin dute kanpainarekin.

SALDIAS

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 21ETIK 24RA

Egun handiko herri bazkariarekin bukatuko dira San Juan festak

Pilota partidak eta aizkora apustuak izanen dira asteburu osoan

TTIPI-TTAPA

San Juan festak bestak ospatuko dituzte ekainaren 21etik 24ra:

OSTIRALA, EKAINAK 21

- 20:00: ohiturazko zo-

pak Herriko Ostatuan.
• Gauez: dantzaldiak MODESTOrekin.

LARUNBATA, EKAINAK 22

- 11:00: Herriko mustxapelketa.
- 18:00: hpilota partidak. Jubenilak: Bakaikoa-Al-dabe/Elizalde-Medina. Afizionatuak lau terdian: Olano-Jaunarena.
- Arratsalde-gauez: dantzaldia ZESUMA taldearekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Eguraldiak laguntzen badu, giro ederra izanen da aurten ere Bertizaranako Egunean.

IGANDEA, EKAINAK 23

- 13:00: Aizkora apustua: A. Erasun-R. Saralegi.
- 18:00: pilota partidak. Jubenilak lau terdian: Bakaikoa-Medina. Afizionatuak: Olano-Mariez-kurrena/Jaunarena-Andueza.
- 22:00: San Juan suak.
- Arratsalde eta gauez:

dantzaldiak MODESTO akordeolariarekin.

ASTELEHENA, EKAINAK 24 SAN JUAN EGUNA

- 10:00: Txistulariek alaituko dute herria.
- 11:30: Meza Nagusia San Juan herriko patroaren ohorez.
- 13:00: aizkora apustua:

- A. Olano-E. Saralegi/A. Pellejero-H. Irazabal.
- 14:00: Herri bazkaria Herriko Ostatuan trikitilariekin. Trikitilariek arratsaldean ere joko dute.
- Goiz eta arratsaldez: umeen parkea, kart eta gaztelu haizatuekin, festak bukatzeko.

ARKUPEAK → BORDELEKO AZOKAN ETA KANTABRIA-ASTURIASEN IZAN DIRA

Batetik bestera dabilta Arkupeak elkartekoak

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 9tik 16ra bitartean, elkarteko 104 bazkidek Kantabria eta Asturiasen barna bidaia egin zuten. Eguraldi bikaina lagun, Covadongako lakuak eta Fuente Dé ezagutzeko aukera izan zuten. Katedralen hondartza ere bisitatu zuten eta gehienak harrituta geratu ziren halako ingurune natural ederra ikusita. Potes inguruko gaztaren ibilbidea egin eta Liebana-ko monastegira ere joan ziren. Ez ziren hauek izan bisitatutako txoko berezi bakarrik. Asete beteko egonaldian, sagardoaren museoa, Soplao lezea, Santander hiriburua, Santillana,

Comilla eta Laredo ere ezagutu baitzituzten.

Urteroko ohiturarekin segiz, Benidorm aldera ere egin dute bidaia. Maiatzaren 20tik ekainaren 1era, 52 bazkide izan dira bertan. Eguraldi ederra izan zuten eta ederki pasa zuten, nahiz eta ezustekorik ere izan zuten, bazkideetako bat erori eta etxera itzuli behar izan zuelako. Aurten, bazkaltzeko La Puebla de Valverde gelditu ziren. Itzulera berriz, Castejoneko bazkaldu zuten.

BORDELEKO NAZIOARTEKO AZOKA

Lau autobus beteta, dena 209 bazkide hur-

bildu ziren maiatzaren 30ean Bordeleko azoka famatura. Bertako postuetan eskaintzen zituzten produktuak dastatzeko, ikusteko, erosteko... aukera izan zuten. Dena den, azokako aretoaren tamainagatik eta bazkaltzeko kanpora atera behar izan zutelako, ez zuten guztia bisitatzeko aukerarik izan. Aurtengoa ikusita, datorren urtean, bidaia beste moduren batean antolatzeko asmoa dute. Jatekoa etxetik eramanez edo azokan bertan bazkalduz.

SENDABELAR TAILERRAK

Sendabelarren inguruko tailerrak bukatu dira. Azalpen teorikoak



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Elkarteko kideak Asturiasen (goitian) eta Bordelen (behean).

jaso ondotik, irteerak antolatu dituzte, sendabelarrak bildu eta eza-gutzeko.

"ZUK AUKERATU, ZUK ERABAKI" PROGRAMA

8.170 euro eskuratu di-

tu Arkupeak Elkartek, aurtengo kanpainan. Horregatik elkartekideek, eskerrak eman nahi dizkiete bazkideei eta orokorrean, beraien egitasmoaren alde egin zuten guztiei.

BERTIZARANA

BERTIZKO PARTZUERGOA → EKAINAREN 23A ARTE

Baserrietako jakien Jardunaldi Gastronomikoak egiten ari dira

Eskualdeko
hamar
jatetxetan

Martin BERTIZ

Bertizko Turismo Partzuergoak ehiza jardunaldi gastronomikoak antolatzen ditu duela 20 urtetik. Aurten jatetxeak bildu dira berzte hitzordu bat gehiago eskaintzeko. "Gure baserrietako jakiak – Jardunaldi Gastronomikoak" izenarekin, Baztan Bidasaldeko hamar jatetxek udaberriko menuak prestatu dituzte arras prezio egokiak. Maiatzaren 27tik ekainaren 23ra arte egiten ari dira jardunaldiak.

Jardunaldietan parte hartzen duten jatetxeetatik 5 Baztanen daude, (Beola Almandoen, Ordoki eta Bixta-Eder Arizkun, Olari Iruritan eta Urgain Oronoz-Mugairin, 1 Urdazubin (berria den Nikolaurenea), 2 Bortzirietan (Burlada Arantzan eta Zubiondo Beran) eta 2 Malerrekan (Oitzeko posada eta Donamariako benta). Menu erakargarriak eskaintzen dituzte: Baztango ilar gorriak (babarrunak), Arizkungo arraultzak, Baztango arrumea eta aratxea, Arantzako ahatea, Baztango ardi latxa eta behiaren gaztak, amurruak, txistorra eta txerriaren beste jakiak



ARGAZKIA ETA TESTUA: MARTIN BERTIZ

Hamabigarren Bertizaranako Eguna arrakastatsua

Dozenara ailegatu da bailarako eguna, herrien arteko harremanak elkar lotzeko momentua. Hamabi urte igaro dira lehen aldiz Legasan Bertizaranari ohore egin zitzaionetik eta aurten berriro hasi zen tokira itzuli da besta. Eguraldi patala ez zen arazoa izan ekitaldiak aurrera eramateko, ekitaldi guztiak frontoian egin zituztelako. Gosaritik hasi, musa, bazkaria, haur jokoak, bertsolariak, trikitilari eta musikariek giro ederra jarri zuten. Erran beharra dago frontenis finalak Mugairiko frontoian jokatu zirela.

eta baratzeko produktu anitzak. Partzuergoren web orrian ikusten ahal dira menuak: www.consorciobertiz.org.

Gastronomiaz gain, Bertizko Partzuergo Turistikoko azpimarratu nahi du eta hirietako publikoari erakutsi nahi dio

gure elikadurarentzat eta landa eremuen bizimoduarentzat hain inportantea den nekazal-gintza.



Giovani Valdi
Sandro Sellini
Caramelo gala

Serapio Mugika, 11
20302 IRUN
943 612 626



www.capelettimercheirun.com



URROZ

OSPAKIZUNAK → EGUN OSOKO EKITALDIK

Ofizio zaharren Eguna egingen da ekainaren 22an

Belar garraio eta metatze erakusketa egingen da eguerdian eta bertso eta kantu bazkaria ondotik

Joseba URROTZ

Ofizio Zaharren Eguna ospatuko da ekainaren 22an. Goizeko 10:00etan artisauen erakusketa eta azoka zabalduko da. 12:00etan belar garraio eta metatze erakusketa izanen da. 13:00etan, artisau-

en produktuez osatutako saskiaren zozketa egingen da. 14:00etan bertso eta kantu bazkaria izanen da. Julio Soto eta Iker Zubeldia ariko dira bertsoan, Erramun Martikorena kantari eta Beñat Mitxelela akordeoiarekin. Arratsalde guzian musika izanen da. Bazkari-rako txartelak aitzinetik salgai jarriko dituzte eta behar bezala iragarriko da non izanen diren.

Lehenbiziko jaunartzeak

Aitzineko alean berriemakaleak huts egin zuten, eta egun batzuk pa-



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Maiatzaren 19an egin zuten lehen jaunartzea herriko lau neska-mutikok.

satu badira ere, honakoan aipatuko dugu.

Lehen go jaunartzeak ospatu ziren maiatzaren 19an. Bi mutiko eta bi neska izan ziren: Irune Urroz, Mikel Babaze, Maialen Urroz eta Ruben Saldias. Aipatzekoa, aurten lau izan badira ere, hurrengo urterako ez dela lehenen-

go jaunartzea egingen duen haurrik, herria tikitzen ari denaren seinale...

Kirol proba Leurtzan

Maiatzaren 25ean ospatu zuten Leurtzako urtegien inguruan "Run & Bike" deitzen duten kirol saioa, Desa-

fio Empresas kirol ekingaren barrenean.

Nafarroako enpresetako kirolariek hartzen dute parte, eta enpresen atalean El Corte Ingles-ek irabazi omen zuen. Eguraldi txarra egin zuen, hotza eta euria, hortaz, 24 bikotetik 16k bertzerik ez omen zuten lana akittu.

DONAMARIA

GIZARTEA → EKAINAREN 9AN IREKITZEKO ASMOA ZUTEN

Doneztebeko Andres eta Gemak hartu dute Herriko Ostatua

Bi eskaintza jaso zituen Herriko Etxeak

Izaskun GOÑI TELLETXEA

Doneztebeko Andres eta Gemak hartu behar dute Donamariko Herriko Ostatua.

Bi eskaintza egin ziren udaletxean ostalua hartzeko, gipuzkoar batzuen eta Doneztebeko Andres eta Gemarena eta azken hau onartu zuten.

Ostatua prestatzen hasiak dira eta ekainaren 8-9ko asteburuan irekitzeko asmoa zuten, baina hau idazterakoan ez zen segurua.

Herriko igerilekua

Pisinetako sorosle lanetarako jende aunitz aurkeztu zen, 10 lagun inguru. Eta nola tartean herriko bi lagun dauden, Maite Migeltorena eta Unai Sagaseta, hauek biak hartzea erabaki du udalak.

Piszinak ekainaren 15etik irailaren 15era egonen dira irekiak. Orduetegiari dagokionez, astelehenetik igandera, goizeko 11:00etatik 13:00etara eta 14:00etatik 20:00etara zabalduko da.

Udako ludoteka

Amaia eta Leirek udan ludoteka zerbitzua eskaini nahi dute, uztailan eta abuztuan. Bertan, ekintza ezberdinak egiteko aukera



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ekainaren 15etik irailaren 15era irekiko da igerilekua

izanen dute haurrek, tailerrak, eskulana, kirola... orduetegiari dagokionez, 10:00etatik 13:00etara izanen da, baina gurasoen eskariaren arabera luza daiteke. Haur bakoitzak, hilabetearen 80 euro ordaindu beharko lituzke,

familia bereko bi haur baldin badira, 140 euro eta hiru haur baldin badira 170 euro.

Interesatuak baldin bazaudete, informazio gehiago eskuratu daiteke 638205665 edo 689454499 telefonotara deituta.

EKONOMIA → ZOR BIZIA

Banketxeekin duten zorra 1,9 milioi euro murriztu dute udalek

Eskualdeko zortzi herrik ez dute inolako zorrik

TTIPI-TTAPA

TTIPI-TTAPAREN He-go Euskal Herriko eremuan dauden 25 udalerrietatik 17k 18.447.000 euroko zorrekin itxi zuten joan den urtea. Horixe ondoriozta daiteke Espainiako Gobernuako Ekonomia eta Ogasun Ministerioak argitaratu dituen

datuetatik. Emandako zenbakiak udalen zor biziari dagozkie, hau da, banketxeetan dauden zorrak dira.

2011ko datuekin konparatuz, udal gehienak gerrikoa estutzen ahalegindu dira, zorra murriztu egin baitute; 2011 bukaeran 20.379.000 eurokozen udalen zorra. Aldiz, 2012ko abenduaren 31rako 1.932.000 euro murriztua zuten zorra. Bera, Bertizarana, Elgorriaga dira zorra igo duten udalerrak, segurue-

HERRIA	2012ko zorra	2011ko zorra	Diferentzia
ARANTZA	426.000 €	453.000 €	-27.000 €
ARANO	0 €	0 €	0 €
ARESO	291.000 €	309.000 €	-18.000 €
BAZTAN	7.417.000 €	8.017.000 €	-600.000 €
B. LABAIEN	0 €	0 €	0 €
BERA	1.262.000 €	1.089.000 €	173.000 €
BERTIZARANA	175.000 €	153.000 €	22.000 €
DONAMARIA	0 €	0 €	0 €
DONEZTEBE	980.000 €	1.321.000 €	-341.000 €
ETXALAR	285.000 €	330.000 €	-45.000 €
ELGORRIAGA	11.000 €	0 €	11.000 €
ERATSUN	15.000 €	66.000 €	-51.000 €
EZKURRA	0 €	0 €	0 €
GOIZUETA	0 €	0 €	0 €
IGANTZI	298.000 €	315.000 €	-17.000 €
ITUREN	111.000 €	124.000 €	-13.000 €
LEITZA	1.256.000 €	1.836.000 €	-580.000 €
LESAKA	4.747.000 €	4.989.000 €	-242.000 €
OIZ	71.000 €	78.000 €	-7.000 €
SALDIAS	0 €	0 €	0 €
SUNBILLA	199.000 €	300.000 €	-101.000 €
URDAZUBI	296.000 €	344.000 €	-48.000 €
URROZ	0 €	0 €	0 €
ZUBIETA	0 €	0 €	0 €
ZUGARRAMURDI	607.000 €	655.000 €	-48.000 €
GUZTIRA	18.447.000 €	20.379.000 €	-1.932.000 €

nik egindako inbertsioen ondorioz. Gisa berean, zortzi dira

banketxeekin zorrik gabe segitzen duten herriak: Arano, Beintza-

Labaien, Donamaria, Ezkurra, Goizueta, Saldias, Urroz eta Zubieta.

EKONOMIA → LANGABETU KOPURUA BEHEITI

Goiti doa langabezi prestaziorik kobratzen ez dutenen kopurua

TTIPI-TTAPA

Otsailetik maiatz honarra bitarteko hiru hilabetetan 131 langabetu guttiago daude eskualdean, baina %6 igo da inolako langabezi-prestaziorik kobratzen ez dutenen kopurua (30 gehiago).

Maiatz hondarrean 1.405 langabetu zeuden Doneztebeko Enplegu Bulegoan izena emanak, hilabete lehenago

baino 66 guttiago. Beraz, %4,49 jautsi da langabetu kopurua eta Nafarroa osoko bulegoen artean (banaz bertze %2,31 jautsi da langabezia) jautsiera nabarmenena izan da Doneztebekoan.

381 kontratu egin ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez maiatzean, baina horietatik 33 bakarrik izan ziren mugagabeak.

LANGABEZIA-DATUAK HERRIKA 2013ko MAIATZA				
Herria	Populazioa 2012	Lanik gabe guztira	Langabezi-prestaziorik kobratzen dute?	
			EZ	BAI
ARANO	121	6	4	2
ARANTZA	645	18	5	13
ARESO	276	9	4	5
BAZTAN	8.035	338	158	180
BEINTZA-LABAIEN	242	12	6	6
BERA	3.798	189	89	100
BERTIZARANA	628	40	19	21
DONAMARIA	436	25	12	13
DONEZTEBE	1.694	138	74	64
ELGORRIAGA	205	16	9	7
ERATSUN	160	11	6	5
ETXALAR	818	46	22	24
EZKURRA	164	7	3	4
GOIZUETA	758	47	24	23
IGANTZI	634	25	17	8
ITUREN	518	34	17	17
LEITZA	2.916	168	78	90
LESAKA	2.807	173	82	91
OIZ	155	8	4	4
SALDIAS	118	9	3	6
SUNBILLA	665	48	17	31
URDAZUBI	378	5	3	2
URROZ	180	6	2	4
ZUBIETA	295	18	8	10
ZUGARRAMURDI	243	9	4	5
Denetara	27.189	1.405	(%47,69) 670	(%52,31) 735

LEITZA

KIROLA → 500 LASTERKARIK HASI ZUTEN

Euripeko Mendi Erronka arrakastatsua izan zen

Angel Arrieta eta Leire Agirrezabala garaile

JM BARRIOLA

Lehen aldiz ospatu zen Euskal Herria Mendi Erronka mendi lasterketa Leitza eta inguruko herrietan ekainaren 1ean. Kasik egun guztian euria eta haizea izan ziren protagonista, beraz oso eguraldi txarrarekin egin zen lasterketa. Goizeko 7:00etan 500 bat lasterkarik hasi zuten erronka eta horietatik 366k lortu zuten bukatzea. Gizonezkoen artean irabazlea Angel Arrieta Lujanbio Uhart-Arakilgo Aralar-Mendi klubekoa izan zen (6:45:51). Emakumezkoen artean lehena, Ibarako Leire Agirrezabala Ezkurdia izan zen (8:24:08). Lasterkariak oso pozik eta gustura gelditu omen ziren eta antolatzaileak (ESAIT eta borondatezko taldeak) arrakasta ikusita, lasterketa hau urtero izatea aurreikusten dute.

Gorritartan auzoko Sanpedro jaiak

Leitzako Gorritartan baserri auzoan, ekainaren 30ean San Pedro egunez jaia egingen da ohitura denez. Aurtengoan ere heldu zaigu egun haundia pesta ospatzeko. Prest dute egitaraua, Usategietako

gainean, Basakabi aurrean egingen dituzten ekimenak. Egitaraua:

- 10:00: Meza.
- 11:00: Herri kirolak.
- 14:00: auzotarren bazkaria.
- 17:00: Mus txapelketa.
- 19:00-24:00: Dantza-musika (atsedenaldi-an txokolatea emanen zaio nahi duen guziri).
- 20:30: XXV. Txintxur-in txapelketa.

Hortxe ditugu San Juan suak

Urtero legez Sanju-an bezperan herri afaria antolatuko da Uda-la eta Aurreraren artean. Ekainaren 23an pla-



za herritarrez beteko da afaria egiteko eta ondoren udako solstizioko suetan saltatuz, biziberritzeko. Mila lagun inguru biltzen dira urtero plazako afari horretan. Arratsaldean herriko gaztetxoek dantza saioa egingen dute eta opilak banatuko dira. Jubilatuek ere afaria egingen dute eta txartelak salgai jarriak dituzte 15 eurotan elkarteetan. Beraz aurtengoan ere giro ederrean joanen zaigu gau magiko hau.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA
Mendi erronkako irabazleak ageri dira goiko bi argazkietan: Angel Arrieta eta Leire Agirrezabala.



ARGAZKIA: PABLO FEO - TESTUA: BEGONA ZABALETA

21 neska-mutikok egin dute lehen jaunartzea

Maiatzeko azken igandean, eguraldi eder askoarekin, Lehen Jaunartzea egin zuten herriko 21 neska-mutikok: Ekaitz Mutuberria, Axier Kanflanka, Ibai Sagastibeltza, Ivan Alduntzin, Adei Zubillaga, Miguel Aingeru Zubitur, Ander Garro, Ivan Rubia, Aitor Arraras, Joanes Oiartzun, Argider Zabala, Maria Feo, June Zestau, Ainhoa Aranburu, Itxaro Zestau, Joana Sagastibeltza, Maria Sagastibeltza, Irati Zabala, Maitane Amadoz, Iraia Martinikorena eta Julia Sukuntza. Argazkian, Ander abaderarekin eta katekistekin ageri dira.



Pertsonaia
Leire ERBITI

Donostiako piano lehiaketan garaile

Leire Erbitik XVIII. Donostiako hiriaren nazioarteko piano lehiaketa irabazi zuen, Irungo beste mutiko batekin batera lehen aipamena lortuz. Ekainaren 16an Burlatan jokatu den Euskal Herriko Haur Kantu jaialdian Naroa Erbiti ahizparekin eta Ane Irigorri lesakarrarekin batera parte hartuko du, Garazi Erbiti musikariaren laguntzarekin.

KIROLA → UMORE ONA ELKARTEAK ANTOLATUA

Herria ezagutzeko bosgarren mendi ateraldia ekainaren 22an

Goizeko 9:00etan abiatuko da

TTIPI-TTAPA

Goizueta ezagutzen egitasmoko bosgarren mendi buelta ekainaren 22an antolatu du Umore Ona elkarteak. Beti bezala, goizeko 9etan abiatuko dira mendizaleak plazatik abiatuta Martitxene, Alkaso, Aranola, Ibarrolako borda, Tartazuko harria, eta Santakruzen barrena berriro ere herriko plazara bueltatuko dira.

Aritz Zubiri, maiatzeko onena

Aritz Zubiri herritarra bikain ari da erremontean eta maiatzean ere, bigarren hilabetez segidan, B kategoriako erremontelari onena izendatu zuen Oriamendi 2010 enpresak. 35,83 puntu eskuratu zituen.

Iskibi BTT itzulia euripean

90 bat txirrindulazalek aurre egin zioten euriari eta lohiari eta parte hartu zuten ekainaren 2an Iskibi kanpinak laugarren urtez antolatutako mendi bizikleta itzulian.

Abesbatza kantu poteoan

Ikasturtea bukatze-ko kantu poteoa egin zuen abesbatzak maiatzaren 31n, tabernaz ta-



ARGAZKIA: ITSASO LUJANBIO

Goxali liburutegi-ludotekaren ikasturte bukaera

Beste ikasturte batez, Goizueta eta Aranoko haurrek (eta ez hain haurrek) Goxali liburutegi-ludotekaz gozatzeko aukera izan dute. Astelehen eta ostiral arratsaldetan elkartu eta entretenitzeko, jolasteko, irakurtzeko, lagunekin ongi pasatzeko, ikasteko, barre egiteko... parada izan da bertan tailer-eskulan-jolas-joko-abesti-liburu...-en bidez. Urtero legez, berendu eder batekin eman diote aurtengoari amaiera 40 haurrek. Goxalik, beraz, udako oporrak hartu ditu, baina datorren ikasturtean indarberritua itzuliko da berriro!

berna. Joan den larunbatean Donostiako Kursaa leantatu behar zuen, arraunlarien

San Miguel Ligaren aurkezpenean. Ekainaren 22an, berriz, Hernanira joanen da Umore Ona

abiesbatza Aurorak kantatzera, bertako Kantuz eta Ereñozuko Ozenki abiesbatzekin batera.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Herritarrek ere parte hartu zuten Iskibiko BTT itzulian.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Abiesbatzakoak kantari kantu-poteoan.

FANTXIKE

%10eko
DESKONTUA
30etik gorako
gastuan

#ttipi txartela

DISEINUA HARITZEAN - BUSTIKOA

KOLORE ETA AKABERA AUKERA HAUNDIA

TELLERÍA

Kalitatezko altzarien 700 m²ko
erakustokia prezio interesgarriekin

- Neurria eginak
- %100 Haritz Trinkoa
- Enpatratuak
- Sukaldeak
- Txokoak

IZUGARRIZKO ESKAINTZAK

BERRIOPLANO (Nafarroa) - Tel. 948 30 35 04 - 699 43 30 87 - www.mueblestelleria.com

ARESO

KIROLA → EKAINAREN 15EAN HASIKO DA

Hamalau bikotek eman dute izena frontenis txapelketan

Bikote mixtoak dira eta finala herriko festetan jokatu da


Juana Mari SAIZAR

Hamalau bikotek eman dute izena frontenis txapelketa mixtoan. Ekainaren 15ean, arratsaldeko 4etan jokatu dira kanporaketetako lehen hiru partidak eta hurrengo larunbatean beste hiru. Bikote garaileak hurrengo faserako sailkatuko dira eta galduta bihurtu diren bikoteen artean kanpora-

ketak jokatu dituzte, final laurdenetarako sailkatzeko. Partidetako epaileak ere zozketaz aukeratu dituzte parte hartzaileen artean. Finalak herriko festetan jokatu dituzte.

Guraso Elkartea kexu

Guraso Elkarteko zuzendaritzak bere kexa azaldu du Zuhaitzaren Egunean eskolako umeek herrian aldatutako zuhaixkak kendu eta desagertu direlako, hiru garren urtez jarraian. Alde batetik berriro aldatu nahi dituzte, herria



ARGAZKIA: AIRESOKO ESKOLAK UTZIA

Ikasturte bukaerako ateraldia Donostiara

Eskolako irakasle eta ikasleak Donostiara joan ziren ikasturte bukaerako ateraldian. Eguraldiak ez zuen lagundu, gainera autobusetik jeitsitakoan olatuen zipriztinak ere iritsi zitzaizkien ondoraino. Itsasontzien Museoa bisitatu zuten, bertan jolasean ibili eta arrantzaleek baleak nola harrapatzen zituzten ikasi zuten. Ondoren Aquariumera joan ziren. Han beste eskola pila batekin elkartu ziren eta zailtasunak izan zituzten disfrutatzeko. Baina ahalegindu ziren arrainak ikusten. Gero, ateri zegoela aprobetxatuz eta Kontxako aterpean bazkaltzeko eta baloiarekin eta soka saltoan jolastuz ederki pasa zuten.

dotoretzeko, baina ondorioak ikusita, ez du gogo handiegirik ematen. Kaltea umearen ilusioari egiten baitzaio. Berriro landatzen badi-ra, egindako lana erresetatzea espero dute.

Herritarrak Mendi Erronkan

ESAITEk Leitzan antolatutako Mendi Erronka lasterketan Aresoko jendeak parte hartu zuen, batzuk bolondres gi-

sara eta beste bi lagunak laisterketan parte hartuz. Xabier Erasok, arazo fisikoak zirela eta bertan behera utzi behar izan zuen, aldiz Eden Alguerok lasterketa amaitzea lortu zuen.

ARANO

GIZARTEA → KONTSEJU TABERNATIK BULTZATUTA

Uztailaren 9an Iruñeko Sanferminetara ateraldia antolatu dute

Ainhoa ANSA

Kontseju tabernak bultzatuta, herritik Iruñeara irteera antolatu dute uztailaren 9rako. Egun horretan gauza ezberdinak daude aurreikusita Iruñean San Ferminetako egitarauaren barruan, besteak beste harrijasotzaileen Nafarroako Txapelketa, jota emanaldia eta haurrentzako jolasak.

Ideia honakoa da:

goizean herrian entzierroa elkarrekin gosaldut ikusi eta ondoren autobusean Iruñearantz atera. Errotxapean gelditu eta eguartera libre bakoitzak nahi duena egiteko. Eguerdian elkarrekin bazkaldu eta ilunabarrean autobusez buelta berriro herrira. Iristean afari mokadua egin eta bakoitzak nahi duen bidea hartuko du hortik aurrera!



ARGAZKIA: AINHOA ANSA

Herritarrak «Gure esku dago» kanpainan

«Gure esku dago» erabakitze eskubidearen aldeko kanpainan parte hartu du Maider Ansa herriko abeslariak. Ekimenaren kantu ofizialean Euskal Herriko hainbat abeslariak parte hartu dute eta tartean Maiderrek. Bideoak Euskal Herriko txoko desberdinetan grabatu da eta irudian ikus daitekeenez Arano eta bertako gaztetxoek bideoan agertuko dira.

Irteera egitera animatzen denak kontsejun eman beharko du

bere izena ekainaren 30erako beranduenez. Autobusa eta bazkal-

tzeko tokia lotzeko beharrezkoa baita hau egitea. Animatu!

GIZARTEA → EKAINAREN 5EAN AURKEZTU ZEN

Emakumeak ere dantzara animatu nahi ditu Plazara Dantzara Herri Ekimenak

Garai berrietara egokituz libre dantatzeko gonbitea egin du

TTIPI-TTAPA

Herrietako besta sa-soia hasi den honetan, gizon nahiz emakume, herriz herri eta plazaz plaza ongi pasatzeko eta aske izateko gonbitea egin du Plazara Dantzara Herri Ekimenak.

Aurkezpenean jakinarazituzenez, «dagoe-neko urte andana pasa da Baztango zenbait emakumek mutildantzetan parte hartzeko erabakia hartu zutenetik». Izan ere ohitura zahar aunitz, «ohitura zahar izanda ere, eraldatuak, berreraikiak, zaharberrituak eta denbora berrietara» egokitu dira. Aldiz, Plazara Dantzara Herri Ekimenak badaki

badirela emakumeekin dantzatu nahi ez duten baztandarrak eta haiekin ere solastu dute, baina «ez digute partaide izaten uzten, tradizioa beraiek nahi bezala ulertzen ez dugulako».

Korroan bat gehiago izan nahi horretan, «begirada zorrotzak, argi itzalketak, boikotak, ziztuak, txistularien isiltzeak eta irainak» jasan dituztela salatu dute baina aitzinerakoan horietako bakar bat ere ez dute berriro onartuko eta «gure herrietako plazetan gogoia dugun guztietan dantzatuko dugula» jakinarazi dute, «gustatzen zaigulako, nahi dugulako».

Ludoteka ireki dute Lekarozko aterpean

Aspacek Lekarozen kudeatzen duen gazte aterpeak moldaketa la-

nak egin ditu eta 3 eta 11 urte bitarteko neska-mutikoei zuzendutako ludoteka zerbitzuak eskainiko ditu. Aterpean ostatu hartu eta umak dituzten familia eta taldeek ere erabiltzen ahal dute ludoteka. Bertze aukera bat ere eskaintzen du aterpeak hala behar duten gurasoendako: neska-mutikoak eskolatik ateratzen direnean ikastetxe atarian hartu eta ludotekara hurbiltzea. Ludotekaren ordutegia, ikasturtean 17:00etatik 20:30era da astelehenetik ortziralerara eta 10:00etatik 13:30era larunbatetan. Uztailean eta abuztuan, berriz, astelehenetik larunbatera, 10:00etatik 13:30era irekiko da. Udako hilabeteetan, gainera, antzerki, sukaldaritza, malabare, dantza eta musi-



UTZITAKO ARGAZKIA

Ekainaren 5ean aurkeztu zen Plazara Dantzara Herri Ekimena.



UTZITAKO ARGAZKIA

Lehen Jaunartzea Almandozen

Ekainaren 2an, Bestaberri Egunean egin zuten lehen jaunartzea Almandozko elizan Ioritz, Oier eta Loreak.

ka tailerrak prestatuko dituzte.

Elizondoko bestetako kartel lehiaketa

Lehen deialdian lanik aurkeztu ez zela eta, Santio bestetako karte-

la egiteko bigarren lehiaketa deialdia egin du Elizondoko Herriak. Lanak aurkezteko epea ekainaren 17an akituko da eta ekainaren 24an jakinaraziko da irabazlea. 300 euro eta zikiro jaterako bi txartel izanen ditu sarritzat.

benta berri
Bardingo gurea - BENTA - BERTAN - Benta-berri@hotmail.com

Benta Berrin gure gastronomia, menu goxoak eta arrain freskoan espezializatutako karta dastatu dezakezue

ERRESERBAK
948 630 708

DESKONTUA
Bono hau erakutsita %10eko DESKONTUA (menu berezietan izan ezik)

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA

T. 948 453 444 | M. 629 659 583
ARIZKUN

Illustration of various stone carvings and sculptures.

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → EKAINEKO LEHEN ASTEBURUAN

Uholde haundiaren mendeurrena hunkiduraz gogoratu dute Erratzun

330 lagun bildu ziren ekitaldiak borobiltzeko egindako herri bazkarian

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 2an Erratzun, Elizondo eta Baztan-Bidasoa eta Iparraldeko hainbat herri eta leku ezberdinak suntsitu zituen uholdearen mendeurrena bete zen. Gertakari larri hura gogoratzeko, maiatzaren 31tik ekainaren 2ko asteburuan hainbat ekitaldi burutu zituzten.

Erakusketa jarri zuten ikusgai Menatarren argazkiak eta Erratzuko herriak eta parrokiak bildutako objektu eta dokumentazioarekin. Foto Menak eta Erratzuko herriak liburu bat ere egin dute. Apezaren etxean egindako erakusketarekin batera, hainbat ekitaldi egin ziren Erratzun. Honela, ortziral arratsean kon-

tzertua eskaini zuen Pakti Saizek elizan.

Larunbatean mendi itzulia egin zen plazatik abiatuta, orain dela 100 urte kazetariak egindako ibilbidea eginez. Haurrendako karrika antzerkia ere izan zen. Arratsaldean, emazte-kien frontenis eta gizonen zokeroen pala finalak jokatu ziren eta gero Prozesioa egin zen Gorostapolotik herriraino, Doloretako amabirjina ekarriz. Elizondoko abesbatzak kontzertua eskaini zuen elizan.

Igandean, uholdearen mendeurrenean, goizean ezkiljotzea egin zen Baztan-Bidasoaldeko herrietan. Besta-berri eguneko prozesioa ere egin zen eta Erratzuko lau neska eta lau mutikok lehen jaunartzea ere egin zuten. Xabier Rekartek Aurrekua dantzatu zuen elizatarian. Mezaren ondotik, Baigorriko dantza taldeak emanaldia eskaini zuen plazan. On-



ARGAZKIA: ONDIKOL

Doloretako Amabirjinaren irudia Gorostapolotik herrira eraman zuten. Xabier Rekartek Aurrekua dantzatu zuen eta Baigorriko dantza taldeak ere emanaldia eskaini zuen.

dotik musika-poteoa izan zen FanfaRonak taldeak alaiturik. Etxelebert pilotalekuan egindako herri bazkarian 330 bat bizilagun bildu ziren eta gero dantzaldia ere izan zen.

Uholdearen mendeurreneko oroitzapen ekitaldiek segida izanen dute. Ekainean Elizondon egingen da bertze argazki erakusketa Baztango Jorge Oteiza Museo Etnografikoan eta uztailan Irurritako Jauregian.

ELIZONDO

Zahar Etxea Kultur Hilabetean sartua

TTIPI-TTAPA

Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxea Hilabete Kulturalean sartua dago. Ekainaren 14an, 17:00etan ateraldia egingen dute. Hilaren 18an, Rebekaren neskek dantza emanaldia eskainiko dute 17:15ean. Hilaren 19an, 17:00etan argazki emanaldia izanen dute eta agurtzeko merendua Katekesiko gaztetxoekin. Ekainaren 21ean, Familiaren Eguna ospatuko da eta Zahar Etxean bizi direnekin batera, baraien senide, langile eta Bidelaguneko boluntarioek ere ospatuko dute. 10:30ean Meza izanen da. 11:15ean aperitiboa. 12:00etan Amaiur Gaztelu Abesbatzaren emanaldia eta arratsaldean irteera.



ETXEZ ETXE
Cathy peluquera a domicilio
Ordue eskatzeko deitu:
696 684 573 (Aritzleun)



Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORNOZ · MUGAIRI

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zuriñ Aneguriak
- Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aneguriak
- Lan aholkularitza
- Norma eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, BEZA...
- Inmobiliaria
- Baserri, borda, pisu, etab... salmenta eta alokairuak
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T/F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

UDALA → GOBERNU TALDEA ETA UPN-REN ARTEAN

Udal aurrekontuek ikamika sortu dute Balleko Etxean

TTIPI-TTAPA

Udal aurrekontuen inguruan UPNk egindako kritikei erantzun die Gobernu Taldeak. Bere blogean hainbat kontu salatu ditu alderdi erregionalistak, tartean aurrekontuei hasierako onespenea eman aitzine-tik, aztertzeke 48 ordu izan zituztela adieraziz. Dokumentuak "erabateko alegazioa" merezi duela erran du.

Bildu eta Ezkerraren Udal Gobernuak, bere aldetik, UPNk argitaratutakoak «zentsugabekeriak eta faltsukeriak» direla erran du, eta gaineratu du, «gaien nahasketak, erakusten duten aferen ezezagutza eta erabiltzen duten tonu erasokorra ikusita, UPNren hautetsiak udal-etxean aritzeko gaitasunaz serioski pentsaraztera garamatzala».

Udal Gobernuaren arabera, «Nafarroako UPNren Gobernuaren kontuen luzapenak aurrekontu hauek aunitz baldintzatu ditu». Nabarmendu du «Nafarroako Gobernuak biltzen duenaren %7a bertzerik ez duela toki erakundeetarako bideratzen». Horrekin batera, nekazaritza azpiegietarako dirurik ez duela bideratu, mendiko lanetarako laguntzak zehaztu gabe dituela eta zerbitzu sozialetako laguntzak itoak dituela salatu du.

Baztango UPN inbertsio faltaz solastatzea «irri egitea» dela dio Udal Gobernuak, «beren alderdiak CAN desegin

duen biztartean eta Nafarroa azpiegietura zentsugabeekin finantza kolapsorak eraman duenean».

Ikastetxe eta mediku kontsultategietako garbiketara bideratutako diru partida da UPNk kritikaturako atal bat. Diru partida hori %11 igo zela oroitarazi du alderdi erregionalistak, langileen gizarte segurantzaren erregularitzatzeko. Hori ez dela egin adierazi du: «2012az geroztik langileak derrigorrezko gizarte segurantzarik gabe daude. Non daude igoera horretako euroak?». Horri erantzunez, Udal Gobernuak «udal-etxe hau hogeitaz gaia konpontzeko urratsak abiatu dituen lehena izan dela» jakinarazi du.

GASTU ARRUNTA ETA ISUNAK

Gastu arruntaren hazkundeaz ere aritu da UPN, eta Bilduk eta Ezkerrak azaldu dute «gure estiloa, Nafarroako Gobernuarena ez bezala, ez da zerbitzu publikoak moztea eta administrazio publikoaren xehatzea, kontrakoa baizik, horiek indartzea eta bulkatzea».

Inbertsioez ari dela, alderdi erregionalistaren hitzetan, «Zigako herri-tarrak berriz ere hilerrira konpondu gabe gelditu dira, eta horren ordez, lau zulo konponduz konpentsatu nahi diete». Gaiaren inguruan, Zigako herri osoan brea plantxa botatzeko 17.000 euro bideratu di-



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Bizi Sagardoa elkarteak aurkeztu dute Elizondon

Nafarroako Sagardogileen Elkartek bultzata, bertze sagardogileen Elkarte eta eragile desberdinekin batean (udal, museo, garapen agentzia, fundazio...), sagardoaren kultura eta turismoa sustatzeko elkarte berri bat sortu da, Bizi Sagardoa izenarekin. Helburua da sagardoaren kultura eta turismoan elkarlanerako gune bat osatu eta jarduerak, ekitaldiak... antolatzea. Aurkezpen ekitaldia Elizondon egin zen maiatzaren 28an. Aurkezpenean azpimarratu zuten lehenengo aldiz Euskal Herriko lurralde guztiak elkartu eta parte hartu dutela.



ARGAZKIA: XAGU-LESAKA

Amaiurrek irabazi du lauko sokatira txapelketa 300 kilokoan

Lauko sokatira txapelketan 320 kiloko txapela ezin izan zuen etxean jantzi Amaiurrek, Berriozarrek kendu baitzuen finalean. 300 kilokoan alderantziz gertatu zen, Amaieur A taldeak jantzi baitzuen Berriozarren maiatzaren 25ean. Gainera, Amaieur Bk hirugarren postua lortu zuen eta bi taldeak igo ziren podiumera.

rela jakinarazi du Gobernu Taldeak.

Isunen bilketaren aurreikuspena %30 haunditu da aurrekontuetan. Horri buruz, UPNk dio «aurten gaiztoagoak izanen garela». Irakurketa hori «bihurria eta gaiztoa» dela erantzun diote Bilduk eta Ezkerrak: «%30 haunditu da aurreikuspena bai, baina kopuru absolutuetan 3.000 eurotik 4.000 euro pasatzea erran nahi du».



ZUGARRAMURDI-URDAZUBI

OSPAKIZUNAK → 75 LAGUN ELKARTU ZIREN HERRI BAZKARIAN

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere besta polita egin zen Xareta Egunean

Heldu den urtean Ainhoan edo Saran eginen da

Margari eta Koro

Eguraldiak ez zuen lagundu, baina besta polita izan zen "Il Xareta Eguna".

Ibilaldia, naiz eta jende guttik parte hartu, izigarri interesgarria izan omen zen: Berraberriko lezeak, Iruingo tresneriaren erakusketa, Irigoieneako iduzki-orena, bidean agertu ziren sorginak, Alkerdiko kaperako txalaparta emanaldi...

Dantzari tikiak pilota-lekuan aritu ziren, eta jende aunitz bildu zuten, ondotik pilota partida ere baitzen. Bazkarian 75 lagun elkartu ziren, eta Joxe Anjel akordio-lariakin, umore onez kantu eta dantzak izan ziren gaua arte.

Heldu den urtean iparraldera gain da besta hau, Sara edo Ainhoak antolatuko baitu.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Iñak, Oihana, Maialen eta Asier, lehen jaunartze egunean.

Lehen jaunartzea

Gure herri tiki hauek, gauza aunitz elkarrekin egiten dira, hoietako bat Jaunartzea da.

Urdazubi eta Zugarramurdiko haurrek elkarrekin egiten dituzte Jaunartzeak, urte batean herri bateko elizan, eta bertean bertze herrikoan, txandatuz.

Bainan aurten ez da hala gertatu, kominiatu

duten guztiak, kasualitatea, zuamurdiarrak baitziren. Eta, kasualitatea ere, heldu den urtean kominiatuko direnak, denak urdazuiarrak izanen omen dira.

Bidazi elkarteak

Sortu berria den kontsumitzaileen elkarte bat aurkeztu zen zuamurdiar eta urdazuiarre, ekainaren 4ean.

Bidazi elkarteak, bertzeren artean, gure inguruko produktuak kontsumitzea du helburu. Modu hortan gure nekazariak laguntzen ditugu, eta erosten ditugun janarien kalitatea segurtatzen dugu. Erosketak egin ahal izateko bazkide izatea beharrezkoa da, eta denda Beran dago. Informazio gehiago: bidazi.org.

BAZTAN

Berdintasun Planerako galdetegia prest

TTIPI-TTAPA

Baztango Udaleko Emakumeen eta Gizonen arteko I Berdintasun Plana egiten ari dira eta, egun, Diagnostik fase batean murgildurik daude; izan ere, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunarekiko nola baiteko "argazkia" osatu nahian dabilta. Sexuen arteko aukera berdintasun edo berdintasun ezari buruzko herritarren iritzia jakin nahi dute Balleko Etxean eta, horretarako, galdetegi bat sortu dute.

Galdetegia etxetik etxetik banatu da herri guztietan. Hauteskundeetan erabiltzen diren kuxkak paratu dituzte, jendeak haietan erantzundako galdetegiak utz ditzan. Jendea ibiltzen den lekuetan paratu dituzte. Akitzeko, jendea parte hartzen animatu nahi dute Balleko Etxetik, galdetegia motza baita eta 3 minututan bete daiteke. Udaleko webgunean ere zintzilikatu dute galdetegia.



GIZARTEA → EKAINAREN 1EAN

Senpertar ainitzek parte hartu du lurralde elkargo bereziaren aldeko manifestaldian

Franck DOLOSOR

6.000 lagunek parte hartu zuten ekainaren 1ean Baionan egin zen Lurralde Elkargo Bereziaren aldeko manifestaldian, hauen artean senpertar ainitzek. Hautetsiez gain, auzapez anderea buru, herritar frangok ere esku hartu zuen mobilizazioan, hauen artean gazte ainitz zelarik. Frantzia deszentralizatzeko hiru garren prozesuaren barnean, egitura berria sortu nahi dute Iparraldean hurbiltasun gehiago izateko erabakigunekin, garapen ekonomikoa eta herritarren ongizatea hobetzeko, eta koherentzia gehiago erdiesteko tokiko kudeaketan. Baionako merkataritza ganbarak, auzapezen %65ak eta 7 legebiltzarkideetatik seik nahi dute aldaketa instituzionala. Manifestaldiaren hondarrean gehiengoaren nahia entzutea, kontuan hartzea eta gauzatzea galdetu zioten François Hollanden errepublikako presidenteari. Ondoko egunetan, euskal hautetsiek eskaera hau Pariserat eramanen dute.

Auzapeza etxerat

Sorpresa handia gertatu da duela egun batzuk Christine Besonart auzapezak jakinarazi duelarik ez due-

la bere burua aurkeztuko 2014ko herriko etxeko hauteskundeetan. Badira 30 urte hautetsi dela, auzapez orde gisa lehenik, oposizioko buru gero eta auzapez 2001az geroztik. Orain, erretiroa hartzea deliberratu du nahiz eta ez duen arras baztertzen bertze lehietan parte hartzea, kontseilari nagusi izateko konparazione. Senperen hiru zerrenda aurkeztu izan dira beti azken bozetan. Ondoko egunetan jakinen da nork hartuko dituen auzapezaren taldearen giderrak eta zer egingen duten eskuineko eta ezker abertzalearen zerrendek.

Gertakari hitsak

7 urteko presondegi zigorra eman diote berriki Senperen bizi den gizon bati urteetan alaba bortxatzeagatik. 27 urteko herritarrek aita salatu zuen 8 eta 16 urte artean bortxaketak jasan baitzituen.

Bertzalde, bi sute izan ditugu berriki herrian. Hergarai auzoan, 67 urteko emazte baten etxea osoki erre da. Kea sentitu eta lasterka auzokoen etxerat eskapatzeari lortu zuen emazteak minik hartu gabe bainan bere etxean fitsik hartu gabe. Egun batzuk lehenago garrak lotu ziren Ibarrunen Esko-



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Jendetza bildu zen Baionan ekainaren 1ean lurralde elkargo bereziaren alde.

la taberna gainean den apartamenduan. Hor ere kalte handiak izan dira eta suhiltzaileek baliatu duten ura behean den ostaturat isuri da makur handiak sortuz.

Hitzorduak

Ondoko egunetan ere hitzordu andana izanen dugu herrian: 21ean musikaren besta, bi egun geroago parropiak apailatzen duen kermeza bere bazkari eta afari herrikoiekin, eta ondoko asteburuan 28tik uztailaren lehen arte Jondoni Petrikari Senpereko nagusiaren bestak. Bertzalde, gogoan hartu selauru hustea egingen dela agorrilaren 25ean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Hiru Soinuren diska

Ereiaroaren 21ean musikaren besta ospatuko da eta karia hortarat, Hiru Soinu Senpereko laukoteak bere lehen diska plazaratuko du Agorila disketexearekin. Diska berriki grabatu dute Beskoitzen eta Amotzeko besten kariatarat aurkeztu dute taulen gainean. Orain herriz herri ibiliko dira. Ondoko egunetan luze eta zabal aipatuko dugu berriz Hiru Soinu taldearen lehen diska hau.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

Langile autonomoak	Diru-laguntza ezberdinak
Nekazariak eta mendi langileak	Kontabilitateak
Nominak eta Aseguro Sozialak	IVA eta IRPF
Lan-Kontrabutarako laguntzak	Errenta aitortpenak
Enpresa berri ezberdinen sortzea	Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
amaio@artekari.com	Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

LESABA: Biltzila, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

SARA

KIROLAK → IZEN EMAITEA 5 EUROKOA IZANEN DA

XII. mendi bizikleta ibilaldia egingen da ekainaren 23an

Bi ibilaldi proposatuak dira, bat 20 kilometrokoa eta bertzea 35ekoa

Joana GUERENDIAIN

Ekainaren 23 n, igandearekin, mendi bizikleta edo BTT ibilaldia egingen da Saran. Bizikletariak goizeko 9etan abiatuko badira ere, izen emateak 8etan idekiko dira. Bi ibilaldi proposatuak dira bat 20 kilometrokoa eta bertzea 35ekoa. Gazteek heldu batek lagunduta joan

beharko dute. Kaskoa behartua da eta lizentzia edo medikuaren agiria aurkeztu beharko da. Izen ematea 5 eurokoa izanen da.

Goraki taldearen kantaldia

Goraki taldeak kantaldi bat emanen du elizan ekainaren 18an, heldu den asteartean gaueko 9etan. Sartzea 10 eurotan da eta tokiak aitzinetik erosten ahalko dira turismo bulegoan.

San Josepe eskolaren besta

San Josepe eskolaren besta ekainaren



ARGAZKIA: ELODIE GARAT

Sarako Urtxintzak

Gure urtxintzek sasoina bukatu dute! Txomin Bereau eta Rosine Saint Martinek eramanik final erdietara iritsi dira Lucq de Béarn-eko taldearen kontra baina ez dituzte gainditu. Joaneko partida maiatzaren 19an jokatu zuten eta galdutako 16-11, itzuliko partida aldiz irabazi zuten 18-15 baina ez zuten puntu aski egin finalera joateko. Sarako urtxintzek sasoin ederra egin dute eta heldu den urtean "excellence" mailan arituko dira.

22an ospatuko da polikiroldegian. Arratsaldeko 6etan haurrek urte bukaerako ikusgarria emanen dute eta ondotik denari idekia izanen den afaria zerbitzatuko da.

Saiberri

Sarako urtxintzek ekainaren 26an kantaldia antolatu dute elizan. Talde gonbidatua Saiberri Sarako taldea izanen da, sartzeak 7 euro balio du.

Talde kubatarra

Los Jubilados de Santiago de Cuba taldeak kontzertua eskainiko du ekainaren 16an, 19:00etan kiroldegian, Ikasbiren festaren bukaera.

BORTZIRIAK
expert

KONPONKETAK
ere egiten ditugu

%20
DESKONTUA
SUKALDE
ALTZARIETAN

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortziriak.com . www.bortziriak.com



Martzutzak
ZURE OSPAKIZUNETARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA

- ♥ Soinekoak
- ♥ Ilerrako apaingarriak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria

Bidasoa, 12 • BERA
948 631 425

EZKONTZAK

Yannick Calvet eta **Claire Boucher**,
Sarakoak, maiatzaren 25ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



kukuka
kukuka-n bainujantzi bat erosiz gero

Kimatz
Behar duzuna %15eko deskontua eguzkitako kremari

Zazpigarren, 1 • DONEZTEBE • 948 460 252

SORTZEAK

Olaia Deskarga Ariztoi, Iturengoa,
maiatzaren 27an.

Nicole Demina Caballero, Sunbilla-
koa, maiatzaren 17an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



Rekordatorioak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

ttipi-ttapa
Herrikoitako b. 7 | 115944 | 948 635 458

HERIOTZAK

Antonio Etxeberria Irigoien, Sunbilla-
llakoa, maiatzaren 25ean, 89 urte.

Gregoria Erasun Iriarte, Lesakakoa,
maiatzaren 25ean, 75 urte.

Francisco Javier Bereau Elizalde,
Etxalarkoa, maiatzaren 25ean, 79 urte.

Maria Josefa Etxenike Arrijuria, Iru-
ritakoa, maiatzaren 29an, 71 urte.

Beatriz Fagoaga Azkona, Berakoa,
ekainaren 1ean, 96 urte.

Julian Zabalera Gogortza, Leitzakoa,
ekainaren 3an, 77 urte.

Jean Louis Darboure, Sarakoa, maia-
tzaren 27an, 56 urte.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

LEKUNBERRI | BERA (SAN JOSE) | LESAKA | ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | BETELU
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

RUGBYA → LEKAROZEN MAIATZAREN 25EAN

Nafarroa Behereko taldea nagusitu da Euskal Herriko rugby txapelketan

12-10 irabazi zion finalean Zuberoako Barkoxeko taldeari

TTIPI-TTAPA

Ipar Euskal Herriko taldeek rugbyari gehiago direla erakutsi dute aurtun ere. Maiatzaren 25ean jokatu zen Lekarozen Euskal Herriko rugby txapelketa. Eta 200 bat rugbyzale bildu ziren. Final handian, Donibane Garazi eta Baigorriko kirolariak bil-

tzen zituen US Nafarroa Rugby taldeak 12-10 irabazi zieten Zuberoako Barkoxeko Avenir Rugby Taldeari. Beraz, irabazleen txapela eta harri gorri egindako oroitarria Behe Nafarroara joan da aurtun.

Hirugarren postua Gipuzkoako ordezkariak lortu zuen, Hernani Rugby Taldeak 12-7 irabazi baitzion Lapurdiko Sarako Izarrari. Bosgarren lekua Bizkaiko Durango Rugby Taldeak eskuratu zuen, seigarrena Arabako Gaztedi Rugby Taldeak eta sa-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Nafarroa Behereko eta Zuberoako taldeak elkarrekin, finalaren aitzinetik.

ilkapena Nafarroa Garaiko bi taldeek itxi zuten, Iruñeko La Única eta Baztan Rugby Taldeak.

Aurtengoan lehen aldiz Hegoaldean egin da Euskal Herriko rugby txapelketa eta Baztan RT-Menditarrak izan da antolatzailea. Behin txapelketa bukatuta, zikloro-jatea izan zen, Baztan Ikastolaren alde eta 150 bat lagun bildu ziren.

Oraindik ez dago ar-

gi non ospatuko den 2014ko txapelketa baina Baztanen egondako talde pare batek txapelketa antolatzeko erronka beren gain hartzeko gogoia erakutsi zuten, beraz txapelketak jarraipena izanen du. Aurtun beti ere txapeldu-naren garaikurrak Galarazi-Baigorri igaroko du urtea, aitzineko bietan Donapaleun (2011) eta Ustaritzen (2012) igaro dituen bezala.

II. Rugbyaren Eguna larunbatean Lekarozen

Bertze aldetik, ekainaren 15ean, II Rugbyaren Eguna antolatu du BRTk Lekarozen. 11:00etatik 13:00etara rugbyaren inguruko joakoak izanen dira mutiko eta neskendako eta 13:00etan hirugarren denbora eta jokalariei ohien arteko norgehiagoka.

TXIRRINDULARITZA → ELITE ETA SUB-23

Nafarroako txapelketa eskualdeko errepideetan erabaki da aurtengoan

Sergio Tejada eta Erik Altuna dira txapeladun berriak

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 25ean burutu zen eskualdeko errepideetan Igantziko Biltokik antolatutako Bidasoaldeko II. Saria. Euskaldun txapelketarako puntuagarria izateaz gain, Nafarroako elite eta sub-23 txapel-

ketak ere bertan erabaki ziren. Karrera Lizarteko Victor Martinek irabazi zuen (03:16:10) eta Higinio Fernandez taldekidea izan zen bigarren, 5 segundora. Seguros Bilbao taldeko David Casillasek eskuratu zuen podiumeko hirugarren koxka.

Nafarroako txapelketari dagokionez, elite mailakoa Kanpazar Harrobiko Sergio Tejadak irabazi zuen, nahiz 33. izan sailkapen oroko-



UTZITAKO ARGAZKIA:

Victor Martin irabazlea, Fernandez eta Casillasekin batera Igantziko podiumean.

rrean, irabazleak baino 9 minutu eta 20 segundo gehiagorekin. Sub-23 mailakoak hobeki ibili ziren. Telco'm taldeko Erik Altuna izan zen txapeladun. Sailkapen orokorrean seigarren izan zen, irabazleak bai-

no 15 segundo gehiagorekin. Etxeko txirrindulariak, Gipuzkoa-Eki Sport taldeko Beñat Txoperena ere ongi ibili zen eta bederatzigarren sartu zen helmugara. Bigarren izan zen 23 urtez beheitiko Nafa-

roako txapelketan, herriko zaleen txalo artean. Talderik hoberena Lizarte izan zen.

Euskaldun txapelketarako baliagarria zenez, 130 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten.

PILOTA → EKAINAREN 2AN

Josetxo Ezkurra XXIII. Memorialaren finalak jokatu dituzte Elizondon

190 pilotari aritu dira hamar kategoriatan banatuak

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 2an, igande goizean jokatu ziren Elizondon Txaruta pilota elkarteak Baztango Udalaren laguntzaz antolatzen duen XXIII. Josetxo Ezkurra Memorialaren finalak. Hamar kategoriatan banatuak 95 bikote (190 pilotari) ari-

tu dira txapelketa honetan. 250 partida baino gehiago jokatu dira martxo, apiril eta maiatzean Irurita eta Elizondoko pilotalekuetan. Lehenbiziko aldia da finalak Elizondon jokatu direla.

Txikien mailan, Lezakako Oihan Etxeberria eta Beñat Etxabidek 18-16 irabazi zieten Berako Adei Villamea eta Ande Maritorenari.

Umeak B mailan, Arbizuko Iraitz Imaz eta Mikel Imazek 18 eta 11

irabazi zieten Oronoz Mugairiko Miren Altxu eta Txomin Altxuri.

Umeak A mailan, Amaiurko Mikel Ariztia eta Beñat Etxebere 18 eta 14 irabazi zieten Andoingo Arrillaga eta Zubizarretari.

Kimuak B mailan, Iruritako Iker Casillas eta Elizondoko Omar Sanchezek 18 eta 15 irabazi zieten Elizondoko Victor Urrutia eta Arizkungo Eki Larralderi.

Kimuak A mailan, Zizurko Josu Igoa eta Txo-

min Zabaltzak 18 eta 10 irabazi zieten Elizondoko Axier Ballarena eta Lekarozko Oier Ariztegi.

Haur B mailan, Oiarzungo Oroitz Sein eta Oihan Lopezek 18 eta 7 irabazi zieten Mutiloako Asier Maia eta Esteribarko Ander Beteluri.

Haur A mailan, Donostiako Julen Albisu eta Erkitz Migezek 18 eta 8 irabazi zieten Oiarzungo Imanol Ugalde eta Ekain Etxeberriari.

Kadete B mailan,

Mendillorriko Mikel Mayora eta Garcia 18 eta 14 irabazi zieten Ultzamako Xabi Aizpuru eta Jon Arceri.

Kadete A mailan, Jon Ander Peñak eta Ander Urdanpilletak 22 eta 7 irabazi zieten Elizondoko Iñaki Antso eta Sergio Oskoz-i.

Gazte mailan, azkenik, Iruñeko Donibane-ko Joanes Bakaikoa eta Ruben Medinak 22 eta 13 irabazi zieten Berako Ander Errandonea eta Iñigo Martinez-i.



ARGAZKIA: FOTO ZALDUA

Josetxo Ezkurra Memorialean saritutako pilotariak.

ATLETISMOA → MAIATZAREN 26AN

158 korrikalarik parte hartu dute Goizuetako Krosean

Unai Señorán eta Vanesa Pacha garaile

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 26an, jokatu zen Umore Ona elkarteak antolatutako Goizuetako krosa eta eguraldi bikaina egin zuten. Denera 158 korrikalari atera ziren, 76 txikien kategorietan eta 82 proba nagusian. Gizonzkoetan Irurako Unai Señorán eta emakumezkoetan Iraizozko Vanesa Pacha izan ziren irabazleak.

Txikiek ere izan zu-

ten aukera korrika egiteko, denera 76 neska mutikok hartu zuten parte bi kategoritan eta denentzat izan zen oroi-garriren bat.

Helduen laisterketan 82 pertsonak zuten ize-na emanda eta gizonzkoetan lehenengoa, Irurako Unai Señorán Bengoa izan zen, honek 3 kilometroko zirkuitoari hiru itzuli emateko 32:04 minutu behar izan zituen, benetan marka ederra. Bigarren Aitor Etxeberria Igeldoarra izan zen 30 segundora eta hirugarren Zumaiko Martin Amilibia izan



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Gizonezkoen, emakumezkoen eta herritarren podiuma.

zen, hau 33 segundora iritsi zen.

Emakumezkoen artean, irabazlea, Iraizozko Vanesa Pacha izan zen eta honek 36 minutu eta 36 segundo behar izan zituen ibilbidea osatzeko, bigarren Oreretako Leire Fernandez gaztea eta hirugarren Hernaniko Karen Ortiz de Guínea izan ziren.

Herritarren artean, gizonzkoetan onena Martin Etxeberria izan zen eta sailkapen orokorreko bederatzigarren lekuan iritsi zen gainera (36:00) lehenengo emakumea Ane Zinkunegi izan zen (52:28).

Laisterketa bukatuta dutxatzeko aukera izan zen eta ondoren sari bana-keta eta zozketak egin

ziren eta hamaiketako ere eskaini zitzairen parte hartzaile guztiei.

Eguna oso ongi joan zen eta antolatzaileek iaz berreskuratutako ohiturari jarraipena emanez, balorazio ona egin dute. Iazko parte hartzaile kopurua igo egin da eta 2014an arrakasta haundiago izan dezan lanean jarraituko dute.

ekainak 13 - 27

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Ospakizunak



URROZ | 2013.06.22

**Aurten bigarren aldiz
Artisan Eguna eginen da**

Joan den urteko Artisan Egunak izandako arrakastaren bidetik, aurten bigarren aldiz antolatu dute Urrozen. Egun osoko besta izanen da.

Hitzaldiak




BERA | 2013.06.01

**San Migel zubiaren inguruko
solasaldi sorta**

San Migel zubiko gertakarien bigarren mendeurrenaren harira, ekainean hainbat hitzaldi eskainiko dira: hilaren 7koaren ondotik, hurrengoak 14an, 21ean eta 28an.

Erakusketak



ELIZONDO | 2013.06.18

**Uholdeen mendeurrenaren
harira argazki erakusketa**

Ekainaren 30era arte ikusgai egonen da *Elizondoko uholdeen 100 urteak* izeneko erakusketa. Jorge Oteiza Etnografia Museoa, Ziga Bilduman.

LEITZA

**Entrenamendu
mentalaren saioak**

Ekainaren 21ean kiroldegian eta **22an** zineman.

Antzerkiak

BERA

**Bat-bateko antzerki
saioa**

Ekainaren 22an *Casting, ya te llamaremos*, Kultur Etxean (20:00).

DONEZTEBE

Irrien Lagunak

Ekainaren 27an Irrien Lagunak emanaldia kiroldegian (18:00). Sarrera: 7 euro.

Erakusketak

BERTIZ

**Ziga eta Fernandez
argazki zaharrak**

Ekainaren 30era arte Pedro Ziga eta Dorotea Fernandez azken jabe partikularren argazki zaharrak Natur Parkean.

Zer da zuretzat basoa?

Ekainaren 30era arte *Zer da zuretzat basoa?* margo eta argazki lehiaketako lanak ikusgai Natur Parkean.

ELIZONDO

100 urte uholdeak

Ekainaren 30era arte *Elizondoko uholdeen 100 urteak* erakusketa Jorge Oteiza Museoa.

ARIZKUN

Argazki erakusketa

Ekainaren 15 eta 16an Baztandaren Biltzararen 50. urteurreneko argazki erakusketa Goitiko elkartean.

Solasaldiak

BERA

**San Miguel zubiaren
inguruko solasaldiak**

Ekainaren 14an *Efectos de las guerras en Navarra a lo largo del siglo XIX* Eduardo Mar-

tinez Lakaberekin, Beralandetan (19:30). **Ekainaren 21ean** *Askatzaile faltsuak, benetako borrarroak: emakumeen bortsaketa sistematikoak eta biztanleria zibilaren sarraskia Donostian 1813an*, Lola Valverderek, Beralandetan (19:30). **Ekainaren 28an** *Efectos de las guerras sobre la población de Bera y de Bortzirak a lo largo de la historia. 1813: el episodio más dramático*, Fernando Mikelarenarekin, Beralandetan (19:30).

LESAKA

Gurasoentzat hitzaldia

Ekainaren 15ean *Gure haurrei nola lagundu* pardela kentzen beren heldutasun-maila errespetatuz hitzaldia Udaren erabilera anitzeko aretoan (10:30-12:30). Izena emateko: besarka.dabortzirak@gmail.com edo 646 373936.

SUNBILLA

**Mikel Tabernarekin
bere azken liburuaz**

Ekainaren 13an *Alkasoroko benta* liburuaz Herriko Etxean (20:00).

ELIZONDO

**'Gure esku dago'
dinamika**

Ekainaren 20an Gure esku dago dinamikaren aurkezpena, Arizkunenean 19:00etan.

Elikadura burujabetzaz

Ekainaren 13an Mikel Altzuart, Felix Ligos eta Tasio Erkiziarekin Arizkunenean, 19:30ean.

Ikastaroak

LESAKA

Entrenamendu mentala

Ekainaren 16an Dasya zentroan, 09:00-13:00.

Bestak

ARIZKUN

Sanjuanak

Ekainaren 21etik 25era.

SALDIAS

Sanjuanak

Ekainaren 21etik 24ra.

ERRATZU

Sanpedroak

Ekainaren 28tik uztailaren 1era.

DONEZTEBE

Sanpedroak

Ekainaren 28tik uztailaren 1era.

SENPERE

Jondoni Petrikari

Ekainaren 28tik uztailaren 1era.

BERA

Altzateko bestak

Ekainaren 14tik 16ra.

LEITZA

Gorritarango bestak

Ekainaren 30ean.

Kontzertuak

BERA

Bera kantari

Ekainaren 29an, 19:00etan Illeketan.

PROPOSAMENA

ESKUALDEA

**Sanjuanak eta
sanpedroak**

Herri batzuetan dagoe-neko ospatu dituzte bestak, baina uda hurbiltzen ari den neurrian, gero eta gehiago nagusituko da besta giroa. Arizkun eta Saldiasen sanjuanak ate joka daude, eta ondotik, Erratzuk eta Doneztebek hartuko dute lekukoa sanpedroak ospatzeko. Denetan ere egitarau ederrak besta on batzuk pasatzeko.



SARA

Gorakiren kantaldia

Ekainaren 18an,
21:00etan elizan.

'Los jubilados de Santiago de Cuba live'

Ekainaren 16an,
19:00etan kiroldegian.

Ospakizunak

URROZ

Artisau Eguna

Ekainaren 22an.

LESAKA

Euskaraz Bai Eguna

Ekainaren 23an.

ELIZONDO

**Baztango Musika Eskola-
ren 25. urteurrena**

Ekainaren 15ean.

Baztango artisau azoka
Ekainaren 22an.

ETXALAR

**Kultur Etxearen 10.
urteurreneko ekitaldiak**

**Ekainaren 14, 15, 20
eta 21ean.**

Mendi ateraldiak

BERA

Arkupeak-en ateraldia

Ekainaren 19an Bera-
tik Larunera, 09:00etan.

GOIZUETA

'Goizueta ezagutzen'
bosgarren ateraldia

Ekainaren 23an 09:00-
etan plazatik abiatuta.

ITSASU

Hiru kasko irteera

Ekainaren 22an Bida-
rraitik Itsasura.
www.hirukasko.org.

ZUGARRAMURDI

Elizondora irteera

Ekainaren 23an Eli-
zondora Atxuria Mendi
Taldearekin.


BAZTAN

Herri herri itzulia

Ekainaren 16an Baz-
tan herri herri Baztan-
go Mendigoizaleekin.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Egia esan

PERU MAGDALENA

Elkar, 2013

Arri aita desagertu zenetik hankamotz dabil Kimu semea. Barruko puzzlea berregin eta aitararen zuztarretaraino heldu nahian, aita aspaldi eginiko bidaia berregiten du semeak, eta horretarako aitararen lagunek eskuratu dioten koaderno beltza erabiliko du aitararen bidaia nolakoa izan zen jakiteko. Aita zoroa, aita artista, aita ganorabakoa, aita bizizalea. Haren lorratzari segika, ezinbertzean, norbere barruraino doan bidaia batean murgilduko da Kimu. Egilearen hitzetan, «nagusiki aitatasunaren inguruko hausnarketa bat da, bi aita-semeen arteko erlazioen inguruko testigantza bat». Narrazioari harilkatutako era aunitzetako testuak erabili ditu Peru Magdalena egileak –kantak, poemak, jendearen lekukotasunak–, hegaldi baten antza hartzen dutenak: itxuraz xede jakinik ez baina beti gora, libre, gure begien menara eta aldi berean gure eskuetatik urrun...

Musika



Egunsenti berri
baten bila

ZAIN

Baga-Biga, 2013

Zain talde bizkaitarraren bigarren diskoa da *Egunsenti berri baten bila* eta lau atal nagusi ditu: melodiak, gitarrak, rock-popa eta hitzen ikuspuntua. Orokorrean punk doinuen presentzia gutxitu egin da kantuetan, nahiz eta zertzelada trinkoak dauden (*Betiko handikeria* kasu). Zain taldeak poparen melodiak eta rockaren abiadura era goxoan uztartzeko abilezia du eta maitasuna jarri dute doinu eta hitzen indarrean. Musika disfrutatzear gain, kulturaren eta bizitzaren suntsiketari kritika zorrotza egiten zaio. Melodiak ere garrantzi berezia du. Izan ere, ahots nagusiaz gain, talde guztiek parte hartzen baitute koroak eginez. Bi kolaborazio ere badituzte diskoan: Governors taldeko Juan Sangreren *Goitibehera* abestian, eta Mikel Keixetaren *Moden korrante iluna* kantuan. Taldearen lehenbiziko lana *XXI. Mendeko piratak* izeneko diskoa izan zen.

Internet



Iparaldeko Euskara
Mankomunitatea

WWW.IPARMANK.ORG

Nafarroako Iparaldeko Euskara Mankomunitateak web orria paratu du abian. Hiru eskualdetan antolatutako launa udalerrik osatzen dute Euskara Mankomunitatea eta tartean, Leitza, Goizueta, Areso eta Arano daude. Web orrian euskararen egoeraren inguruko informazioa jaso dute, eta egoera hori suspertzeko antolatzen diren egitasmoen berri ematen da. Mankomunitatearen atalean, planak eta aurrekontuak daude; Euskaraz Bizi atalean, euskaraz bizi ahal izateko antolatzen diren egitasmoak. Euskara ikasteko eta sustatzeko ematen diren diru-laguntzak eta bekak ere ageri dira. Mankomunitatearen barrutian euskararen alde ari diren eragileek eta argitalpenek ere badute atala. Eta edozeinek parte hartzeko aukera ere bada. Itzulpenak eta zuzenketak egiteko zerbitzua erabil daiteke, adibidez. Han edo hemen antolatzen diren ekitaldi eta egitasmoak agendaren bidez iragarriko dituzte, eta edonork bidai dezake proposamena. Twitterren ere badu kontua.

Nire aukera



Jacinto DOMINGEZ
Saldiasoko alkatea

**«Herri ttikiak ditut
gustoko, harrera
beroagoa egiten
dietelako bisitariei»**

Ekainaren 23 eta 24a ongi seinalatuta ditu egutegian. Lana eta besta elkartuko zaizkio egun horietan, baina «gogotsu» hartuko ditu aurten goan ere alkateak herriko bestak. Azaldu digunez «egoera ekonomikoak eta herriaren gaitasunak agintzen du egitea osatzeko orduan», baina «ahalegina eginda, urtero bezalaxe, haur, gazte eta helduentzako moduko ekintzak antolatu» dituztela dio. Bere ziki jaien hasiera eta herri bazkaria gomendatzen ditu «sortzen den giro ederragatik». Bestak amaitu ondotik atsedenerako tarte hartzen du «aste pare batez emaztearekin oporretara joateko ohitura dut». Maletrrekako herri ttikienean bizi da eta oporretan ere giro hori bilatzen du «ingurune lasaietara jotzen dut, landa edo kostara, baina hirietako parafernalia-tik urruti». Arrazoi argia dago aukera horren atzean «herri ttikiak ditut gustoko harrera beroagoa egiten dietelako bisitariei. Gainera, «lekua hobeki ezagutu eta jendareekin harremana egiteko aukera gehiago dauka hiri handietan baino».

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONÓZ-MUGAIRI.

Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milioi pezeta/100.000 euro. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- Aukera: 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

ERATSUN. Hiru borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

ELIZONDO. Herri erdian pisua saldu edo errentan emateko. 3 logela. Berogailua. Mobleztatua. Aukera hagitza ona, 100.000 euro. ☎676 707620.

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

LESAKA. Logela bateko apartamentu berria errentan emateko pertsona bat edo birezako, mobleztatua eta garajearekin. Herri erdian dago, plaza ondoan. ☎675 714360.

IRUÑEA. Paulino Caballero karrikan pisua errentan emateko. 3 lo-

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

gela, jangela, komuna eta sukalde. Mobleztatua. Unibertsitatetik 5 minutura. ☎647 992350.

SUNBILLA
ERAIKIN BERRIA
Pisua • Garajea
Trastelekua
120.000€ hasita
T.F.: 948 10 98 18
607 94 67 85

ETXEBIZITZAK
errentan hartzeko

LESAKA-BIDASOA. Pisu edo etxe ttiki bat lur pixka batekin errentan hartuko nuke. Hilabetean 350-400 euro ordaintzeko prest. Interesatuak deitu 16:00etatik aitzinera. ☎636 777478.

ELIZONDO. Ohiko etxebizitzarako errentan hartzeko etxe bila dabilen irakaslea naiz. ☎689 953883.

ETXEBIZITZAK
konpartituak

DONEZTEBE. Pisua konpartitzeko, Merkatarien Karrikan. Garajea hartzeko aukerarekin. Prezio onean. ☎617 792401.

GARAJEAK/LOKALAK
errentan emateko

LEKUNBERRI. Goiko lore-denda traspasatu edo errentan emateko, arreta emateko zailtasunengatik. ☎667 848832.

LURRAK/ORUBEAK
salgai

SALDIAS. 1.500 m²ko lur eremu laua salgai. Asteburuetarako egokia, aisialdirako. Kotxeentzako sarbide egokia. Oso eguzkitsua. Bista panoramiko ederrak. Antenarako bidean. Prezio interesgarria. ☎616 264219.

ETXALAR. Lurzati eraiki-garria salgai, 2.000 m². Kotxeentzako sarbidearekin. Ura eta argia. Exekuzio proiektua eta Udaren baimenarekin. Bista ezin hobeak. Udaltxetik 250 metrora. 92.000 eurotan. ☎678 099422.

DONAMARIA. 1.200 m²ko lur eremua salgai. Asteburuetarako aproposa, fruta arbolekin. Prezio onean (ordaintzeko erraztasunekin). ☎646 376331.

LANA
eskariak

ESKUALDEA. Emakumea interna bezala lanean ariko litzateke. ☎682 321453.

MALERREKA-BAZTAN. Larunbat gauetan eta igandetan lan eginen nuke otorduak ematen edo barran. ☎686 998360.

BAZTAN. Arkitekaturako ikasle bat naiz, eta udan Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergo mailako klase partikularrak emateko prest nago. ☎680 187344.

Esperientziadun **sukaldariak** lan eginen luke, jarraian, estra edo bes-tetan. ☎948 634010/667 858965.

LANA

eskaintzak

URROZ. Adineko bat zaintzeko neska bat behar da, interna moduan aritzeko. ☎660 972692.

MOTORRAK

salgai

Nissan Almera Tino 1.8 monobolumena salgai. 5 atekoa. Gasolina. 2005 urtekoa. 68.000 km. ITV bi urterako pasatu berria. ☎628 572273.

Nissan Pick-up salgai. Oso egoera onean. 160.000 kilometro. Mendian ibili gabea, 2005-ekoa. ☎667 848832.

ANIMALIAK

oparitzeko

Rottweiler arrazako **zukurra** oparitzeko. ☎670 542571.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(Maiatzaren 24tik 31ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 44 € (-1,00)

Zerri gizena
1,326 € kilo. (=)

Zerramak:
0,780€ Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,28
1.koa 4,02
2.koa 3,87
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,34
1.koa 4,06
2.koa 3,92

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 135,00
idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:
urruxak 155,00
idixkoak 165,00
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,00/3,10
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,90/6,00
8-10 kilokoak: 4,60/5,30

Zakurrak oparitzeko, ar bat eta eme bat, Border Collie - ardizakurra arrazakoak. Oso politak eta argiak. ☎652 729101.



Hiru **katakume** oparitzeko. Hagitz mantsoak. ☎626 644420.

Katakumeak oparitzeko. ☎607 119094.

ANIMALIAK

salerosketak

ETXALAR. Setter ingeles zakurkumeak salgai. Pedigridunak. ☎620 036553.

BERA. Border Collie arrazako zakurkumeak salgai. ☎948 631022/688 609905.

Asto arra eta emea ernari salgai. Arras ederrak, bazterrak garbitzeko aproposak. ☎627 735113.

DENETARIK

zerbitzuak

ROSAL BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu orduak
☎ 948 272011 (IRUNIA)
☎ 948 580975
Jaime Urutia 42-2.D - ELIZONDO

Diana Iniesta psikologoaren kontsulta Erratzun, etxez-etxe edo Internet bidez. Interesatuak deitu 948 453478ra edo idatzi diana.iniesta@hotmail.com helbidera.

DENETARIK

zurgindegiak

ARANTZA
Zurgindegia
Klase guztietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontuak konpromisoak gabe
Jose Miguel Errozkina
Tel: 948 634 008 - 447 810 144
Gertaketa: ARANTZA

DENETARIK

salerosketak

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287/ ☎699 461394.

BAZTAN, MALERREKA eta **BORTZIRIAK.** Egur loteak egin, materialetarako arbolak bota eta ateratzen dira, prezio oso onean. ☎600 789034.



Ekonomika kalefaktora salgai, gutti erabilia eta egoera onean (800 euro). ☎629 540549.



ekaineko zk. saritua 1.923

Bi lagunendako bazkari bat

Sarituen hilaren 30a baino lehen delta behar du Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatera

948 63 52 54

BERAKOUDALA

TOKIKO GOBERNU BATZORDEAREN AKORDIOA HIRIGINTZA

Berako Udaleko Tokiko Gobernu Batzor-deak, 2013ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, M^a Carmen Irazoqui Irazoqui eta José Luis Oyarzabal Lecuona-k sustatutako Sk2ko UE9ko Xehetasun Azterlana 9. poligonoko 1. eta 9. lur-zatiei dagokiona (Kaxerna ingurua), onetsi zuen hasiera batez.

Espedientea jendeaurrean izanen da 20 egunez, dagokion iragarria NAOn argitaratu ematen denetik.

Bera, 2013.05.24
ALKATEA,
M^a Sol M. Taberna Iratzoki

SANTESTEBAN TAILERRAK

ESPACE PRIVILEGE 2.0 DCI 175 CV 2007 urtekoa - 58.000 km

KANGOO AUTHENTIQUE 1.5 DCI 70 CV 2007 urtekoa - 50.000 km

KANGOO FURGOON 1.5 DCI 70 CV 2010 urtekoa - 33.000 km

ETA GAINERA:
Hyundai Galloper 2.5
Peugeot 206 1.9 70 CV
Megane III Dynamique 1.5 DCI 110 CV
Megane Sport Tourer 1.5 DCI 110 CV

KILOMETRO 0 etan prezio ezin hobeak!!!!

EZ DIGU EDOZEINEK SALTZEN

GRUPO-RENTIZERAKO 299€

MOTOZERROK 199€

HESKAI-MOTZEKOAK 299€

AGRICOLA BIDASOA
Auzolan, 16 20303 IRUN
T. 943 627 331
agribidasoa@gmail.com

STIHL **VERING**

emakumearen eguna

V. Pintxo Lehiaketa DONETXEN
Apiril 16, martxo 17

V. Concurso de Pintxos SANTESTEBAN
Martxo 17, 18 eta 19

50 kartel A3 (30,3cm x 42,6cm)
Koloretan
135g
Diseinua + inprenta + garraioa
BEZa barne
Epea: 10 lan egun

85€

ttipi-ttapa
Kontsultak bidez, 7 - 11 31770 LESAKA
948 635 458 | www.ttipi.net | info@ttipi.net

urtebetetzeak

Argazki soilak: 4€; bikoitzak: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,37€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txakea; 4) www.ttipi.net bitartez



Ornozko AITOR BARAIBAR GORTARI gizontxo bi-hurriak 6 urte bete ditu ekainaren 8an. Muxu haundiak ama, atxa eta bereziki Maiale-nen partetik.



Amatri MARGARIK urteak beteko ditu ekainaren 17an. Aunitz urtez eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Unai ALZUGARA ARANBILLET beratarrak 9 urte bete ditu ekainaren 4an. Zorionak Almandozko familiaren partetik.



MIKELDI LIZARDI ABASOLO arantzarrak urte bat bete du maiatzaren 21ean. Zorionak moñoño zure familia guztiaren partetik, bereziki Iratiren partetik. MHB.



Senpereko FRANCK eta INAKIK urteak bete dituzte maiatzaren 16an eta 26an. Zorionak eta muxuak bie!



EKAITZ LOIARTE OTXANDORENA zubietarrak 5 urte bete ditu ekainaren 6an. Aunitz urtez! Zubietako familia, bereziki, Iker, Naroa, Garazi eta Uxue.



Legasako ANDER ZELAIETA EULATEK 3 urte beteko ditu ekainaren 13an. Aunitz urtez eta muxu handi bat Igantziko familiaren partetik.



Donamariako NAHIA eta EKAIN TELLETXEA ODRIEZOLAK 5 urte beteko dituzte ekainaren 21ean. Zorionak bikitos! Muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Sunbillako JOANES BERTIZ GRAJIRENAK 3 urte potolo beteko ditu ekainaren 12an. Aunitz urtez Beintza-Labaiengo eta Sunbillako familien partetik eta txokolatzeko muxu haundi bat aita, ama eta Urkiren partetik. Egun on-ona pasa! Muak!



Zubietako JONE INDAKOTXEA ZUBIALDEK ekainaren 8an 8 urte bete ditu. Zorionak familia guztiaren partetik, bereziki ama eta Landerren partetik. Jarraitu horrela panderojole! Muxu potolo bat! Muakkk!



Egoik ekainaren 19an urtea beteko du eta OLAIK ekainaren 26an 4 urte. Aunitz urtez anai-arreba polit hauei eta mila muxu potolo



Igantziko KATTALIN, gure sorgintxoak, ekainaren 2an 5 urte bete ditu eta ANDER lehengusuak ekainaren 8an urtea egin du. Aunitz urtez eta muxu haundi bana. Manex, ze lana duzun bitxito hauek zaintzen!!!



Iturengo OINATZ ELIZALDE LARRETXEAK 2 urte beteko ditu ekainaren 28an. Zorionak! Oizko familia eta bereziki Ander, Oier, Xabier, Irati, Aloña eta Alaitz.



Lesakako IZEBA Toñik urteak beteko ditu ekainaren 23an. Zorionak Nahia eta Ekainen partetik.



Neska polit honek urteak bete zituen ekainaren 5ean. Aunitz urtez guapisima eta muxu haundi bat!

ttipi txartelarekin beti irabazten da !

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRIUK

~%25eko DESGRABAZIOA ERRENTA AITORPENEAN

eskatu zurea 948 63 54 58 telefonon

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea 7, 31770 LESAKA

948 635 458 948 635 457

info@ttipi.net www.ttipi.net

AUTO TAILERRAK BERAUTO (BERA) %5 emankidetasun DATUCELAY (ELIZONDO) %10 batera eta amortiguazioetan SANGHENA (ELIZONDO) %5 olo atxaketaetan ZALAIN MOTOR (BERA) %5 emankidetasun	BIZIKLETA TAILERRAK KATEA-BIKE (BERA) %5 konponketetan	KIROLDEGIAK GILTXAURDI UDAL KIROL INSTALAZIOAK (ELIZONDO) %50eko deskontuak matrakulan. (Bukuntza: gutxienez urte bati batenako, bakoitza 1000€ baino gutxiago) LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA (LESAKA) (Abiturak 31 urte) Pertsona 1: %10 matrakulan. 2 pertsona: 1go pertsonak matrakula doan, bigarrenak hiru bate bat doan.	NUTRIZIOA ETA DIETETIKA OREKA (LESAKA) %5 kostuak eta produkt KIMETZ (DONEZTEBE) %5 kosmetikan. ELIKA (BERA) %5 kostuak.
AUTOESKOLAK SEMPER (BERA / LESAKA) %10 matrakulan	ESTETIKA ZENTRUAK AMARA (DONEZTEBE) %5 kosmetikan eta %10 opletetan SOKIK gora. Preskizioetan ez. ARRATE (DONEZTEBE) %10 "Skendor Eternus" kremetan	KIROL-DENDAK AGARA (BERA) %5 kirol artikuluetan INARLA (ELIZONDO) %5, 3000€ gora ZELA (BERA) %5 deskontua	OPARI-DENDAK ALUSTIZA (DONEZTEBE) %10, 3000€ gora
ARGAZKI-DENDAK GOIKO (BERA) %10 kopia digitalak MENA (ELIZONDO) %10 kopia digital. ZALDUA (DONEZTEBE / ELIZONDO) %10 produktuetan	ETXETHESNAK ALTZURI (LESAKA) %5 etxethesnetan	LENTZERIAK KATADORRIA (LESAKA) %10 lentzen MAMICRUZ (DONEZTEBE / ELIZONDO) %10, 3000€ gora gaurer	OPTIKAK INTZURI (LESAKA) %10 produktuz gaurer OSTARGI (BERA) %5eko deskontua
ARROPA-DENDAK BOOKAK (LESAKA) %10 deskontua EDURNE (BERA) %5, 3000€ gora FANTAIKE (ELIZONDO) %10, 3000€ gora IPINGI (ELIZONDO) %10, 3000€ gora JUAN J. PIKABEA (DONEZTEBE) %10, marka batzuetan izan ezik KATTALINGORRI (ELIZONDO) %10 des. KUKUKA (DONEZTEBE) %10 pijama eta banyo arropetan	FOTOKOPIAK/INPRENTA BORTZIRUDI (BERA) kopiatu, artikulazioetan eta inprentak partatu batenak Jargi, dena %5 desk. 5000€ gora	HAURREN GAUZAK POTOKI (ELIZONDO) %5 oparitzeko artikulak txikiak	PENTSUAK MENDAU (DONEZTEBE) %5 zakur eta katu pentsuan
JATETXEA POSADA OITZ (OITZ) %10 deskontua ELBETEKO POSADA (ELBETE) %10 kartan, 3000€ gora gaurer	LIBURU-DENDAK NAFARPRESS (ELIZONDO) %10 liburu eta kax material... berru liburuak eta bideoak kax MAIMUR (LEITZA) %10 oparitzeko artikulak	TINDATEGIAK JAIONE (DONEZTEBE) %10 12000€ gora	ZAPATA-DENDAK OSTIZ (DONEZTEBE) %10 oinetakotan TXONELKA (LESAKA) %10 deskontua ZANGUE (ELIZONDO) %10 deskontua

freshatu goxatu INFORMATU



LIDERRAK GURE ESKUALDEAN
eta baita azterketa egiterakoan CIESeK
Nafarroa Garaiko mendialdean
hartu duen 111 udalerrien
eremuan ere

Ttapi-Ttaparekin
zure iragarkiak
eragin haundiagoa du



Irakurleak iragarkien arabera


MARCAS: MARCA GARA	14-24 URTE	%12,20
ERREN KLASAKETAK	25-34 URTE	%14,80
LAUREN HAZIARAK	35-44 URTE	%26,80
LAUREN HAZIARAK	45-54 URTE	%22,20
LAUREN HAZIARAK	55-64 URTE	%17,20
LAUREN HAZIARAK	65-74 URTE	%10,70

Adinekin arabera

14-24 URTE	%12,20
25-34 URTE	%14,80
35-44 URTE	%26,80
45-54 URTE	%22,20
55-64 URTE	%17,20
65-74 URTE	%10,70

Sekuentziak arabera

ORDENAK	%40,40
ORDENAK	%11,90



ttipi txartela

ttipi-ttapa

PUE IRIARTEA IGARTZA
72675333-Q
04/2014
123456

**ttipi txartelarekin
beti irabazten da !**

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK

-%25eko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

eskatu zurea 948 63 54 58

informazio gehiago: **telefonoan**
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea 7, 31770 LESAKA
Tel. 948 635 458 | Fax 948 635 457
info@ttipi.net | www.ttipi.net

deSKONTUak



GILTXAURDI
UDAL KIROL INSTALAZIOA
ELIZONDO

%50eko deskontua matrikular
lekuak erabakitako lekuak, 2014-2015

IPINGI

ELIZONDO
%10, 30etik gorako gastuan

IPARLA
kirolak

ELIZONDO
%8, 30etik gorako gastuan



DONEZTEBE
%10eko deskontua oinetakopetan



ARRATE ETETIKA ZENTROA
DONEZTEBE | %10 "Skeyndor
Eternal" krema guztietan



DONEZTEBE | %5 kosmetikan

zozKetak

591 ALEKO IRABAZLEAK

- 1- KAMISETA BAT | Onin Art
Pilar Arretxea | **SUNBILLA**
- 2- 2 LAGUNENTZAKO AFARIA | Oitzko Ostatur
M^a Juana Bereau | **LEKAROZ**
- 3- TORTOLOXAK DVDa | Urbintxa eskola
Fco Javier Martin Gofri | **ARIZKUN**
- 4- 2 LIBURU | Elkarargitaletxea
Ametsi tripek hitz egiten diote | Asun Ingolen | **ETXALAR**
Krispeta hegalariek | M^a Luisa Bengoetxea | **BERA**
- 5- 2 LIBURU | Erein argitaletxea
Kimenak | M^a Eugenia Ibarra | **ETXALAR**
Zaindari ikusiz | M^a Luisa Etxeberria | **LESAKA**
- 6- 2 SARRERA | Aquarium
Susana Zelaleta | **BERA**

KAMISETA BAT
Onddo ta punto
www.onddotapunto.com



MARTIKO LOTEA
www.martiko.com



MARIO HARITIK TIRAKA
Lanku
www.lanku.com



2 LIBURU
Ibaizabal argitaletxea
www.ibaizabal.com



2 SARRERA
Lesakako Udal kiroldegia
www.urdisi.com



2 SARRERA
Aquarium
www.aquariumss.com

